

Mugimenduko egunkariak Euskadin

BEGOÑA ZALBIDEA

f


Euskal liburutegi nazionalaz

AGURTZANE JUANENA

f

Euskal polizia eleberriaren hasiera

GOTZON GARATE



Kulturaz eta kultur politikaz

JOSU AMEZAGA

f

Europa batuaren ildoan, euskal nazionalismoa bidegurutzean

JULEN ZABALO

*Egunen gurpilean*ALBERTO BARANDIARAN • EDORTA JIMENEZ • IMANOL AGIRRE
• ERRAMUN BAXOK • LUIS FERNANDEZ

JAKiN

105

martxoa
apirila
1998



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)

.....




Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Departamentuaren laguntza jaso du

.....



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zenbaki honetan

w 7

Gatak

Mugimenduko egunkariak Euskadin w 11
BEGOÑA ZALBIDEA

Euskal liburutegi nazionalaz w 35
AGURTZANE JUANENA

Euskal polizia eleberraren hasiera w 53
GOTZON GARATE

Hainbat aburu

Kulturaz eta kultur politikaz w 73
JOSU AMEZAGA

Europa batuaren ildoan, euskal nazionalismoa
bidegurutzean w 99
JULEN ZABALO

Egunen gurpilean

ALBERTO BARANDIARAN • EDORTA JIMENEZ w 117
• IMANOL AGIRRE • ERRAMUN BAXOK • LUIS FERNANDEZ

© JAKIN

JAKINeko idazlanean inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Imanol Murua Uria

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20009 Donostia


Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jalgi.com

1998ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	5.500 pzta.	—
Ale arrunta	925 pzta.	1.350 pzta.
KANPOAN		
Harpidetza	6.000 pzta. (246 FF)	—
Ale arrunta	1.000 pzta. (41 FF)	1.550 pzta. (64 FF)

Summary



The newspapers of the Movement in the Basque Country

La Prensa del Movimiento, a chain of pro-Franco newspapers, became established in the Basque Country by means of four dailies: - *La Voz de España* and *Unidad* in San Sebastián, *Hierro* in Bilbao and *Arriba España* in Pamplona. Begoña Zalbidea, Doctor of Journalism, recounts the history of these dailies during Franco's time and the first few years of democracy. *Hierro* from Bilbao, the last to disappear, stopped being published in February 1983. wBEGOÑA ZALBIDEA

f

On the Basque national library

Agurtzane Juanena, a librarian at the Koldo Mitxelena cultural centre, reflects on the situation of libraries in the Basque Country and expresses her desire to see the creation of a Basque National Library which at present does not exist. The author criticizes Basque institutions for the lack of any coherent policy concerning this matter. She ends her article by announcing the creation of an association of librarians and Basque archivists known as «Joana Albret», which will work towards the standardization of the Basque language in libraries. wAGURTZANE JUANENA

f

Beginnings of the Basque crime novel

The first crime novel written in the Basque language was *Hamabost egun Urgain'en* (Fifteen Days in Urgain) by José Antonio Loidi, published in 1955. In his article on the beginnings of the Basque crime novel, the writer Gotzon Garate focuses on the features of and contributions offered by this initial work, and ends by commenting briefly on what authors there have been subsequent to Loidi. wGOTZON GARATE

On culture and cultural policy

Josu Amezaga, professor of the Information Science Faculty of the University of the Basque Country, reflects on the need to develop a new cultural policy from the point of view of a progressive national project. The author stresses the need to face up to the monopolizing trend existing in the cultural industry by creating specific fields of culture and communication. wJOSU AMEZAGA

f

Towards unified Europe - Basque nationalism on the crossroads

According to Julen Zabalo, the European Union still finds itself far from being a political union whose member states are in the process of losing their political sovereignty, although it is experiencing a period of development. In this context, all the Basque nationalist parties are in favour of an ideal unified Europe, but only the Basque Nationalist Party (PNV) pledges itself clearly towards the current European Union. Nonetheless, Zabalo argues that the present European Union is not in a position to offer a solution to stateless nations. wJULEN ZABALO

f

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, entertainments, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Alberto Barandiaran, Imanol Agirre, Erramun Baxok, Luis Fernandez and Edorta Jimenez. w *Various Authors*



eskuetan duzun hau bigarren aldiko 105. zenbakia da eta 1998. urteko bigarrena.

Gai nagusirik gabeko zenbakia duzu hau, elkarren artean lotura zuzenik gabeko artikulu soltez osatua. Komunikabi-deak, liburutegi nazionala, polizia eleberria, kultur politika eta Europa batua, horra irakurgai dituzun bost artikuluen egi-leek jorratu dituzten gaiak.

Gaiak sailean aurkezten ditugun hiru idazlanetatik le-henengoa Begoña Zalbideak egina da: frankismoaren garaian Erregimenak Euskal Herrian argitaratu zituen egunkarien his-toria egin du EHUKo irakasleak, eta trantsizioaren urteetan behin betiko itxi aurretik bizi izan zituzten gora-beheren be-ri ere ematen du. Iruñeko *Arriba España* 1975ean desagertu zen, Donostiako *La Voz de España* eta *Unidad* egunkariak 1980ean utzi zioten argitaratzeari eta Bilboko *Hierro*-k 1983an itxi zuen.

Bigarren lanean Agurtzane Juanena bibliotekariak Eus-kal Liburutegi Nazionalaren beharra hartu du gogoetarako gai. Euskal Herriko liburutegien egoerari buruzko azalpena eman ondoren, erakundeek alor honetan daramaten politika kritikatzan du eta Liburutegi Nazionalaren beharra aldarrika-tu. Liburutegi Nazional honek zein funtzio izango lituzkeen ere zehazten du Juanenak.

Gotzon Garate idazlea euskal polizia eleberriaren hasie-raz mintzo da bere artikuluan. Jose Antonio Loidik 1955. ur-tean argitaratutako *Amabost egun Urgain'en* obraren azterketa egiten du Garatek, lan hau izan baitzen euskarazko aurrene-koa.


Gainerako bi artikulua *Hainbat aburu* sailean datoz.

Kulturaz eta kultur politikaz gogoeta mamitsua egin du Josu Amezaga irakasleak, nazio proiektu aurrerakoi baten ikuspegitik nolako kultur politika bultzatu beharko litzatekeen zehaztu nahi duen artikuluan. Kultur eta komunikazio esparru propioak eraikiz industria kulturalen joera monopolizatzaleei aurre egin beharra nabarmentzen du EHUo irakasleak.

Hurrengo artikuluan, Europa batua eta euskal alderdi nazionalisten jarrera ditu aztergai Julen Zabalok. Europako Batasuna garapen urteak ezagutzen ari dela baina oraindik batasun politikotik urrun dagoela dio Zabalok, estatuak euren subiranotasuna galtzetik urrun daudela alegia. Egoera honetan, euskal alderdi nazionalista guztiak Europa batu ideala- ren alde agertzen direla zehazten du, baina gaur egungo Europako Batasunaren aldeko apostu garbia EAJk baino ez duela egiten. Artikulugilearen iritziz, baina, oraingo Europako Batasuna ez da gai Europako nazio arazoa konpontzeko. Julen Zabalo, Geografian doktorea, preso dago Valentziako espetxean.

Egunen Gurplean saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azken bi hilabeteotako berriak labur eta bizi komentatu dituzte Alberto Barandiaranek Kultura alorrean, Edorta Jimenezek Literaturan, Imanol Agirrek Ikuskizunetan, Erramun Baxokek Soziolinguistikan eta Luis Fernandezek Telepolis atalean. ;

Gatak



BEGOÑA ZALBIDEA

Mugimenduko egunkariak Euskadin

Arriba España, Hierro, La Voz de España eta Unidad

11



AGURTZANE JUANENA

Euskal liburutegi nazionalaz

35



GOTZON GARATE

Euskal polizia eleberriaren hasiera

53

Mugimenduko egunkariak Euskadin

*Arriba España, Hierro, La Voz de España
eta Unidad*

*

B E G O Ñ A Z A L B I D E A

*

diktaduraren amaierak Espainian politikaren, gizar-
tearen eta ekonomiaren alorreko aldaketak ezezik,
Historiako urtekarietan txertaturik, 40 urteren luze-
-zabalean gertatutako jazoeren berri izaten laguntzen
duten ikerketen eta azterketen hasiera ere ekarri zuen.

Aro frankistaren bilaketa- eta ezagupen-lan horren
baitan badu zer esanik Mugimenduko Prentsak: Francok
eta haren bata bestearen jarraiko Gobernu-taldeek ezarriz
joan ziren idearioaren oihartzuna eginez, diktadura-Esta-
tuaren jaiotzari, finkapenari eta iraupenari lagundu zion
35 hiri desberdinetan banatutako eta 40tik gora argitara-
pen zituen kazetaritza-egitura zabalak, alegia. Izan ere, Ge-
rra Zibilaz gero erregimeneko ideologoen, «Estatuaren aur-
ka gerta zitekeen eragozpen ororen gelarazle eta garantia
izango zen prentsa nazionalaren» premia aldarrikatu eta
defendatu zuten. Ohartzen ziren «kontrolatu gabeko pren-
tsak nahi ez ziren ondorio konponezinak ekar zitzakeela».

Logikaren arabera pentsatu beharrekoa da, errotatiboei
emaniko zereginari arrakastaz aurre eman ahal izateko,
kontrol gogorra ezarri eta dirigismorik basatienna egin zela.
Horretarako sortu ziren zerbitzuetako zenbaitek demokra-
zia ondo ezarri arte ere iraun zuen: kazetaritza-enpresa pu-

-
- Begoña Zalbidea Kazetaritzan doktorea da eta EHUko
Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatean irakasle.

blikoa desagertu zen arte, zehazkiago; 1984an gertatu zen hori, PSOE Gobernuan bigarren urtea egiten ari zenean. Jabego publikoko komunikabideak, ordurako, Estatuaren Gizarte-Komunikabideak deituriko (MCSE) Erakunde Autonomoaren baitan bilduak zeuden; trantsiziotik hasi eta burualde guzti eta bakoitzaren likidapena arte indarrean egon zen deitura hain zuzen.

Mugimenduko Prentsa-Katea lau egunkariren bidez finkatu zen Euskadin: *La Voz de España* eta *Unidad*, Donostian, *Hierro*, Bilbon eta *Arriba España*, Iruñean. Ideologiaren ikuspegitik, *Arriba España* izan zen ideologia falangistaren agerpenik nagusiena. *La Voz de España* izan zen, bestalde, hedapenik handienekoa.

Taldeko egunkari guztietan gertatu bezala, Euskadin finkatutako errotatiboak ere atxikipenik gabeko nahiz marxista izatearen salaketapean enpresei nahiz partikularrei egindako inkautazioen emaitza izan ziren. Armadakoek eta bertako agintariak, gobernadore zibilek eta, era berezi eta ohikoenean, falangistek egin zuten lan hori, kasuan kasuko probintzi buruzagitzen agindupean.

Arau multzo batek ematen zion sostengua jokabide honi: 1937ko urtarrilaren 10eko Lege-Dekretuak eta legez kanpo jarri eta ondasun guztiak kentzen zitzaizkien indar politiko guztien izenak ageri ziren data bereko Aginduak nagusiki. Zerrenda osatuz joan zen hurrengo aginduetan, Mugimendu Nazionalaren aurkakotzat jotzen ziren talde, erakunde eta alderdien multzoa ia bete-betean osatu arte.

Gerra-harrapakin handi honen jabetza Estatu Berriaren esku ziurtatzeko, Serrano Súñer-ek hau erabakitzen zuen 1938ko abuztuaren 10eko Agindua izenpetu zuen:

Barne-Ministerioak eta bertako Prentsa-Zerbitzu Nazionalak interbenitua geratuko da, aska daitezen herrietan ager dadin inprenta-material oro, kontutan hartzeke 1936ko uztailaren 17aren aurretik jabego-eskubidea zutenen edo hauen legezko ondorengoen eskubide-aitorpena; betebeharrak hauek Barne-Ministerioaren aurrean egiaz-tatu beharko dira¹.

Hauek eta beste lege-xedapenek harrapatutako guztia-
ren jabetza-eskubideak mugatzea bilatzen zuten, ezarrita-

ko agintearen onuran. Estatu-Buruzagitzak, horregatik, 1940ko uztailaren 13ko legea eman zuen, zehazki eta behin betiko, aginduz pasa zitezela

FET y de las JONSen Prentsa- eta Propaganda-Ordezkaritzaren Ondarera, bere eskuko erabilpen-gaitasunez, Gobernazio-Ministerioak eta bertako Prentsa-Zuzendaritza Nagusiak inkautatutako inprimategien nahiz argitaldarien lantokietako makineria eta gainontzeko materiala.

Lege hau da Mugimenduko Prentsaren benetako arau sortzailatzat hartu behar dena².

Inkautazioak

Alcalá de Henaresen kokatua dagoen Administrazioaren Artxibategi Nagusian eta Kultura Ministerioko Artxibategi Zentralean, Madrilén, gordetzen diren espedienteen eta txostenen ikerketak eta parekaketak inprimategien eta egunkarien eta/edo haietako makineriaren inkautazioei buruzko honako laukiak osatzea bideratzen du:

Inprimategi inkautatuak

HIRIBURUA	JABETZA
Bilbo	Marzelino Ibáñez Miguel
Iruñea	Ramon Bengarai
Donostia	Rikardo eta Luis Leizaola Ibarburu

Egunkari eta/edo astekari inkautatuak

HIRIBURUA	DEITURA ETA/EDO JABETZA
Bilbo	<i>Euzkadi</i> , Euzko Alderdi Jeltzalearena
	<i>El Liberal</i> , Prieto sozialistarena
	<i>El Nervión</i> , Etxebarria sendiarena
Iruñea	<i>La Voz de Navarra</i>
Donostia	<i>Guipúzcoa Obrera</i>
	<i>El Pueblo Vasco</i> Editorial Easo S.A.rena
	<i>La Voz de Guipúzcoa</i> , La Voz de Guipúzcoa, S.A.ren egunkari errepublikarra
	<i>El Día</i> Prensa Editorial Católica, S.A.rena

Egileak eginak. Iturria: Kultura Ministerioko Artxibategi Zentrala.

Errekiatutako ondasunak Mugimenduko hainbat egunkariren artean banatu ziren. Euskal Herriari dagokionez, hala, *Arriba España*-ri *La Voz de Navarra*-ren materiala eman zitzaion, *Hierro*-ri, *Euzkadi* eta *El Liberal*-ena, *La Voz de España*-ri, *La Prensa*, *La Voz de Guipúzcoa*, *Guipúzcoa Obrera* eta *El Pueblo Vasco*-rena eta *Unidad*-i, *El Día*-rena³.

Banaketa horretan zenbait partikular ere irabazten atera zen. Hori izan zen *El Liberal*-i kendutako makineria gordailuan eduki zuten Iruñeko *El Pensamiento Navarro*-ren jabeen kasua eta *Euzkadi* egunkari nazionalista argitaratzen zuen Tipografía General, S.A.tik zetorren «Gross» errotatibaren trukean aldi baterako hiru lintopia aldatu zuten *El Correo Español*-*El Pueblo Vasco*-ren jabeena.

Zenbait agirik bideratzen digu esatea hainbat izan zirela kaltetuek jarritako erreklamazioak. Ez zuten, ordea, guztiek zori bera izan. Eskatzaileek era guztietako erantzunak jaso zituzten. Gehienetan edo dokumentazioa falta zen edo eskakizuna garaiz kanpo egina zegoen. Ez da harritzekoa, horregatik, zenbaitek beren jabetzak Prentsa-Ordezkaritzari eskainiz amaitzea, salmenta nahiz indemnitazio gisa, Donostiako *El Día*-ren zenbait akziodunen kasuan bezala.

Edozein itzultze-eskarik ikerketa exhaustiboari bide ematen zion. Barne-zerbitzuek, Gobernadoreak, Falangeak edo xehetasunen bat eskura lezan edonork, Hierarkia jakinaren gainean jartzeko betebeharra zuen. Zenbaitetan ez zen argi geratzen ideologia eta are gutxiago ezarritako erregimenaren aurkako ekintzetan zuzenki esku hartu izana. Baina horrek ez zuen eragozten irizpena erabatekoa izatea: «Ez da onartu aurkeztutako erreklamazioa».

Marzelino Ibáñez Miguel bilbotarrak berarengan sentitu zuen hitz horien astindua. Ez zioten ezertarako balio txostenetan Elizaz ezkondu zela esatea edota «eskolatu eta orotan zuzen; jokabide eta moral oneko» gisa aurkeztea. Besteek bezala, substrakzioagatik demanda aurkeztuz amaitu zuen Bilboko 1. Instantzia eta Instrukzioko 2. Epaitegian.

Azaldu dugun kasuaren aurrez aurre dago hiriburu bizkaitarreko Erronda kaleko 30.ean instalatua zegoen *El Nervión*-en jabeei dagokiena. Nazionalismoaren aurkako

aurrekari trinkoak eta zantzu nabarmen españolistako ibilbidea baliagarri gertatu zitzaizkien galdutakoa 1943an berreskuratzeko, salerosketa itxurapean bederen.

Eskabideetako zenbait sozialistak Gobernura iritsi ziren arte mantendu ziren. Aldi honetan onura jaso zuena Prieto sendia izan zen eta bizirik irauten zuen Constancia Prieto ondorengo bakarra, zehazkiago: berari itzuli zitzaion 1985ean *Hierro*-k Bilbon hartu zuen etxea.

Ēgunkarien historia laburra

Arriba España

Arestian adierazi denez, *Arriba España* izan zen, Euskadin finkatutako Mugimenduko lau egunkarien artean, postulatu falangistak gehien eta hobekien zabaldu zituen. Fermin Yzurdiaga apaizak eta Angel Maria Pascual idazleak bultzatua, 1936ko abuztuaren 1ean argitaratu zen *La Voz de Navarra* egunkari nazionalistaren errotatibaren gurpiletan⁴. Iruñeko Zapateria kalean kokatua egon zen. Kokagunea, alokatua, Eustakio San Julian-ena zen.

Irakurlego arruntaren artean hedatzen batere lagundu ez zion idazkera eta sinbologia inperial eta barrokoengatik nabarmendu zen. Prentsa kontserbadorearekiko ika-mikak —*Diario de Navarra*-rekin batik bat— ugariak izan ziren. Nafarroako Falangeak azken hau derrigorrez bereganatzea pentsatzeraino.

Emilio Romero Prentsa-Ordezkaritza Nazionaleko buru zela, argitarapena bertan behera utzia izan zen. Ordez-kari Nazionalak 1975eko ekainaren 25ean Prentsako Lege-Erregimeneko Zuzendari Nagusiari bidali zion oharrean, esaten zen etenaldia, uztailearen 1az gero, aldi baterakoa zela eta Katearen berregituraketak eraginarazia. Ez zen, ordea, kioskoetara inoiz itzuli.

Erabakiak amaiera-puntua jarri zion ia egunkariaren sorreratik bertatik eramaten ari zen zamari, inoiz ez baitzuen ikur positiborik ikusi bere emaitzetan. Frogarik onena Fermin Yzurdiaga zuzendariak, 1939 urteko 69.964,75

pezetako defizita zuritzeko eta konponbideak aurkeztuz, 1940ko maiatzaren 17an idatzi zuen txostena bera da⁵.

Egunkariaren sortzailea izateaz harro zegoen eta burutik oinetara falangista ageri zen haren ustez, ezin zitzaion ezer leporatu hasieran, lehen lau hilabeteetan «Espainia Nazional osoan eta gerrako fronteetan zehar zabaldu ziren» 18-20.000 aleko tirada lortuz, zori ona eskutik izan zuen egunkariaren sorrerari.

Beharrezkoa Nafarroako FET y de las JONSen bateraketa-unean eta lokalen itxieran kokatzen du; horrela, «elkarre Nazionalindikalista osoa herio-zauriz joa geratu da, sakabanatuta eta zuzendari karlisten nahien menpe». Honi, beste hau ere erantsi behar: «erakunde ofizialak, gobernu zibilak, diputazioa eta udalak reketean esku daudela», alegia, «eta gogo biziz erasotzen zaiola ikur falangista orori».

Egunkariari dagokionez —*eransten du*— artxiboan ditugu frogak nola debekatzen zaien enplegatu ofizial guztiei (maisuei, idazkariei, epaileei) irakurtzea. Parroko jaunek epaitu egiten dute agerian pulpilotik, fronteetara alkondarra urdin gehiena eraman zuen probintzia izanik Nafarroa.

Alternatiba, harrez gero, begi-bistakoa zen: edo indartzea edo ixtea. Bigarrena onartezina zen eta lehena, kontuan hartzea merezi zuena, *Arriba España* propagandarako doktrinak eta kontsignak zabaldu zituen lehen egunkaria izan zelako Falangearen historian, Mugimenduko egunkari bakarra zelako Nafarroan eta, honenbestez, Estatuaren organo ofizial bakarra eta lau urtez, isiltasunean, eroapez eta adorez

gure egunkariaren bidez —benetako «zubiburua», ez ulertze eta jazarpen-giroan, beldurgarritzko atsekabe-giroaren erdian— borroka egin dugulako Caudilloaren, Gobernuaren eta Falangearen kontsignak defendatzen. (...) *Arriba España* hilko balitz, zera esatera ausartuko ginatke: hil dela Nafarroa Espainiaren kausarako.

Hierro

Hierro, ilunabarreko egunkari bilbotarra 1937ko uztailaren 5ean kaleratu zen, Jose Antonio Giménez Arnauren

zuzendaritzapean⁶. 1938ko apirilaren 11 arte, *Euzkadi* argitaratzen zen Posta kalea, 17ko Tipografia General, S.A.ren tailerretan inprimatu zen. 12tik aurrera, El Noticiero Bilbaino, S.L.ren instalazioetan inprimatu zen, Sozietate horren jabetzako *Nueva España* goizeko egunkariarekin bat egin zuelako⁷. 1941eko urtarrilaren 1ean *El Correo Español-El Pueblo Vasco*-ren makineria erabiltzen hasi zen. 1942ko azaroaren 12an Galtzara Nagusia, 13ra itzuli zen, El Noticiero Bilbaino, S.L.ren lokaletara. Geroago, Ordezkaritzaren eta *El Correo español-El Pueblo Vasco*-ren jabeen artean sinatutako hitzarmenari esker, firma honek aipatu *Euzkadi* egunkari nazionalistatik etorritako makineriaz Ledesma, 6an zituen lokaletan inprimatzen hasi zen *Hierro*. Helbide horretan egon zen 1950a arte; urte horretan, Indalezio Prietoren seme Luis Prieto Cerezoren zen Orueta Gotzaina, 2ko etxea eskuratu zuen Falangeak.

Leku batetik bestera joan eta etorri behar hori eskaintzaz eta kontraeskaintzaz gainezka joan zen. Ahalegin gehiena jarri zuena Alejandro Etxebarria Zorrozuia izan zen, *El Noticiero Bilbaino*-ren egoitzako instalazioen gerentea eta, bere familiarekin batera, jabekidea. Salmentako azken eskaintza 1.100.000 pezetakoa izan zen, hiriburu bizkaitarrean kiroletako euskal egunkari bat argitaratzen uztearen truke; Prentsa-Ordezkaritza Nazionalak, 1942ko ekainaren 15eko idazki batean esaten zuenez,

erregimen honekin bat egiten duen irakurlegoaren manifestazio plebisitario baterako balioko du, kirola aitzakiatzat hartuz.

Eskaintza Ordezkaritzaren aldeko erosketa-aukerarekin batera zihoan. Behin onartu eta gero, *Hierro*-k bedein kapen guztiez hartu eta inauguratu zituen lokal berriak. Bazirudien eragiketa itxia zegoela. Ordezkaritzak, ordea, ez zuen berari zegokiona bete eta finantza-egoera zail eta larrian utzi zuen Sozietatea banku-erakundeen aurrean⁸. Egoera konpontzeko formula bezala, hileko 15.000 pezetako errenta-kontratua eskaini zitzaion Herri-Hezkuntzako Idazkariordeari. 1943ko ekainaren 1ean, El Noticiero Bilbaino, S.L.ren gerenteak zortzi eguneko epea eman zuen,

Hierro-k bere jabetzako instalazioak utz zituan. Joandako denbora nahikoa zela irizten zuen eta Sozietatearen «uste ona eta adeitasunezko konponbide batera iristeko gogoia» ahitu egin zirela. Hogei egun geroago, Ordezkar Nazionalak izenpea idatzi zuen, 1942ko azaroaren 12a arteko atzera-eragina zuen eta elkarrizketak hasi zirenez geroztik eskainitako erosketa-aukera Ordezkaritzak erabil nahi zezan arte indarrean egongo zen errenta-kontratu batean.

1944an, behin eta berriro egindako salerosketa-eragiketarak aldatu egin zuen hartzailea. *El Pueblo Vasco*-ren jabeek *El Noticiero Bilbaino*-ren makineriaren erosketa-eskubidea transferitu zekiela eskatu zioten Herri-Hezkuntzako Idazkariordeari. Argitarapenaren jabeek, horren ordeztan, besteak beste, *Euzkadi*-tik zetozen eta hark trukean eman zizkion ondasunak Ordezkaritzari itzultzen zizkieten eta bertan behera uzten zen Etxebarria sendiaren kirol-egunkari bat argitaratzeko asmoa. Akordioa sinatu ondoren, 1941eko azaroan atera zen Ledesma, 6ko etxera itzuli zen *Hierro*⁹.

Hierro Orueta Gotzaina, 2an behin betiko kokatzeak ez zuen bere ilunabarreko egunkari izaera aldatu. Mairidira formatoa eta bost zutabeak 1983an desagertu zen arte mantendu zituen; baita «Gross» markako tipografi errota-tiba historikoa ere. Aldaketa bakarrak burualdeko tipografian izan zuen eragina. 1975eko apirilaren 20an, une hartan egunkariko zuzendari zen Julio Campuzano Canterok Informazio eta Turismo Ministerioaren Probintzi Ordezkaritari adierazi zion, aipatu hileko eta urteko datuz *Hierro* markak «estiloa eta estetika» aldatu egiten zituela. «Hala deituriko euskal kaligrafia» erabiliko zuen, «karaktere edo tipo 'trinkoak' erakutsiz, inprimaketa hobea lortzearren».

Hasieran ageriko enkantean eginiko salmenta iragarri zen arren, ezerezean geratu zen galdapena zegoenez onibarraren gain; eta esan bezala, Prieto sendiari itzuli zitzaion azkenik 1985ean.

Unidad

Donostiako *Unidad* izan zen Prentsa- eta Propaganda-Buruzagitzako egoitzagandik hurbilen zegoen ilunabarre-

ko egunkaria, alderdiaren (Falange) organo ofiziosoa izateraino. 1936ko irailaren 16an atera zuten saltzera.

Hartzen zituen lokalak —Victor Pradera kaleko 12. zenbakiko etxearen beheko oina eta sotoa— eta makineria eta gainerako tresneria Prensa Editorial Católica, S.A.renak ziren eta Eleuteria Arrese Berasategik hipotekatuak zeuden. Horrek zekarren karga amaitutzat emateko, Anjel Inaraja Ruiz, argitarapenaren administrariak, etxearen erosketa gestionatu zuen apatu andrearen aurrean 60.000 pezetatan.

Elkarrizketak behin ondasun guztiak Prentsa-Zuzendari Nagusiak Ordezkaritzari adjudikatu eta gero hasi ziren; 1951ko martxoaren 18ko aginduz gertatu zen. Ordura arte, 1936ko irailaren 13an Falangeko miliziek etxea, makineria eta lantokia hartu zituztenez geroztik, ez zen formalizatzeko ahaleginik egin.

1970ean, Gustavo Marsés y Cía., Sociedad en Comandita-ri 1965eko martxoaren 1ean erositako Jose Maria So-roa, 25eko lokalak *La Voz de España*-rekin partekatuzera pasa zen. 1980ko otsailaren 11n desagertu zen.

Unidad deiturapean, hauek egon ziren zuzendaritzan: Eugenio Saldaña San Martín, Jose Ramón Aparicio Muñoz, Jose Javier Aranjuelo Oraá, Carlos de la Valgoma y Díaz Varela, Enrique Cimas Rotondo, José Molina Plata, José Luis Banús Aguirre eta Francisco Javier Zuloaga.

La Voz de España

Donostiako *La Voz de España* *La Voz de Guipúzcoa*-ren inkautaziotik sortu zen. Behin-behineko gauza bezala, 1936ko irailaren 14an, probintziako Gobernadore Zibilak Elkartasun Tradizionalistako Reketeei eman zizkien enbargatutako ondasunak. Egunkariak bi egun geroago ekin zion bere ibilbideari.

1939ko abuztuan Granadako Mugimenduko *Patria* egunkarira bidali ondoren *La Voz de Guipúzcoa*-ri inkautatutako errotatiba, *Unidad*-en tailerretan argitaratzen hasi zen *La Voz de España*.

1939ko abenduan 833,33 pezeta ordaintzen hasi beharra izan zuen *La Voz de España*-ren administrariak, San

Martzial kaleko 8an eta 10ean erabiltzen zituzten lokalen-gatik, hauek ere enpresa errekisatuaren jabetzakoak. Nafarroa eta Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Epaitegi Zibil Berezia zen kobraketa zuzenean egiten zuena.

Madrileko José González Palomino notarioaren aurrean emandako 1950eko abenduaren 19ko data duen eskrituraren bidez, La Voz de Guipúzcoa, S.A. ren akzioen gehiengoa erosi zuela esan daiteke Ordezkaritza Nazionalak, 3.510.815,82 pezetako prezioan, berandutza-interesak barne, salneurri egokituaren ordainetan¹⁰. Zenbait urte geroago, Gustavo Marssé y Cía., Sociedad en Comandita-ri 1965eko martxoaren 1ean erositako etxe bat erabiltzera igaro zen, *Unidad*-ekin batera, Jose Maria Soroa kaleko 25ean.

La Voz de España-k sei argitarapen desberdin egin ohi zituen egunetik egunera: Araba, Burgos, Logroño eta Miranda de Ebro; Irun, Errenteria, Pasaia eta Bera Iruñeruntz; Tolosa, Billabona eta Beasain iparralderuntz; Zarautz, Getaria, Deba, Azpeitia, Azkoitia eta kostaldeko herriak; Eibar, Elgoibar, Bergara eta Arrasate Bilboruntz eta Donostia eta hango barrutia.

Egunkari honen zuzendari izan ziren: José Molina Plata, Jesús Revuelta Imaz, Carlos de la Valgoma y Díaz Varela, Francisco V. Domínguez Isla, Félix Morales Pérez eta Jesús M. Zuloaga Zuloaga. José Molina Plata hirurogeita hamarreko hamarkadan itzuli zen, kargua *Unidad*-ekin banatuz. 1977ko hasieran Miguel Larrea Zabalegiri egokitu zitzaion zuzendaritza eramatea.

La Voz de España-k 1980ko otsailaren 11n utzi zion kaleratzeari.

Erakunde-dirigismoa

Gainerako komunikabide frankistak bezala, *Arriba España*, *Hierro*, *Unidad* eta *La Voz de España* ere erakunde-kontrol eta -dirigismo estuenaren menpe bizi izan ziren. Beharrezko egitura eta zerbitzuak ezarri ziren horretarako, agintaritza zentraletik, irakurlea horretaz ez ohartzen aha-

leginduz. Hierarkak argi ikusten zuten beren errotatiboetako orrialdeetatik esaten zenari

berdinketaren zizela eta teletipoz bidali izana nabaritzen bazaio, sistema guztia pikutara doa; irakurlea ardurarik ezak mendean hartzen du eta alferrikakoa da proselitismo lan oro. Orientatzea eta gidatzea ezerez hutsak dira¹¹.

Eguneroko praktika zen zentsurari, erredakzioetako mahaietara egunetik egunera heltzen ziren ohar, agindu, kontsigna eta iradokizunak eransten zitzaizkion. Horien betetzea eta hedatzea ikuskatu eta zaindu egiten zen, baita Franco hil eta gero ere.

Lehen zerbitzua 1940an sortu zen, deitura hau zuela: Lankidetza-Atala. Helburua hau besterik ez zen:

Irakurlegoa politikaren alorrean, lehentasunez, nazioari buruzko informazioarenean eta kulturaren alorrean gidatzeko premiari, Estatu orok bere gain hartzen duen premiari, erantzutea.

Horretarako, «beren prestaketa eta espezialitateagatik nabarmentzen ziren idazle eta kazetarien artetik aukeraturako» lankideez baliatu ziren¹².

Aukeratutako gai bakoitzak nagusitzatik ateratako edo, ataleko buruak proposaturik, Prentsa-Zuzendaritza Nagusiak onartutako kontsignei erantzuten zien. Aukeratutako artikuluek baldintza hauek bete behar zituzten: proposatutako kontsignari zintzotasuna; estilo argia, eskolatua eta laburra; nazioaren interesekoa, gaurkotasuna, zehaztasuna eta atsegin izatea.

Lan-taldearen produkzioa, argitaratze-data ezartzen zitzaizlarik, Mugimenduko Prentsaren egunetik egunerako informazioaren osagarritzat hartu zen beti. Banaketa ez zitzaien era berean iristen denei. Estatuko egunkari batzuk eta besteak lau multzotan sailkatu ziren¹³. Multzo bakoitza geografikoki desberdinak ziren hirietan argitaratzen ziren burualdez osatua zegoen, artikulua bat bera, horrela, eskualde bereko bi egunkaritan zabal ez zedin.

Zerbitzu honen lana ez zen aldi baterakoa izan, eten-gabea baizik. Franco hil ondoren ere, jarraibideak mantendu egin ziren. Aldaketaren alderik nabarmenena zenbait

lankideren izen eta hizkeran egon zen. Hau irakur daiteke zuzendariei 1977an bidalitako idazki batean:

Adiskide hori:

Ikusten ari zaretenez, PYRESA-ko teletipoen bitartez, mantentzen ari da kronika politikoa dei geniezaiokeenaren gain batez ere eragina duen egunetik egunerako lankidetzaz. Ondo eta bere garaian ari zarete jasotzen Fernando Onegaren «El Péndulo» eguneroko lankidetzaz (...) eta berandu iristen zitzaizuen Emilio de Miguel-ena ere bidaltzen ari zitzaizuen; hori horrela, eragin kaltegarria zuen argitaratzeko.

Aldatu egin da ordutegi hori eta argitaratzea bideratzen duen garaian hartzen ari zaretela uste dut. Transmittitu aurretik egunero gainbegirada ematen zaion Emilio de Miguelen kronikak beste lankidetzak osatzen dituela uste dugu, idazten duen ikuspegia dela-eta. Mugimenduko Prentsak lege-esparru barruko aukera-aniztasunera jo behar duenez, Emilio de Miguelek gure egunkariaren irudi-aniztasun horretan asko laguntzen duela uste dugu eta horrela ulertu behar da zuen aldetik, seguruenik ondo hartua izango den gure irakurleen zati horren begirunez.

1983. urteari zegokion egutegian ere —aldi sozialista, beraz— indarrean eta eraberritua ageri zen haren jarduera. «Politikoki aurreko aldiari lotutako» lankide zaharrak ordezkatuak izan ziren eta Katetik zetozen zenbait kazetari eta itzal handiko izen sartuz zabaldu zen; azken hauen artean Aranguren, Savater, Martín Patino, González Ruiz, Juan Cueto, eta abar aurkitzen ziren.

Zerbitzuaren iraupena agerian jartzen zuen urtarrilaren 10ean Malen Aznarezek, Estatuaren Gizarte-Komunikabideen Prentsa-Departamendu Teknikoko zuzendariak, MCSEko zuzendari guztiei bidaltzen zien eta honela zioen agiri honen bidez:

Lankide hori:

Bihar hasiko da berriro, azken egunetan etenik egon den lankidetzaz-zerbitzua. Oraingoz ahalmenaren betean jardungo ez badu ere, materiala bidaliz joatea nahi dut, zerorrek nahi eta egoki deritzozunez erabil dezazun.

Jarraian, laster jasotzea aurrakusten den eguneroko eta asteroko materiala xehetzen dizut:

EGUNEROKOA: Kronika politikoaren editoriala, RTVE-ren informazioa, izen ezagun baten artikulua eta elkarriketa nahiz erreportaje bat.

ASTEROKOA: Kultur kronika; Ekonomiaren kronika; Zinemari buruzko kritika eta informazioa; Nazioarteko informazioa.

Kronika politikoa nahiz izen ezagunaren artikulua beren horretan oso-osorik eman behar direla gogoratu nahi dizut, leku faltagatik sor litezkeen mozketarik gabe.

MCSEko egunkarientzat zerbitzu hobea ekar lezaten zure iritzi eta iradokizun edo ekarpen ooren zain nagokizu gaiaren inguruan.

«Lankidetzak» zerbitzutik Mugimenduko Prentsari eta, geroago, Estatuaren Gizarte-Komunikabideei bideratutako hornidurek laster asko aurkitu zituzten sendotze-elementuak. Ez da, hala, harritzekoa 1942ko maiatzaren 1ean Argitarapen- eta Kontsigna-Atala eratzea. Bete behar zuen egitekoak ez zuen zalantzarik sortarazten: Estatutik eta honen Gobernutik ateratako kontsignak agiri bidez eta zuzenean egunkariei bidaltzea eta, probintzietako kazetaritza-organoen esku jarritako baliabideen eta zainpearen bitartez, egin beharreko kanpaina bakoitzak eraginkortasunik handienaren garantia eta arrakasta izan zezala lortzea.

Zerbitzuko arduradunek idatzitako txosten batean aipatzen da nola

izaera politikoa, nazionala edo ekonomikoa zuten kanpainei zegokien kontsignak ongi dokumentatutako sinopsi gisa bidaltzen zitzaizkiela egunkariei, eta hauetan oinarrituz idatzi behar zituztela beren artikulua, editorialak edo erreportajeak.

Aipamenekoa oso argigarria den bezala gehienontzat (agintariek eskaintzen eta nahi zutena argitaratzen zen), eragiketa hauen egileentzat, «mintzagai ziren gaien izaera berezia zela-eta, probintzietako zenbait egunkaritan sakonki eta, beharbeste zehaztasunez aztertzeko, agiriak eskuratzea zaila izan zitekeela pentsatuz» egiten zen lana.

Hori hala balitz, ez lukete inolako zentzurik, «Ikuskapen-Orria» deiturapean, Administrazio Zentralaren artxi-bategietan pilatzen diren dossier lodiek. Ezta probintzi ordezkarietzeko Prentsa-Zerbitzuen jarduerak jasotzen ziren asteroko berri-emateek ere.

Zentsura ere jarduera nagusienetako bat izan zen diktadura bitartean. Jokabide honi buruzko erantzun zehatza Arias Salgadoren aurkitzen da, osasun izpiritual eta moralaren arrazoiengatik egiten delarik guztien ona aurrikusteko eta babesteko zeregina damaionean zentsurari¹⁴.

Zentsuratzaileen jardunak debekatzea bezainbat bereganatu zuen behartzea eta moztea. Eginkizun multzo zabal horren baitan garrantzi berezia lortu zuten hala deituriko *entrefilete*-ek, hau da: albisteen idazkiaren erdian, horren bidez ematen zen informazioarekin inolako zerikusirik edukitzeke, tartekatzen eta ateratzen ziren esaldiak. Informazio- eta Zentsura-Zerbitzuari egokitu zitzaion ekimen hau gauzatzea. Hiru ziren hitz giltzarriak: esanekotasuna, zerbitzua eta menpekotasuna.

Zentsura-liburuek osatu zuten egunkariak eskaini beharreko informazioaren gain zentsuratzaileek egindako lanaren gordailurik zuzenena. «Zentsura Liburua» epigrafeaz orri bakoitzean itsasten ziren, egunetik egunera, ikuskapenaren menpe jarritako galeradak eta/edo argazkiak. Ez zen atalik geratu lotu gabe. Kirolak, gizartea, kultura, nazioartea, iritzia... «debekatua» edo «aurrera, ezabatutakoa izan ezik» zioen zigiluak zapaldu zituen.

Aldi demokratikoa

Demokraziaren etorrera arte eta sozialistek hautestontzietan lortutako garaipena arte, zehazkiago, ia ez zen nabarmendu jabego publikoko komunikabideetan egiten zen informazio-trukaketaren kritikarik. Aldi berrian, ordea, ahotsak *in crescendo* joan ziren. MCSEko arduradunek behin baino gehiagotan atera behar izan zuten talde politikoaren eta gizarte-agenteen aldetik isurtzen ziren interpe-lazioen eta galderen bidera.

Oposiziotik egiten zitzaien oharpen bakoitzari puntuz puntu erantzuteko arduradunek erabat ukatzen zuten edonolako eta edonondiko dirigismo oro, zera adieraziz:

Ez Gobernuak, ez Kultura Ministerioak, ez Erakundeak berak ez die informazio-politikari buruzko agindurik ematen egunkariei, ez dute ezta inolako presiorik egiten egunkarien edukia gidatzeko ere, ez informazioaren, ezta iritziaren aldetik ere (...).

Aitortzen zuten bakarra Informazio- eta Dokumentazio-Zerbitzua zen, eta «bertatik egiten zirela», Gobernuaren egunkariei bidaltzeko, «era guztietako lankidetzak; gauza arrunta egunkari garrantzitsuen kate guztietan».

Gobernuarekin bat zetozen eledunek eta pertsonak, azaltzen ziren kritikak eta salaketak gezurtatzen, egindako ahalegin guztia laster asko galdu zen. Prentsa pribatu ia guztiak 1983an zehar zabaldu zituen informazioek eta artikuluek alderantzizkoa zioten.

ABC egunkariak, lehen orrialdean, honela zioen titularrez hasten zuen urtea: «Gobernuak plataforma ideologiko gisa darabilzki MCSEak»¹⁵. Hurrengo hilabeteetan Gobernuarenak ez ziren estatu-mailako komunikabide ia gehienek tokia egin zieten antzeko albisteei, baina alde nabarmen batekin: Gobernuak Estatuaren prentsari jarraitubidea markatzen zion aitorten garbiarekin, alegia. Egiatzapen hau, Javier Solana Kultura ministroak berak egin zuen, Kataluniar Gutxiengoko Miquel Rocak Kongresuaren osoko bilkuran egindako interpelazioari erantzutera-koan, «kate estataleko egunkarietako zuzendariei ideologi mailako editorialak eta argibideak bidaltzeari utz ziezaieten bidezko aginduak ematera konprometitu» zenean.

Kulturako titularren hitzek —komunikabideren bategen jaso zuenez— «trumoien kutxa» zabaldu zuten. Eztabaidan jarri zen askatasunen estatua. Eskandaluaz, iritzi gidatuaz, editorialgile-funtzionariez eta propagandako komunikabideez mintzatu zen¹⁶.

Ez zen lan erraza gertatu aitorten oihartzuna itzaltzea. Agintariek, beren defentsarako, kontrolpean zituzten egunkarietako eta *El País*-eko orrialdeak behar izan zituz-

ten. Egindako ahaleginak ez zuen arreta desbideratzerik lortu. Komunikabide pribatuek aurrera egin zuten higitze-lanean. 1983ko maiatzean *La Crónica*-k plazaratu zuen hainbat editorialetan trukaketaren arazoa azpimarratzen zen. «Mugimenduko kate zaharrak eta prentsa-askatasunak» idazketako hizkiak gidatzen jarraitzen zuten¹⁷.

ABC-ek eta *Diario 16*-ek ere ez zuten atsedunik hartu. Lehena «MCSEren baitan arrazoi politikoek eragindako garbiketez eta herri-diruaren hondaketaz» mintzo zen bitartean, bigarrenak «metamorfosia Gobernuan» gaiak hitz egiten zuen. Justino Sinova azken izenburu honek iradokitzen zuen kronikaz baliatu zen Exekutiboaren «atze aldean» gertatzen ari zena aztertzeko. Kronika hartan Gobernuak «frogakizun zuela» gogoratzen zuen «espainiar gizartearentzat adierazpen-askatasunarenganako begirunea eta defentsa. Horretarako —azaltzen zuen— Estatuaren egunkariaren trukaketa galeraziz hasi beharko luke, lehendabizi, eta kate osoa pribatizatu, gero.(...)»¹⁸.

*I*txiera eta kitapena

«Egunkarien historia laburra» atalean adierazia geratu den bezala, *Arriba España* izan zen Mugimenduak Euskadin zituen lau egunkarien artean lehena itxi zena. Erabakia Emilio Romerok hartu zuen 1975ean, Ordezkarri Nazional kargua bete zuen garaian. Une hartatik ohartu zen iritsi zela jadanik Katea errentagarri egiteko ordua, ez ordea, ideologia baten hedapenari zegokionez bakarrik, sorreratik egin zen bezala, baita ekonomiaren ikuspegitik ere. Eskatzen zuen enpresa bihurtzeak «bazterretako ustiapenen desagertzea» behartzen zuen nahitaez eta «pilatutako zame-tatik» askatzera.

Eskema horren arabera, hiriburu nafarrean finkatutako goizeko egunkaria ixtera bidean zihoan. Aski bedi esatea batezbesteko eguneroko hedapena, 1955ean, 1.671 alera jaitsi bazen, galerak bide beretik joan zirela hurrengo urteetan. 1970ean 5.791.131 pezetako defizita bazuen, 1975ean kopura 7.217 milioi pezetara igoa zegoen.

Errotatibo bilbotarraren egoera ere ez zen askoz hobe. Hala ere 1983ko otsaila arte kaleratu zen, zeren eta ekonomikoki ez bazen errentagarria, ikuspegi politikotik begiraturik, bazen, kokapenagatik. Batezbesteko eguneroko hedapena 1955ean 10.889 alerena zen. 1970ean 2.056.368 pezeta galtzen ari zen eta 1980an, 77.217.119 pezeta.

Bi egunkarietako bat ere ez zen saldu. *Hierro* 1982an ageriko enkantera atera zen arren, ez zen egin, Constancia Prietok jarritako demandagatik; lehen idatzi dugunez, 1985ean berreskuratu zuen etxea. Hazienda Ministerioko kontu-hartzaileek 50 milioitan baloratu zuten 1982an etxea.

Bi itxiera hauen erdian, 1980an burutu ziren *La Voz de España*-rena eta *Unidad*-ena geratzen ziren. Jokabidea arrazoitzeko, oraingo honetan Madriletik eman ziren arrazoiak ekonomikoak izan ziren beste behin. Hala ere barneko txostenek ez dute hori egiaztatzen. Baziren 1984a arte iraun zuten eta errotatibo gipuzkoarren emaitza negatiboak, eta lehenarenak batik bat, gainditzen zituzten egunkariak. 1981eko uztailaren 4ko data duen txosten batean aitortu ere egiten da gelaraziak izan ziren urtean 336 milioi pezetako sarrerak izatea aurrikusten zela. Esandakoaren erakuspen dira jarraian datozen laukiak:

1980an itxitakoen emaitza zatikakoak eta metatuak 19

	1975	1976	1977	1978	1979	1980	Guztira
<i>La Voz</i>	12.473.741	9.273.040	-21.225.910	-38.211.034	-36.795.035	-164.449.006	-238.934.204
<i>Unidad</i>	-16.602.369	-19.660.520	-36.058.605	-46.783.421	-53.610.334	-73.299.818	-245.915.067
<i>Guztira</i>	-4.028.628	-10.387.480	-57.384.515	-84.994.455	-90.405.369	-237.748.824	-484.849.271

Egileak egina.

1983a eta 1984a arte itxi ez ziren defizit handiko egunkariak

	<i>Jaen</i>	<i>Patria</i>	<i>Suroeste</i>	<i>Eco de Can.</i>	<i>Hierro</i>	<i>Marca</i>	<i>Linea</i>
1978	-42.973.999	-53.628.008	-70.540.549	-64.347.892	-55.935.911	-92.411.953	-46.636.503
1979	-43.807.694	-59.302.708	-90.521.865	-82.854.336	-62.236.004	-105.784.682	-49.129.319
<i>Guztira</i>	-86.781.693	-112.930.716	-161.062.414	-147.202.228	-118.171.955	-198.196.635	-95.765.822

Egileak egina.

Azaldutakoari 1978an eta 1979an jaulkitako bi txosten erantsi behar zaizkio. Lehenengoan hau esaten zen laburki:

Erakunde aurreautonomiko onartuek beren lurraldeetan dauden Katearen egunkarietan gertatzen denaz gero eta arreta handiagoa erakusten dutela dioten sintomak sortzen hasi dira. Zenbaitetan, egunkarien bide editorialean eragina izateko asmoa dute, bestetan, bakoitzari buruzko gaur egungo egoeraren berri eskatzen dute eta inoiz, Valentzian kasu, eskualdean dauden Katearen egunkari guztien alderdi materialei buruzko ikerketa zehatza agindu dute.

Bigarrenak, bestalde, apur bat zehatzagoa, Erakunde bizi zen probisionaltasunagatik eta etorkizun-ikuspeirik ezagatik bizi zen lan-gatazka giroak informazio-jokabidean eragina izan zezakeela ohartarazten zuen, eta

nabarmenago beren Autonomi Estatutua eskuratzear diren eskualde edo lurraldeetan kokatutako egunkariei dagokienez. Hauxe da *La Voz de España* eta *Unidad*-en kasua: beraiek egindako oharra eta jakinarazpenak azaltzera iristen ari da langileen presioa, edukia Konstituzioaren aurkakoa eta indarrean den lege-araudiaren aurkakoztat jo daitekeenean, gainera.

Azken iritziak Kultura Ministerioan urtebete lehenago egin zen eta 1978ko uztaileko aipatu txostenari bide eman zion ikerketa zabalago batetik abiatzen ziren. Une hartan hau idatzi zen:

Bide editorialari dagokionez, Katea irizpide neutral eta pluralistari eusten saiatu da, Gobernua egunkari-multzo garrantzitsu hori bere alde soilki erabiltzen ari dela dioen salaketa erraza ekiditeko helburuz. Hala ere, egunkari bakoitzak eramandako bidea Zuzendariaren joera pertsonalaren edo erredakzio eta tailerretako biltzar ugariak egindako presioen eraginpean egon da ezinbestean. Kateak, duela urtebete, bizi duen bitarteko-izaerak berak eragotzi egin die Zerbitzu Zentralei helburu zehatzetara zuzendutako bide editorial garbia hartzea eta zabaltzea.

Informatzaileen ustez, prentsa-instalazioetan bizi zen giroa —bazar-pentsamoldea sortu zen— errotatiboak bazarretatik bertatik zuzenduak izanez amaituko zuten usteak kutsatua zegoen, oposizioko alderdiek esnatutako burutapena, bestalde.

Egiten zuten pasadan, *La Voz de España*-ri ematen zioten hurrengo lerroaldea eta larrizat jotzen zen egoera. Gertatuaren kontaketa Iruñeko eta Errenteriako gertaeretatik abiatzen zen; egun haietan batzarrak egunkaria ez ateratzea erabaki zuen, azkenari zegokionez, uste baitzuen «izenburuek ez ziotela gertaeren egitari erantzuten». Zuzendaria kendu arte ezezkoari eusteko asmoa zuten²⁰.

Egoera hark hiriburu donostiarrera etortzera eta zuzendari eztabaidatuaren dimisioa onartzera eraman zuen Kateko gerentea:

Baina behin-behinekoz Zuzendariordea izendatzen ahalgintzerakoan —*zehazten dute*—, interesatuaren ezezko biribilarekin topo egin du, zeregin hori ez baitu onartzen, herio-mehatxupearan ikusten duenez bere burua. Egoera horren aurrean, Erredakzio-Buruari eman zaio zuzendaritzaren ardura, baina ordu batzuk geroago infartoa izan du eta, honenbestez, fisikoki desgaituta geratu da. Une honetan zuzendaritza-lana erredaktoreetako bati ematea dago aztergai, egunkariarekin aurrez inolako loturarik ez duen profesional bat izendatzen saiatzeak gainditzen zaila izango litzatekeen batzarraren ukoa ekar bailezake.

Planteatzen ziren egoera bakoitzaren pilaketak Erakundearen zorteari buruzko azken erabaki azkarra gomentatzen zuen, zeren eta «une honetatik aurrera —idatzi zuten— txarkituz doan egoera gero eta okerragoa izan baitaiteke, Erakundeak erantzun ezin dien arazo larriak sortuz».

Hitz-joko horien artean, txostenak idatzi aurreko proposamenak eta ekimenak ezkutatzen ziren. Eta hala, esan beharra dago 1977an azaldu zirela dagoeneko *La Voz de España*-ren eta Informazio Ministerioaren arteko liskarrak, egunkariak —Miguel Larreak zuzendua une hartan— igandeko koadernotxo batean burualdean idatzitako izenburua *La Voz* soilaz ordezkatzeko asmoa azaldu zuenean.

Iradokizuna oso gaizki hartu zuten Kateak Madrilen zituen arduradunek eta Gipuzkoan zuen Ordezkariek. Prentsako Zuzenbide-Erregimeneko Zuzendari Nagusiari honek bidalitako 1977ko apirilaren 16ko data duen gutun batean hau irakur daiteke:

Aparteko koadernotxo honen agerpena, egunkariaren izenburua ebakia duelarik, egunkariak bere izenburuan España hitza laster batean kenduko duela dion zurrumurruarekin lotutako era bateko eta besteko ulerkeratara zabaldua egongo da.

Lau egun geroago, apirilaren 20an, honako hau zioen presakako telex bat jaso zuen Ordezkariek Informazio-Koordinaketako Zuzendaritza Nagusitik:

(...) Probintzia horretan Ministerio honen Ordezkariek gisa zure agintea aipatu argitarapenaren zuzendariaren aurrean balioaraztea kaltetu gabe, berehala gogorarazi beharko diozu egunkariaren Zuzendariari aldizkako argitarapen baten burualdea, Prentsa-legearen ikuspegitik oinarritzko elementu bereizgarria ezezik, igandeko egunkariaren jabetzaren adierazle ere badela. Deituraren aldaketa, horrenbestez, ez da argitarapenaren ezaugarrien aldaketa hutsa, argitarapen berri baten edizioa baizik, legearen ondorio guztietarako (...)²¹.

Antzeko eztabaida errepikatu zen ekainean. Oraingoan ilunabarreko *Unidad* zen «egunero, muga inguruko berri eman ez eta, batez ere, alboko nazioko departamenduetako iragarkiak zituela, orrialde bat frantsesez» argitara eman nahi zuena. Asmoak, Donostiako Ordezkariekaren ustez, «politika kutsu handia» zuen edukian eta aholkua eskatu zion Madrili.

Donostian kokatutako bi egunkariak, harrezkero, egunero aztertutak izan ziren. Zerbitzu zentraletatik ezarritako aginduak ez zirela betetzen susmarazi zezakeen edozein aztarna puntuz puntu adierazi ohi zen. *La Voz de España* eta *Unidad* ia obsesio bihurtu ziren goi-karguentzat. 1978ko txostenak adierazten zuen bezala, batasun nazionala hausteko beldur handia zegoen eta horregatik irmoki erantzun behar zen atzera gabe. Giro eta egoera aurreautonomikoak arrazoiak ematen zion jarrera hari.

Diogunaren islada ziren Ordezkariek egunetik egunera, egunkari batak zein besteak argitaratzen zutena Hierarkiaren ezagupenean jartzeko idazten zituen prentsako berri-emateak. Berri-emate horietako batek —hilaren 18an, 17ko goiz-egunkariari buruz eginak— zioen:

La Voz de España izena duen Mugimenduko Prentsa ohi-ko egunkaria hiru koadernotxotan banatua ageri da gaur, igandero egin ohi duen bezala. Baina aditzera ematen dut lehen koadernoak *La Voz de España* deitzen jarraitzen duen bezala, beste bietan *La Voz* besterik ez dela deitzen. Zuzendaria esan zidan jendeak bi hitz horiez hain zuzen ezagutzen zuelako jartzen ziotela deitura horri. Zuzendaritza Nagusi horri aditzera ematen diot igandean dagoeneko iruzkin ugari jaso zirela aldaketa horri buruz eta ez goragarriak.

Egun bat geroago berri-emateak hau zioen hitzez hitz:

«Informe». «La Voz. Guía Electoral» izeneko atal bat hasi du *La Voz de España*-k. Euzko Abertzale Ekintza Alderdia-ren programaren kontu emanez hasten da. Bertan era honetako adierazpenak ageri dira: «Gobernu-era errepublikarra» eta etengabeko aipamenak egiten ditu euskal nazioaz. Honetan eta apirilaren 1eko Dekretuan babestutako batasun nazionala uki dezakeelakoan, hitzez hitz kopiaturik dihoakizue egunkari honen aipamen hau: «Euzko Abertzale Ekintzak aitortzen du Euskal Herriak ez dela bere etorkizunaren lege arautzailerik izan behar, bere nahi subiranoa baino. Kanpoko aginteen eskusartzerik gabe eta askatasunez hitzartutako nazioarteko hitzarmenetatik erator daitezkeenak baino beste mugarik gabe».

Txostenetatik ateratzen diren arrazoi politiko horiek berehala ulertu zituen iritzi publikoaren zati batek. Hiriburu donostiarrean onartu zen zergati bakarra izan zen. Langileek ateratako *El libro de La Voz y Unidad*-en argi eta garbi adierazten da bi argitarapenak

egunetik egunera egunkariak erosten dituen eta zerbitzatu behar duen herriaren errealitatera hurbiltzen saiatzeagatik besterik ez zirela izan gilotinatuak. *La Voz* eta *Unidad* arrazoi politikoengatik itxi zirela diogunean, UCDe nahi zuen politika desinformatzaile eta manipulatzailea egiteari uko egin ziotelako itxi zirela esaten ari gara²².

Enrique Bustamantek, bere aldetik, «erabakia Euskal Legebiltzarrerako hauteskunde-kanpainaren hasiera-une berean gertatu zela» gogoratzen du.

Susmo horrek berak eraginda, Gipuzkoaren izenean diputatu zen Euskadiko Ezkerrako Juan María Bandrésék interpelazio bat aurkeztu zion Gobernuari. Egin zituen hiru galderetatik, bigarrenean hau galdetzen zuen:

Arrazoiak jite ekonomikokoak badira, zergatik hartu da erabakia Euskal Legebiltzarrerako hauteskunde-kanpainaren hasieran hain zuzen?²³.

Diputatuak hartu zuen erantzunak ez zituen askietsi ez bera ez sozialistak; irailaren 29an, horregatik, eskabidea aurkeztu zuen Kongresuak onar zezan, Kultura Ministerioak edo Ministro-Kontseiluak erabakia atzera jotzea eta teknikoki ahal bezain agudo jarduerari berriro ekitea eskatuz. Era berean baiezko botoa eskatu zuen, besterik gabe zego-kion Transferentzi Batzordean negoziaketak has zitezen, bi egunkarien jabetza euskal aginte publikoetara igaro zedin eta, horrela, Legebiltzar autonomoaren kontrolpean jarrai zezaten argitaratzen. Bi proposamenetako bakar batek ere ez zuen beharrezko sostengua jaso.

Juan María Bandrés hirugarren aldiz zuzendu zitzaion Kongresuko Mahaiari. Zuzendari gerenteak prestatu zuen erantzunean, berriro ere arrazoi hertsiki ekonomikoak aipatu ziren eta ez politikoak.

Hori izan zen arrazoia eta inolaz ere ez egunkariek ez zutela jarraitzen «Gobernua osatzen duen alderdiak hartutako hari ideologikoa» —*esaten zuen idazkiak*—. Ez zaie ematen kontsignarik egunkariei; eman ere ez zaie egin. Pluralismoa eskatzen zaie bakar-bakarrik eta Konstituzioarenaganako begirunea. Besterik ez, ezta gutxiagorik ere. ¶

1. Ramón Serrano Suñer Francoren koinatua zen. Errepublika garaian CEDAko diputatua izan zen. Diktadurako lehen Gobernau ministro eta Prentsa-Ordezkar Nazional kargua bete zuen.
2. Izan ere data horretatik hasita, Gobernazio Ministerioaren menpe zegoen Prentsa-Zuzendaritza Nagusitik edo beste erakunde ofizial nahiz pribatuetatik bidalitako agirietan *Mugimenduko Prentsa* deitura ageri da. Legea hilaren 14ko BOEn argitaratu zen.
3. Rikardo eta Luis Leizaolaren makineria Sevillako *Fe* egunkariaren onurarako izan zen. *El Día*-ko zati bat Alacanteko *Información*-era joan zen eta *El Pueblo Vasco*-rena Valladolideko *Libertad*-era eraman zen. *La Voz de Guipúzcoa*-ren errotatiba Granadako *Patria*-n jarri zen.
4. Fermin Yzardiagari Mariano Prado Monterok hartu zion txanda zuzendaritzan 1950ean.
5. FET y de las JONSeko Prentsa- eta Propaganda-Ordezkar Nazionalari bidalitako txostena. Iturria: Kultura Ministerioko Artxibategi Zentrala. 75379 kaxa.
6. Beste zuzendariak izan ziren: Bernardo Bureba Muro, José Molina Plata, José Banús y Aguirre, Enrique Cimas Redondo, Julio Camuzano Cantero eta María Josefa Marzo.
7. *Hierro*-ko administraria zen W. Calerak Mugimenduko Prentsa eta Propagandako administrari nagusiari 1942ko apirilaren 28an emandako datuak. A. iturria. 75383 kaxa.
8. Oharpen hauek Alejandro Etxebarriak eginak dira, 1943ko otsailaren 4an eta 15ean Mugimenduko Prentsaren administrari nagusiari eta Ordezkar Nazionalari hurrenez hurren bidali zizkien idazkietan. A. iturria. 75411 eta 75676 kaxak.
9. Ordezkaritzak *El Noticiero Bilbaino*-ren ondasunak erostea behin betiko gelarazi zuen akordio-proposamena *Areilza erkideak* egin zuen *El Pueblo vasco*-ren *izenean*, 1944ko apirilaren 25ean Ondare-Ondasunen Bulegoan idatzitako gutunaren arabera.
10. Lehen datuak *La Voz de España*-ko administrariak Ondare-Ondasunera 1942ko ekainaren 1ean bidali zuen idazkian jasoak daude. Besteak Ordezkaritza Nazionalak egindako txosten batean daude. 1982ko ekainaren data duten ondorengo txostenetan adierazten da *La Voz de Guipúzcoa*-ren gizarte-kapitala osatzen zuten 200 akzioetatik 18, ordurako hila zegoen María Teresa Hompanerari esleituta zeudela usufuktuan eta beste 13, Mugimenduarekin zerkusia zuten lagun hauei saldu zitzaizkiela: bost, Ricardo Fernández de la Torreri; sei, Regino Rekalde Díazi; bat, Juan José Pradera Ortégari eta bat, Francisco Guillén Salayari. 1957az gero jardun ez zuen Sozietatearen egoera arauzkontrakoa konpontzeko, MCSEtik hau planteatu zen alternatiba gisa: jabetza osoa Estatuari intsuldatzea, Sozietatearen aktiboa eta pasiboa desagatzea eta Gobernuari esleitzea eta Sozietatea eguneratzea, agian akzioak eros zitzaketenek etheen jabetza eskura zezaten. Iturria: Kultura Ministerioko

Artxibategi Zentrala eta Administrazioaren Artxibategi Nagusia.
75388 eta 1 kaxak.

11. Madrilen 1949ko uztailaren 6an egin zuten bileran Mugimenduko probintzi buruek, prentsa eta propagandari buruz defendatu zuten 9. txostenean jasotako iritziak. 226 kaxa.
12. Prentsa-Zuzendaritza Nagusiko Lankidetzataleko buruak, 1946ko otsailaren 28ko barne-zerbitzuko 10. oharra betetzeko, Prentsa-Idazkari Nagusiari aurkeztu zion txostenean jasotako adierazpenak. A. iturri eta kaxa.
13. Hauek ziren lehen taldean ageri zirenak: *Azul, Falange, La Tarde, Unidad, Alerta, Diario Español* eta *Libertad*. Bigarrean: *Yugo, Voluntad, La Voz de España, Fe, Levante, El Pueblo Gallego* eta *Amanecer*. Hirugarrenean: *Solidaridad Nacional, Odiel, Nueva España, Sur, Línea, La Nueva España, Norte* eta *Imperio*. Laugarrenean: *Hierro, Mediterráneo, Patria, Proa, La Mañana, Baleares* eta *Arriba España*.
14. Honi buruz, ikus adierazpenak 1956ko uztailaren 18ko ABC egunkarian eta idazkiak, 1954ko maiatzari eta ekainari dagozkien *El Español*-en 287tik 290a bitarteko aleetan.
15. ABC-k argitara eman zuen informazioan esaten zen, Jaénean izenean AP-PDP koalizioko diputatu eta RTVEren Kontrolerako Batzorde Parlamentarioko kide zen Gabriel Camuñasek jaso zuen agiri bidezko frogak. Iturria: ABC egunkaria, 1983ko urtarrilaren 18ko 23.981. zk.
16. Ik.: 1983ko maiatzaren 13ko *El Correo de Andalucía* eta *Diario 16*, 2. or.; data bereko ABC, 15. or.; maiatzaren 15, larunbateko *La Crónica* eta *El Día* Baleareetakoak, 2. or.
17. 1983ko maiatzaren 21ari eta 24ari dagozkien *La Crónica*-ren editorialak. 3. or.
18. Justino Sinovaren «La Crónica: Metamorfosis en el Gobierno», 1983ko maiatzaren 16ari dagokion *Diario 16*-eko 2. orrialdean eman zen argitara.
19. Itxiera 1980ko otsailaren 17an gertatu zen; horregatik, aurreko kasuetan bezala, defizitak iraun egiten du azken ekitaldian, langileri eta mantenu-gastuei aurre egin behar izan zitzaenez.
20. Hala deituriko Iruñeko gertaerak 1978ko uztailaren 8an gertatu ziren. Errenteriakoak, urte eta hilabete bereko 13an.
21. Agiri bata zein bestea Gobernuaren Presidentziatik etorriak dira, Alcalá de Henaresen artxibatutako 61. kaxa.
22. *El Libro de La Voz y Unidad*. Hórdago, Donostia. 1982. 18 eta 19. or.ak.
23. Gorte Nagusien Buletin Ofizialeko 313-I. zk.an jaso zen interpe-lazioa. Diputatuen Kongresua, 1980ko martxoaren 6a.

Euskal liburutegi nazionalaz

*

A G U R T Z A N E J U A N E N A

*

*d*urangoko 31. Azokan (1996ko abenduan) «Liburutegi nazionala ala nazionalak?» izeneko mahai-ingurua izan zen. Partaideak, Eduardo Estrade Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen zuzendaria, Joseba Agirreazkuenaga Bilboko Bidebarrieta Kultur Guneko zuzendaria, eta Francisco Javier Lopez Landatxe Koldo Mitxelena Kulturuneko zuzendaria. Moderatzaile, Joan Mari Torrealdai izan zuten.

Aipatu izenburuaren azpian Gerediaga Elkarteak bost galdera proposatu zituen, bostak ere gure biblioteken egoeraren islada emateko pentsatuak:

1. Nola ikusten duzue gaur egun euskal liburutegien egoera Euskal Herrian?
2. Beharrezkoa da, Kataluniak duen bezala, Euskal Herriak Euskal Liburutegi Nazionala izatea, ala, museoen arloan bezala, liburutegi nazionalen sare bat behar du?
3. (...) Kanpotik ikusten den irudiagatik esan genezake Euskal Herriko liburutegiak euren arteko lehia batean sarturik aurkitzen direla euskal gaiei buruzko liburuak (...) eskuratzekoan. Benetan al dago horrelako lehiarik? Ez dira kaltegarriak liburutegien arlorako egoera honek sortzen dituen ondorioak (merkatuen garestitzea, bildumen banaketa)?

-
- Agurtzane Juanena bibliotekaria da, Koldo Mitxelena Kulturunean katalogazio arduraduna.

4. Ikerlari askok diotenez, fondo asko toki «bitxietan» daude gaur egun; adibide gisa, horra hor Eusko Legebiltzarrak liburutegian jagoten dituen antzinako euskal liburu erlijiosoen bilduma, eta abar.

Ez al ditu erakunde bakoitzak lantzen ari den arlo horretan ere, bere liburutegian ere, bere lana, kemena eta medio ekonomikoak finkatu beharko?

5. Eta, bukatzeko, zertan da euskaraz katalogatzearen arazoa?

Izenburuari hertsiki lotuz esateko franko zegoenez, partaideek ezin izan zituzten patxadaz jorratu puntu horiek guztiak. Ni, aldizkari baterako idazteak eskaintzen duen abagunea aprobetxatuz, neure ikuspegi profesionaletik zenbait gogoeta egiten saiatuko naiz ondorengo orriotan.

Nafarroa eta EAeko liburutegien egoera

Liburutegien egungo egoerari buruz hitz egiteko, zenbaiten egoera partikularra ez, baizik eta guztien oinarri den marko legala izango dut aztergai. Bi esparru administratibootan, Nafarroan zein EAEn, antzerako erantzuna dugu: botere instituzionalek ez dute marko legal nahikorik garatu, ez dago tajuzko politika bibliotekariorik.

Historia pixka bat

Euskal Autonomi Erkidegoan, transferentziek dantza egin dute batetik bestera:

1981ean Estatuaren kompetentziak Jaurlaritzari eman zitzaizkion eta honek ELE (Euskadiko Liburutegi Erakundea) sortu zuen 1982an. Handik laster, 1983an, Lurralde Historikoen Legeak foru aldundiei aitortu zizkien zenbait kompetentzia liburutegi publikoen gainean, 1990era arte: urte hartan, liburutegi publikoen gaineko eskubide eta betebeharrak Eusko Jaurlaritzara itzuli ziren, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen indarrez.

Joan-etorri horien ondorioa da apenas aurreratu dela laurogeiko hamarkadan, eta laurogeita hamarrekoan ere ezer gutxi, laster ikusiko dugun bezala. Euskal Kultur Ondareari buruzko legean aipaturik daude Euskadiko Nazio Mailako Liburutegi Erapidetzaren egiteko nagusiak: bere liburutegiez arduratzea eta liburutegietarako zein bibliografi ondarearekiko politika tajutzea. Kontua da oso lorpen eskasak izan ditugula batean zein bestean.

Hala ere, atzera jo eta 1990ean kokatzen bagara, orduan bazegoen espektatiba hoberik: urte hartan, Palman izan ziren dokumentazio jardunaldietarako, Iñigo Sanzek eta Luis Morenok komunikazio bat aurkeztu zuten «Sobre una red automatizada de bibliotecas del País Vasco» izenburuarekin. Azterlan hartan Eusko Jaurlaritzaren honako asmo hau aipatzen zuten: Euskadiko Liburutegien Sare edo Sistema Automatizatua sortzea. Komunikazioaren autoterek Jaurlaritzaren enkarguz aurkeztu zuten proiektuan Euskadiko Liburutegien Sarea diseinatzen zen, hainbat saillez osatua baina, azken finean, guztiak egitura bakar baten partaide eta zerbitzu amankomun batzuen jabe bihurturik. Hauexek ziren sarearen katemaila nagusiak: argitalpen nazionalen kontrol bibliografikoa, informazioaren azterketa eta eskuratzea, profesionalen formazio iraunkorra, laguntza teknikoa, normalkuntza, nazioarteko programetan parte hartzea, katalogo kolektiboak, mailegutza eta trukaketa, nazioarteko datu baseetarako sarbidea, erosketa zentralizatua, katalogazio amankomuna... Hona hemen komunikazioaren zenbait pasarte:

En todo caso el planteamiento de una red de bibliotecas que comprenda los distintos tipos de bibliotecas existentes ha de sustentarse en una serie de requisitos básicos, como son:

- 1- Se debe promulgar una legislación para dar forma y viabilidad a los servicios recién creados o mejorar los ya existentes.
- 2- La estructura total no debe dividirse en un excesivo número de componentes. Las categorías aceptadas deben ser: Biblioteca Nacional u Organismo afin, Bibliote-

cas Públicas (...), Bibliotecas Universitarias, escolares, especiales y centros de documentación.

El objetivo final del Sistema Automatizado de Bibliotecas de Euskadi es la cobertura informativa de toda la Comunidad Autónoma, en sus distintos niveles y estamentos culturales, educativos, empresariales, etc.

Para lograrlo debemos intentar incluir en el Sistema, bien de forma plena, bien mediante conexiones puntuales, al conjunto de bibliotecas y centros de documentación del país. Este objetivo puede ser realizable en un plazo de diez años, de forma paulatina y siempre según lo marquen criterios tales como la implantación de nuestros productos, su incidencia en el mercado, los balances, gastos, ingresos, etc.¹

Zer gertatu da egitasmo harekin eta egon zitezkeen antzekoekin? Izenez, 1990ean onartutako Euskal Kultur Ondareari buruzko Legean sortu zen Nazio Mailako Liburutegi Erapidetza. Liburutegi Erapidetza hori liburutegi publikoek (sarrera libreko liburutegiek, udal liburutegiek) osatu behar zuten eta, nahi izanez gero, bertako partaide izan zitezkeen horretarako ituna sinatzen zuten gainerako liburutegiak ere: foru aldundietakoak, unibertsitateetakoak, liburutegi partikularrak.

«Izenez» sortu zela esan dut, zeren printzipioz, nazio mailako liburutegi erapidetza edo sistema batek, nazio horretako era guztietako liburutegiez osatua behar luke, ez soilik udal liburutegiez. Nazio mailako informazio beharrei aurre egiteko, ez da nahikoa elkarlana edo borondatezko koordinazioa. Unescok informazio sistema nazionalak gomendatzen ditu (NATIS), integrazio eta koordinazio maila altuekin; eta horrelako sistemak burutzeko beharrezkoak dira bai azpegitura legala, bai nazio mailako plangintza eta erakundeak. Carrión Gútiez adituari jarraituz², nazio mailako liburutegi erapidetza batek lau zutabe behar ditu:

- Informazio politika (legeak edo/eta plangintzak).
- Nazioarteko elkarlanerako aukerak sortzea.
- Biblioteken plangintza.
- Benetako liburutegi nazionala.

Azken finean, nazio mailako liburutegi sistema batek liburutegi nazionala dauka giltzarri, gainerako erakunde bibliotekario zentralak haren lagungarri baino ez direla.

Udal liburutegi publikoen sistema izateko ere ez ditu baldintzak betetzen. Teoria bibliotekarioaren arabera, liburutegi sistema batek zerbitzu bibliotekario osoak eskaintzeko gauza izan behar du. Horretarako, gaur egun ezinbestekoak dira honako tresna hauek: liburutegi nagusi bat, lan bibliotekarioetarako zentroa, zuzendaritza eta administrazioa.

Gaur egungo egoera

Baina gatozen gure errealitatera. Zer daukagu egun?

Eusko Jaurlaritzako Liburu eta Liburutegien Zerbitzua, egon badago. Pertsona eta baliabide material urriez zenbait gauza egiten ditu: udal liburutegien koordinazioa bere gain hartu, dirulaguntzak eman, zenbait libururen katalogazio fitxak bidali, informatizazioaz arduratu³... Esan daiteke udal liburutegien beharizan behinenak edo (euskararen gaian ezik, baina horretaz azken atalean jardungo dut) asetzen dituela. Hortik aurrera, maila altuagoko lanetarako ez du ahalmenik, edo hala ematen du behintzat. Esan digutelako sinesten dugu bibliografia nazionala egon badagoela, baina ez dugu orain artean ikusi. Ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa osatzeko batzorde bat aritu zen lanean 1992-1993 urteetan; berriro martxan jartzeko asmoa badutela sinesten dugu, baina hori ere esan egin digutelako, ez errealitate praktikorik ikusi dugulako.

Nafarroako egoera ez dut hain gertutik ezagutzen. Arazoa hala ere antzekoa dela esan genezake: nafarrek ere ez daukate liburutegi legerik. Horixe salatzeke, hain zuzen ere, artikulu bat atera dute *TK*-n, Nafarroako Liburuzainen Elkartearen buletinean⁴. Bertan esaten den bezala, Estatuko elkarte autonomo gehienek azken hamar urteotan liburutegiei buruzko legeak onartu dituzte: Katalunia (1981), Andaluzia (1983), Aragoi (1986), Valentzia (1986), Gaztela-Mantxa (1989), Madrilgo Komunitate Autonomoa (1989), Galizia (1989), Gaztela eta Leon (1989), Murtzia (1990),

Errioxako Komunitate Autonomoa (1990) eta Katalunia berriro (1993). Nafarroa, garai batean eta konparatiboki maila bibliotekario ona bazuen ere, atzean gelditzen ari da.

Nafarroako Liburutegi Nagusiari dagokionez, gutxienez han badakite zein izango den: *Biblioteca General de Navarra* deiturikoa, edifizio berriaren kokalekua zela-eta eztabaida sortu zuena 1996an. Liburutegi horrek izango dituen funtzioak orain aztertzen ari dira: liburutegi publikoen koordinazioa, Lege Gordailuaren ardura eta abar. Gainera, *Instituto Navarro de Bibliografía* sortuko omen dute Liburutegi horren itzalean, *Bibliografía Navarra* ekoizteko xedearekin⁵.

Laburtuz, beste kontuetan ez bezala, alor honetan zorritzarekin elkarrekin gaudela ematen du: Estatuko elkarte autonomo atzeratuenen parean. Konstatazio honetatik abiatuz idatzi dute bibliotekari nafarrek beren aldizkariaren hirugarren zenbakiaren editoriala⁶.

Agian norbaitek pentsatuko du kritikoegiak edo garratzegiak garela geure instituzioekin. Horregatik iruditu zait interesgarria 1997ko apirilean argitaratutako liburu batean guri buruz esaten dena hona ekartzea. Hitzez hitz kopiatuko dut:

El País Vasco accede a la autonomía mediante ley orgánica 3 (1979 de 18 de diciembre). (...) La legislación bibliotecaria que dimana de los órganos de gobierno es escasa y de poca entidad. En concreto carece de una ley de bibliotecas con el carácter de norma reguladora general de toda la comunidad, como ocurre en casi todo el resto del Estado español. (...)

Estas son las únicas menciones que, desde el punto de vista del control bibliográfico, se efectúan en la legislación vasca de bibliotecas. Ninguna alusión por tanto a la necesidad de una biblioteca central de carácter nacional o regional, a la necesidad de elaborar una bibliografía que recoja el producto de la producción editorial vasca, de dar a conocer la cultura vasca a la comunidad implicada y al exterior. Nada absolutamente que relacione las oportunidades que la nueva situación política y administrativa supone para el desarrollo y la extensión de la cul-

tura e idiosincrasia de la comunidad, como veíamos en otras legislaciones. Y esta parquedad, que podríamos considerar inherente a una mentalidad o a unos comportamientos más inclinados a los hechos que a las formulaciones teóricas impracticables, se da también en las actuaciones, pues en el País Vasco no existe equivalente alguno a la realización de productos bibliográficos como los de Cataluña o Galicia, las otras comunidades cuya particularidad lingüística justificaría con más ahínco la confección de un instrumento que, además de difundir los productos de su lengua, sirviera como fundamento de la conciencia grupal⁷.

Haxe da kanpora islatzen dugun irudia. Nafarroaren kasua ez du aipatzen.

Ciburutegi nazionala Euskal Herrian

Durangoko mahai-ingurura itzuliz, liburutegi nazionala beharrezkoa ote dugun galderari baiezko biribilaz erantzun zioten mahaikideek, beren arteko bakar batek izan ezik. Hark, liburutegi nazionalaren aipamena saihestuz, Liburutegi Sistemari buruzko zehaztapen legal batez jardun zuen: Lurralde Historikoen Legea dela eta, bertako liburutegiak Jaurlearitzaren arduratik kanpo geratzen dira, eta beraz ezin da legalki sare bateratu bat osatu, ezin da «agindu» hitza erabili⁸.

Ondorioztapen okerra, dudarik gabe. Egia da «agindu» hitza ezin dela erabili, baina horrek ez du esan nahi sare bat osatzeko beste biderik ez dagoenik: hain zuzen ere, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak, 83. eta 86. ataletan, Euskadiko Nazio Mailako Liburutegi Erapidetza liburutegi publikoez eta lurralde historikoen edo Estatua-ren jabetzapekoez osa daitekeela dio, azken horiek horretarako ituna izenpetuz gero⁹. Komentzimendua eta borondatea falta ditugu, seguruenik.

Zertarako, bada, liburutegi nazionala?

Labur esanda, Euskal Herriak erreferentzia bibliotekario nagusia izan dezan eta bertako ekoizpen bibliografikoaren bilketa eta kontserbazioa berma dadin.

Munduan zehar liburutegi nazional asko dago gaur egun, eta denak ez daude, noski, baldintza beretan. Baina desberdintasun ekonomiko, kultural eta sozialen gainetik, Unesco eta IFLA (*International Federation of Library Associations and Institutions*) bezalako erakundeek biblioteka nazionalaren kontzeptuari honako ezaugarriak eranstean dizkiote:

- Lehenengo, liburutegi nazionalak dira beren lurraldeetako produkzio bibliografikoaren parterik handiena eskuratu eta kontserbatzen dutenak.

- Bigarren, beren nazioetako sistema bibliotekarioen buruak eta koordinatzaileak dira, sistema haien tamaina eta konplexutasunari begiratu gabe, eta nahiz funtzionamendu aldetik eginkizunak elkarren artean banaturik izan.

Dudarik gabe, gaur egun ez du zentzurik liburutegi nazionala sistema bibliotekarioaren oinarri bakar gisa hartzea. «Buruak» denez, izango dira beste erakunde bibliotekario batzuk ere, hura osatu eta hari lagunduko diotenak. Hain zuzen ere ardura banaketa hori kontuan hartuta zehaztu dira funtsezkoak diren eginkizunak eta funtsezkoak ez direnak hiru multzo bereiztuta:

a) Funtsezko eginkizunak:

- Lurraldeko ekoizpen bibliografikoa biltzea.
- Lege Gordailua jasotzea.
- Bibliografia nazionala ekoiztea.
- Datu base garrantzitsuak garatu eta mantentzea.
- Lurraldeko gainerako liburutegiei arauak ematea.
- Lurraldeko zentro bibliografiko moduan jokatzeko.
- Atzerriko ekoizpen literarioa biltzea (lurraldearen interesekoa).

- Liburutegi arteko mailegua planifikatu eta koordinatzea.

- Lurraldearen zerbitzu bibliotekarioen plangintzan parte hartzea.

b) Komenigarriak baina ez nahitaezkoak:

- Lurraldeko eskuizkribuak eskuratzea.
- Ikerketa bibliotekarioa sustatzea.
- Gobernuari zerbitzuak eskaintzea.
- Irakaskuntza profesionala sustatzea.

- Argitalpen trukaketa (nazio barrukoa, nazioartekoa) zentralizatzea.

Eta abar, eta abar...¹⁰

Unescok aurreko sailkapena erabili du bere gomen-dioak emateko, nazio anitzeko adituen arteko adostasunean oinarrituak. Orientabide horiek malguak dira eta egoera desberdinetan aplikatu ahal izateko pentsatuta daude. Funtsean, alde batetik, dokumentuen kontserbazioa eta eskuragarritasuna bermatu nahi dira, eta, bestetik, liburutegi nazionalak ez dira bakarturik funtzionatzeko planteiatzen, baizik eta informazio sistema nazionalen funtsezko parte bezala hartuta.

Gurera itzuliz, lehenengo problema zatiketa administratiboa da. Euskal kulturaren ikuspegitik ez du zentzurik euskal kultura autonomi erkidego bakar batean egiten dena mugatzea. Etsenplu bat emateko, EAEn, ekoizpen bibliografikoaren bilketarako tresna nagusiak, hau da, Lege Gordailuak, hiru lurralde historikoetan inprimatzen dena soilik jasotzen du. Zer gertatzen da Elkar bezalako argitale-txe inportante batek Nafarroan inprimatzen duenarekin, edo Iparraldean ateratzen den guztiarekin?

Durangoko mahai-inguruan, galderen txandan, Kataluniako etsenplua aipatu zen, bai eta gaur egun ditugun zenbait arazo ere: euskal liburutegiak euren artean izaten duten lehia dokumentuak eskuratzeko (dokumentu horiek garestituz eta bildumak barreiatuz) edo dokumentuen kopakapen harrigarria (antzinako liburu erlijiosoak Legebiltzarren Liburutegian egotea, adibidez).

Kataluniaren aipamenari dagokionez, eredu gisa har genezake, dudarik gabe. Nafarroako bibliotekariaren buletin-ean agertutako artikuluan atal bat osorik eskaintzen zaio: Kataluniako Liburutegi Legea (bigarrena, 1993koa) bide da osatuena eta pentsatuena Estatuko gainerakoan artean. Kataluniako Liburutegien Sisteman, hango liburutegi guz-tiak integraturik daude, modu batean zein bestean: publi-koak, pribatuak, unibertsitateetakoak. Kataluniako Liburu-tegi Nazionalaren helburua honako hau da:

Recoger, conservar y difundir la producción bibliográfica catalana y la relacionada con el ámbito lingüístico cata-

lán, incluída la producción impresa, periódica o no, visual y sonora.

Bestalde:

La Biblioteca de Cataluña, primer centro bibliográfico de la cultura catalana, mantendrá mediante las adquisiciones pertinentes, la condición de centro de consulta y de investigación científica de carácter universal.

Arazoak ere baditu, eta horietaz, beste artikulua bat irakur daiteke, zaharragoa, 1990an argitaratutakoa¹¹.

Kataluniakoa eredugarriena ezik, zaharrena ere bada, 1907. urtean sortu baitzuten. Estatuko beste lurralde batzuetan, autonomi erkidegoetako liburutegi nagusiak, zerbitzu bibliotekarioen transferentziekin batera sortu dira, lehenago aipatutako legedien barnean. Ikusten denez, autonomi erkidego gehienek euren Liburutegi Nagusia sortu dute: Andaluzia, Aragoi, Asturias, Madril, Murtzia, Gaztela eta Leon, Valentzia... Funtzioak, *Biblioteca Nacional* delakoak Estatu espainiarraren mailan dituenen antzekoak, bakoitzak bere lurraldea marko bezala hartuta:

- Autonomi Elkarteko sistema bibliotekarioaren buruzitea.

- Lurraldean ekoizten den ondare bibliografiko eta dokumentala jaso (L.G.aren bidez), kontserbatu eta tratatzea. Gauza bera, lurraldetik kanpo sortu arren lurraldeari buruzkoak diren dokumentuekin.

- Bibliografia eta katalogo kolektiboa elaboratzea.

Gaur egun, liburutegi nagusi horien egoerak nahiko desberdinak izanik ere, ia inork ez du haien beharra kuestionatzen. Kezka, beraz, bildumen eta funtzioen bikoizketa ekiditea izaten da, eta horretarako lurraldeko gainerako liburutegiekin koordinatzen dira¹².

Eta, liburutegi nagusien beharra noizbait zalantzan jarri bada, horrela erabaki da:

¿Son real y absolutamente necesarias este tipo de bibliotecas? ¿Puede haber un buen servicio bibliotecario a la Comunidad sin una Biblioteca Central?

Si admitimos el hecho de que, salvadas las distancias, las Bibliotecas Centrales representan para las Comunidades

lo que las Bibliotecas Nacionales para los Estados, hemos de concluir que, a pesar de que el concepto de Biblioteca Nacional ha entrado en crisis por diversas razones (...), las Bibliotecas Nacionales continúan existiendo, tal vez porque el peso de la tradición las hace absolutamente imprescindibles.

Por otra parte, no es menos evidente que el establecer un sistema bibliotecario que realmente merezca el nombre de tal, necesita de suyo el contar con una pieza básica que, en este caso, sería la Biblioteca Central. (...) Cuando, como sucede en la mayoría de las Comunidades, los sistemas bibliotecarios correspondientes han comenzado *ex nihilo*, estimamos que la Biblioteca Central no sólo es necesaria, sino también esencial e insustituible¹³.

Azken informazioa, Cáceresen 1996ko urrian izandako «V Jornadas Españolas de Documentación Automatizada» izeneko jardunaldietan jaso da¹⁴.

Proposamenak

Beraz, guretzat, autonomi erkidegoetako liburutegi nagusiak gutxienezko abiapuntuak lirateke. Oinarrizko helburua, EAEko eta Nafarroako zerbitzu bibliotekarioak zaindu eta garatzea. Bokazioa, euskal kulturari aportazio propio eta ordezkazina eskaintzea. Lehentasunen artean, gainerako euskal administrazioekin (Iparraldearen kasuan, liburutegi nagusiekin) harremana finkatzea, euskal kulturaren erreferentzia bibliotekarioa erakunde guztion artean lor genezan, bakarraren bidez ezin denez gero.

«Gutxienezko abiapuntuak» idatzi dut, euskal kulturaren aldeko konpromezua gure egiten dugunok, ahalik eta normalduen nahi genukeelako, beste kultur komunitate askok dituzten antzeko baliabideen jabe garela. Unesco espreski aipatzen du liburutegi nazionalaren zerbitzuak era zentralizatuan edo banatuan egon daitezkeela. Funtzioak banatzeko erabakia hartzeak erakunde bakoitzaren zereginak zehaztasun osoz definitzea eskatzen du eta erakunde horiek baliabide ekonomiko egokiez hornitzea. Hori guztia egitura politiko amankomunaren barnean.

Gure kasuan, egitura politiko zatituetan aritzeak zaildu egiten du dena. Liburutegi nazional birtuala dagoeneko posibilitate erreala da teknikoki. Informatizazioak orain arte irudikatu ezineko moduan eskaintzen du liburutegien fondoak ezagutzeko aukera. Teknologia berrien bidez, mikrofilmazioaren eta digitalizazio tresnei esker, dokumentuaren eskuragarritasuna konpartitzea posible da, nahiz eta ale originala toki bakarrean gorde.

Baina teknika hutsak ez du dena konpontzen. Politika bibliotekarioa diseinatu eta bideratu behar dute instituzio publikoek. Zeregin konkretuez mintzatuz, liburutegi nazionalen funtzioei buruz hartu izan diren erabakietatik, funtzio minimo batzuk ondorioztatzen dira, borondate politikoak bakarrik erdietsi ditzakeenak eta, besteak beste, honako hauek direnak:

- Iraganeko ekoizpen bibliografikoa berreskuratzea.
- Nazioarteko araudiak komunitatearen beharrei egokitzea.
- Erosketa plan nazionala koordinatzea.

Nabaria denez, Durangoko mahai-inguruaren 3., 4. eta 5. galderak funtzio minimookin daude erlazionaturik. Liburutegien arteko elkarlana ezin da inizatiba partikularren zorira utzi. Sustatu eta zuzendu egin behar da.

Euskal bibliografia, Jon Bilbaok hasitako lan erraldoia, Euskal Herritik kanpo ere ezagutua eta baloratua, ezin da bertan behera utzi. Arestian aipatutako «El registro de la memoria: las bibliografías nacionales y el depósito legal» monografia espainolak utzikeria horri buruzko iritzi kritikoa ematen du honela:

Pero esta dejación, en cuanto al control bibliográfico se refiere, es necesario imputarla exclusivamente a las instancias institucionales que hasta el momento no han mostrado una excesiva preocupación por esta forma de cultura que es la comunicación impresa, entendida en sentido amplio, y su preservación a través de los mecanismos legales estipulados para ello. Un ejemplo de esta actitud, en cierto modo cicatera, para con los vestigios escritos de la cultura vasca, lo puede constituir la falta de apoyos que, a lo largo de su irregular discurrir, ha recibi-

do el único proyecto que podíamos asimilar con un intento de control bibliográfico en el País Vasco, aunque con las particularidades que comentaremos posteriormente. Nos estamos refiriendo a la Eusko Bibliographia, auspiciada por Jon Bilbao Azkarreta. (...) Creemos que sobran los comentarios ante el abandono de una actividad que consideramos consustancial con el conocimiento y preservación de la realidad cultural de un país, una región o territorio cualquiera¹⁵.

Esku artean duzun argitalpenari dagokionez ere, ez da bidezkoa euskaraz egindako ekoizpen inprimatuari buruz *Jakin* aldizkariak urtero-urtero eskaintzen duen emaitzak boluntarismoz irautea.

Horretarako eta beste gauza batzuetarako, baliabideak behar dira, jakina. Errekurtsoen eskasia aipatzen baitigute zenbaitetan, arrazoi bezala. Profesionala naizen aldetik, ez dut duda izpirik ere errekurtsu horien premiaz; baina, hain zuzen, gabeziak nabarmenduz eta gabeziez hitz eginenez lortu ahal izango dugu errekurtsuak eskuratzea... Eta horiek ere, borondate politikotik datoz.

Nik ez dakit, liburuteken gaiak zergatik ez duen merezi izan kontsiderazio hoberik, euskal kulturaren eremuan. Historian atzerago begiraturaz, liburutegi nazionalaren asmoa 1918. urtean aipatua da jadanik, Tomas Etxebarriak I. Eusko Ikaskuntzen jardunaldian aurkezturiko txostenean¹⁶. Asmoa ez da geroztik itzali. Baina XXI. mendearen atarian gaude eta, beste hainbat gabezia eta hutsuneren artean, erdara dugu nagusi gure liburutegietan. Ikus hurrengo epigrafean.

Euskara katalogafikoaren normalizaziorantz

Nik dudan informazioaren arabera, gaurko egoeraren laburpena honelaxe egin genezake: liburutegi gutxi batzuk, goragoko planifikazio edo laguntzarik gabe, euskara hutsez katalogatzeko erabakia hartu dute aspaldi ez dela. Hor ditugu, besteak beste: Euskaltzaindiko eta HABEko liburutegi espezializatuak, SHEE-IVEFeko liburutegi unibertsitarioa, euskal kulturaren erakundeetakoak diren zenbait

dokumentazio zentro ere: Bertsozale Elkarteko Xenpelar, EKB, UZEI, EIZIE, Iparraldeko Ikas...

Bi foru diputaziotako liburutegiek (Bizkaikoak eta Gipuzkoako Koldo Mitxelena Kulturuneak) bi hizkuntzetan egiten dituzte katalogazio lanaren zenbait alderdi¹⁷. Baina liburutegien multzo zabalena —udal liburutegi publikoak, espezializatuak, unibertsitarioak— erdaraz aritzen da, agian nik ezagutzen ez dudana salbuespen bat edo beste kenduta.

Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen biblioteka publikoen sareak laguntza teknikoa (aukeratutako bibliografia) gazteleraz jasotzen du harengandik. Jaurlaritzaren ardura den «bibliografia nazionala» (Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Lege Gordailuak biltzen duenaz osatua), hau idazten ari naizenean publikoki ezagutzen ez bada ere, gazteleraz burutzen ari dira, bertako teknikariek esan didatenez.

Izan dira, noski, euskararen erabilpena sustatzeko saioak. Adibidez, Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkarteko Euskara Batzordeak, 1995ean Eusko Jaurlaritzari txosten bat aurkeztu zion, liburutegietan erabiltzen den gaien zerrendan (Espainiako Kultura Ministerioak argitaratua) euskarazko gai zerrenda bat osatuz joateko. 1992-1993 lanean aritu zen EAEko katalogo kolektiboa osatzeko ikerketa batzordea ere, xede horren alde agertu zen. Gainera zerrenda espainiarraren bi itzulpen argitaratu dira azken urteotan. Baina gai zerrenda horiek HAEE-IVAPen oniritzia ez dute merezi izan, eta azkenean 1997ko irailean lan talde bat osatu da, Eusko Jaurlaritzaren eskutik, gaien zerrenda euskaratu bat udal liburutegiei eskaintzearren.

Hala ere, arazoa zera da: euskara katalogafikoaren normalkuntza ez dela katalogazioaren alderdi zehatz batera mugatzen, ezta udal liburutegien esparrura ere. Planteamendu zabalak eta orotarikoak behar ditugu, liburutegi guztien beharrei erantzun ahal izateko eta katalogazioaren osotasunean txertatzeko.

Horren harira dator liburutegi nazionalaren premia euskararentzat: bibliografia nazionalaren arduradun bezala (zuzenean zein bere menpeko agentzia katalogafiko baten bidez), katalogo kolektiboaren aitzindari bezala, lurraldeko gainerako liburutegientzako arauemaile bezala...

Zerekin konformatzen ari gara, bitartean?

Adibidez, sistema informatikoen azaleko aukera elebidunarekin: katalogoaren menuak euskaraz ikusi ahal izango ditugu (fitxategien izenak: izenburuak, argitaldariak, gaiak; agindu kodifikatuak: aurrera, atzera...; laguntza pantailak, eta abar) baina interesatzen zaigun dokumentura iritsita, katalogatzaileak fitxan ezarritako datuak (deskribapena, oharrak, zenbait izen propio, gaiak...) gazteleraz irakurri beharko ditugu. Kuriositatea duenak, bisita egin dezala gertuen daukan liburutegira.

Edo, adibidez, zenbait tokitan, merkeago aterako zai-gula-eta, liburuak kaxetan sartu eta Granadara bidaltzearekin, Espainiako enpresa pribatu batek hantxe kataloga ditzan. Horrela landuko al dugu geure ondare bibliografikoaren katalogazio modu propioa? Horrela garatuko al dugu euskal kulturaren atal garrantzitsu bat?

Eusko Jaurlaritzaren Liburu eta Liburutegien Zerbitzuak hitzarmena dauka Gazteizeko Kultur Etxearekin, Absys sistemaren bidez, haren erregistro katalogafikoak udal liburutegien eskura jartzeko. Espainiako Kultura Ministerioak daukan «Rebeca» datu basearen sarrera ere ahalbidetzen du Absys-ek. Baina batean zein bestean, gaztelania hutsez dauke erregistroak (esan behar dut, baita ere, Absys dela Azkue Bibliotekaren sistema informatikoa eta, beraz, sistemak berak ez duela euskaraz katalogatzea galerazten).

Zein zen, denbora asko ez dela, Jaurlaritzaren Zerbitzu horrek euskararen normalkuntzari dagokionez zeukan planteamendua?

Hizkuntza hautatzeko aukera ematea udal liburutegiei: hau da, euskaraz katalogatu nahi duen udal liburutegiak euskaraz katalogatu ahal izango du (nola edo hala, normaldurik ez dagoenez) eta gazteleraz katalogatu nahi duenak, gazteleraz. Gai zerrenda elebiduna erabili beharko dute kasu guztietan, hura prestatzen denean. Hori guztia, bertako teknikariek emandako ahozko azalpenez jakin genuen 1996an. Baliteke une honetan gogoetagai izatea Administrazioan, baina profesionaloi ez zaigu beste notiziarik iritsi.

Nire eta beste bibliotekari batzuren ustez, gaur egun horrelako jokabidea izatea euskararen kalterako izango li-

tzateke. Toki gutxitan, herri oso euskaldunetan bakarrik, animatuko dira euskara hutsez katalogatzera, eta teknikoki zailagoa egingo zaie gainera, tresnak euskaldundu ez direlako. Nik, gutxieneko bezala, katalogazio elebiduna exijituko nuke, dokumentuen araberako hizkuntz tratamendua, alegia: euskarazko dokumentu guztiak, euskaraz, eta gainerakoak, erdaraz. Gai zerrenda elebidunak, kasu guztietan.

Hala ere, aurrekoak badu koskarik euskararen aldeko ikuspegi zorrotz batetik hartuta: argitaratzen denaren zati txikia denez euskarazkoa (liburutegien fondoaren barruan parte bat, eta ez handiena), katalogoan, bere osotasunean hartuta, erdara nagusituko da. Arrazoi kuantitatibo sinpleengatik. Bi aukera daude kinka honetatik ateratzeko:

- Katalogoak bikoiztea. Kostuak bikoiztuko ez diren arren, kostuen gehikuntza da seguru aski oztopo garrantzitsuena. Beste aldetik, nik jasotako informazioan (Kanada, Belgika eta Suitzako liburutegi nazionalen ereduak) ez dut aurkitu horrelako praktikarik. Hala ere, pentsatzekoa da.

- Euskarari, «diskriminazio positiboa» aplikatuz, lehenetasuna ematea. Honek ez du zerikusirik lehenago aipatu du dan «hizkuntz hautaketarekin». Ez da udal liburutegi bakoitzaren esku utziko zein hizkuntza erabili, baizik eta, horretarako behar diren tresna tekniko egokiekin batera, euskaraz katalogatzeko aholku edo agindua emango. Euskaraz egingo ez dutenei, katalogazio elebiduna exijituko zaie.

Finean, arazo konplexu baten aurrean gaude. Plangintza eta lankidetzaren eskatzen duen arazoa da, eta, behin eta berriz azaltzen saiatu naizen bezala, plangintza bibliotekario zabalago baten barnean kokatu behar dena. Lurralde bateko, eta arrazoi handiagorekin hizkuntza bateko, eredu katalogafikoa emateko, zentro edo agentzia katalogafikoa edukitzea ezinbestekoa da. Euskararen egoera penagarriaren haritik gure egitura bibliotekarioaren ahuleziarekin topo egin dugu berriro: ohartzeak eta aitortzeak lehen pausoak izan behar dute, aldatu nahi baldin bada.

Etorkizunera begira, zurrumbilo sozialean, badirudi haize berriak dabiltzala, itxaropenari eusteko haize egoikiak. Aldarrikapen teorikoak, Bartzelonan 1996an adostu-

tako «Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertetsala» bezalakoak, zeinak V. Atalean, 45. artikuluan honela baitio:

Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka lurraldeko hizkuntza propioak toki nagusia har dezan kultur gertakarietan eta zerbitzuetan, hala nola liburutegiak, bideo-tekak, zinemak, teatroak, museoak, artxiboak, informatika-ekoizpena, folklorea, kulturaren industriak, eta kultur bizitzatik eratorritako beste agerkari guztiak¹⁸. (*Beste erreferentzia bat bada 40. artikuluan ere*)

Ildo teorikoaren barruan, baita ere, aipagarria da halaber Europako Hizkuntzei eta Legediei Buruzko Nazioarteko III. Simposiuma, Iruñean ospatua eta aurreko deklarazioa izan zuena oinarritzat.

Ekintza praktikoetan, berriz, Instituzioen aldetik, Josune Ariztondok, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak, ematen zuen *Jakin*-en (103. zk.) Hizkuntz Normalizazioaren II. Plangintza eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berri.

Finean, nola ez, Euskararen Unibertsoaren lehen jardunaldiak. Plangintza orokorraren barruko helburu sektorial bat baino gehiagotan beharko da bibliotekarien eskuhartzea: hedabideenean eta kulturgintzan, teknologian. Isilik baino interes handiz jarraitu genituen bibliotekari batzuek hango solasaldiak. Hain zuzen, gai horri buruzko gonbite batekin bukatuko dut artikulua hau: Euskal Herri mailan, biblioteken esparruan euskararen normalkuntzaren alde lan egiteko bibliotekari eta dokumentalista taldea sortu da, Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia. Honetan interesaturik dagoena artikulua hau sinatzen duenarekin jar daiteke harremanetan (tlf. 943-482774; e-mail: ajuanena@kultura.gipuzkoa.net). Gogoz hartuko dugu lankide berritzat. ♣

-
1. Sanz, Iñigo eta Moreno, Luis. «Sobre una red automatizada de Bibliotecas del País Vasco». *Documat 90 / Terceras Jornadas Españolas de Documentación Automatizada*. Palma de Mallorca: Universitat de les Illes Balears, 1999. ISBN 84-7632-086-8, 1.227, 1.234. or.
 2. Carrion Gutiérrez. *Manual de bibliotecas* [1ª reimp. corr.]. Salamanca; Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 1988. ISBN 84-86168-26-0, 227-228. or.

3. Osacar Arraiza, Gloria. «La automatización de las bibliotecas en el País Vasco». *ALDEE*. 1 urtea, 2 zk. (1995 abendua), 6-18. or.
4. Arana Palacios, Jesús eta Olaso Val, Anabel. «Legislación sobre bibliotecas: un estudio comparativo». *TK*. 1 zk., 43-53. or.
5. Iturralde Sola, Juana eta Arana Palacios, Jesús. «Entrevista a Carmen Jusué Simonena, Jefe de Sección del Libro y Bibliotecas». *TK*. 1 zk., 19-22. or.
6. «Modelo de qué». *TK*. 3 zk. (1997 ekaina), 6-8. or.
7. Cerdón García, José Antonio. *El registro de la memoria : bibliografías nacionales y depósito legal*. Gijón: Trea, 1997. ISBN 84-89427-23-2, 223-224. or.
8. «Liburutegi nazionalaren beharra». *Egunkaria*. 1996ko abendua-ren 7a. 12. or.
9. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*. 1990. Abuztuaren 6a.
10. Vellosillo González, Inmaculada. «Las bibliotecas nacionales». *Manual de biblioteconomía*. Madrid: Síntesis, 1996. ISBN 84-7738-363-4, 325-335. or.
11. Pérez, Adoració. «El papel de las bibliotecas nacionales en las Comunidades Autónomas, un caso concreto: la biblioteca de Catalunya». *Documat 90 / Terceras Jornadas Españolas de Documentación Automatizada*. Palma de Mallorca: Universitat de les Illes Balears, 1999. ISBN 84-7632-086-8, 349-367. or.
12. Orera Orera, Luisa. «La Biblioteca Nacional de España y las Bibliotecas Centrales de las Comunidades Autónomas». *Manual de biblioteconomía*. Madrid: Síntesis, 1996. ISBN 84-7738-363-4, 337-362. or.
13. Fuentes Romero, Juan José. «Las Bibliotecas Centrales de las Comunidades Autónomas: análisis de la situación y perspectivas de su desarrollo». *Documat 90 / Terceras Jornadas Españolas de Documentación Automatizada*. Palma de Mallorca: Universitat de les Illes Balears, 1999. ISBN 84-7632-086-8, 166-186. or.
14. «Conclusiones de las V Jornadas Españolas de Documentación Automatizada» (Cáceres, 1996ko urriaren 17-19). *Correo Bibliotecario* (1996ko azaroaren 10a). <http://www.bcl.uva.es>.
15. Cerdón García, José Antonio. Op. cit. 228, 231. or.
16. Echevarría, Tomás de. «Proyecto de creación de una biblioteca exclusivamente vasca». *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbao: Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 1919. 673-688. or.
17. Juanena Alustiza, Agurtzane. «El euskera en la catalogación de nuestro patrimonio bibliográfico». *ALDEE*, Año 2, n. 4 (1996 abendua), 16-21. or.
«Euskara gure ondare bibliografikoaren katalogazioan». *TK*. 3 zk. (1997 ekaina), 71-75. or.
18. «Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertetsala», Antton Elozegi Aldasorok euskaratua. *Hika*. 71. zk, 35-39 or.

Euskal polizia eleberrien hasiera

*

G O T Z O N G A R A T E

*

m unduan polizia eleberriak dira irakurrienak. Jendeak literatura mota hau du gustokoena. Urtero milaka polizia eleberri argitaratzen dira eta milioika ale saltzen.

Zoazte estazio eta kaleko kioskoetara, liburudendetara eta hirietako liburutegietara. Denek aho batez esango dizue-
te eta estatistikek ere horixe esaten dute: gehien saltzen eta
gehien irakurtzen diren eleberriak poliziatakoak direla.

Ez da gaurko kontua. Edgar Allan Poe jotzen dute po-
lizia eleberrien sortzailatzat. «He is considered the father
of the modern detective story» irakurriko duzue *Detectiv
Novel*-ari buruzko edozein historiatan.

Bere istorio harrigarrietan, Auguste Dupin detektibea
lanean ipini zuenetik, jendea oso zaletu zen abentura kla-
se honekin. Sherlock Holmesek areagoko arrakasta izan
zuen. Gaur egun Maigret, Marlowe eta Poirot ezagunak di-
ra gure artean.

Nor dira polizia eleberriak irakurtzen dituztenak? Li-
teratura mota honek badirudi ezjakinena dena. Ez da horre-
la. Hemen datza, hain zuzen ere, mota honen berezitasuna.
Jende klase guztiei gustatzen zaiela. Dendariei, langileei, de-
portistei eta etxekoandreei ez ezik, *white collars*-ei eta in-
telektualei ere polizia eleberriak goستن entzungo diezu.

► Gotzon Garate idazlea da eta Literatura Katedraduna
Deustuko Unibertsitatean.

Irakurtzeko tirria dutenen artean, ia inor ez da aurkitzen, bere bizitzako aldiren batean polizia eleberriez arduratu ez denik.

Zuzen zebilen Raymond Chandler, esaten zuenean:

Everyone reads mysteries from time to time —or almost everyone— and a surprising number of people read almost nothing else.

«Noiz edo behin guztiek —edo ia guztiek— irakurtzen dute polizia eleberriren bat eta jende askotxorik ez du polizia eleberrri baizik irakurtzen».

(Raymond Chandler: «Casual notes on the Mystery Novel» in A.S. Burack: *Writing Suspense and Mystery Fiction*, 299 or.)

Polizia eleberraren gora-beherak

Polizia eleberrien Urrezko Aroa bi mundu guduen arteko aldia dela esan ohi da, hots, 1919-1939 artekoa. Orduan agertu ziren orain horren ezagun diren idazleak. EEBBetan horietako batzuk *Black Mask* aldizkariaren inguruan bildu ziren.

Geroago literatura kritikari eta idazle batzuek ozenki aldarrikatu zuten polizia eleberria noraezean eta irtenbiderik gabe zebilela. Beraren aldia joana zela. Oker zebiltzan.

Ez da harritzekoa. Eleberrri klasikoen garaia ere joana zela esan zuten. Robbe-Grilletek, Nathalie Sarrautek eta beste batzuek, krokodilo nigar malko batzuk isuri, hil ezkilak jo eta eleberrri klasikoak literatura zaharren kanposantuan ohorezki ehortzi nahi izan zituzten.

Historiak, ordea, maiztxo barre egin izan du igarleen lepotik. *Nouveau roman*-eko idazleok beroiek zimeldu ziren, igotu eta oroitzapen hilerrian daude. Eleberria, ordea, bizirik eta osasun nahiko onarekin dabil, egunero ikusten dugun bezala. Polizia eleberrien osasuna ere ez da oso txarra. Ingalaterran, adibidez, gero eta gehiago dira *Crime Writers' Association*-en sartzen diren idazle profesionalak.

EEBBetako *best seller* eleberrri zerrendetan ia astero aurkitzen dugu mota honetako eleberriren bat.

Polizia eleberri motak

Polizia eleberrietan bi sail ezberdin daude. Alde batetik Asmakizun saila. Ingelesezt *Mystery novel*, *Detective story* edo *Detection novel* deitzen dute. Eleberriok puzzle bezalakoak dira, enigmak. Edgar Allan Poe, Sherlock Holmes eta Agatha Christie ipiniko genituzke sail honen eredu. Hiruon eleberrietan eskema berdintsua eriden liteke: hilketaren bat izan da eta hildakoaren inguruan zenbait pertsona susmagarri daude. Detektibeak, Dupin, Sherlock Holmes edo Poirot delarik, bere buruargitasunez hiltzailea nor den aurkituko du. Horixe da, hain zuzen ere, puntu nagusia, hiltzailea nor den jakitea. Sail honi «*Whodunnit*» saila ere deritza.

Beste saila eleberri beltza da. Punturik garrantzitsuena ez da hiltzailea nor den jakitea. Beharbada hasieratik dakigu nor den. Hilketak edo bestelako gaiztakeria gizarteko nahas-mendua eta ustela (*spoil-system*) ezagutzeko bideak dira. Hilketak argitu behar da eta zuzena egin behar da. Poliziari, kazetariari edo detektibeari dagokio lan hori. Horien joan-etorriek gizarteko gansterrak, dirua jainko bakartzat duten jauntxoak, ideien eta gorputzen prostituzioan lanean ari diren mamuak ezagutzeko parada emango digute.

Dashiell Hammetten, Raymon Chandler-en eta, batez ere, Mikey Spillaneren eleberriak bigarren sail honetan sar genitzake. Detektibea *hard-boiled* detektibea da. Hau da, detektibe latza, gogorra, indartsua, jauntxoen ustelari buruz buru borroka egiteko gauza dena.

Ez ditu Spillanek eleberri asko idatzi; halaberean, baina, bera da munduan eleberri gehienik saldu duen idazlea. Horrela diote behintzat amerikarrek. Spillaneren eleberriekin film entzutetsuak egin dira. Adibidez *I, the Jury* (1947). Eta serie bat ere bai: *Mike Hammer*. Serierik onenetako bat, askoren iritzi.

Guztira esan liteke, Ameriketako polizia eleberriak Europako eleberriak baino gogorragoak direla, hango gizartea ere gogorrago delako. Mafia, droga, emagaldukeria eta bortxakeria European baino hobeki antolaturik dago Estatu Batuetan. Detektibeak, «*private-eyes*», ere eskuarki borrokalariago dira.

Polizia eleberriaren literatura balioak

Batzuetan polizia eleberriak literaturan bigarren mailakotzat jo izan dituzte. Ez da iritzi zuzena. Kontua, izan ere, ez dago motan, nola idazten den baizik. Egia da, polizia eleberri txar asko dagoela. Asko idazten direnez gero, txar asko dago. Beste motetan ere horrela gertatzen da. Maitasun eleberri askok literatura balio gutxi dute.

Badira, ordea, literatura gailurrera iritsi diren detektibe eleberriak. Har dezagun, adibidez, Dostoievskiren *Nastuplenie i nakasanie (Gaiztakeria eta zigorra)*. Bete-betean sartzen da polizia eleberri motan. Dostoievskik, ordea, bere genioaren ikutua eman dio eta eleberri gogoangarri egin.

Charles Dickensek ere badu horrelako polizia eleberria, *Bleak house*, Bucket detektibearekin. Bai eta bukatu ez zuen *The Mystery of Edwin Drood* (1870).

Udan, New Yorkeko Fordham Universityn egiten ditudan ikastaroetan, irakasle bati baino gehiagori entzun diot William Faulkner dela gizaldi honetako idazlerik handiena. Europan ere badira uste hori dutenak. Nobel Saria irabazi zuen. Faulkner-ek ere baditu polizia eleberriak. Fama handia eman zion lehendabiziko eleberrian, *Sanctuary-n*, neskatxa baten hilketa eta detektibearen lanak ikusten ditugu. Geroago *Intruder in the Dust* idatziko du, zuzen-zuzen suspense eleberrietan sartzen dena.

Nork ez ditu Graham Green-en polizia eleberriak irakurri? *The Confidential Agent*, *The Third Man* edo *Our man in Havana* gustu-gustukoak izan genituen geure gazte denboran. Badugu beste Nobel saridun bat, polizia eleberrien ildotik joan dena. Gabriel García Marquez-en *Cronica de una muerte anunciada*-k suspensearen marka guztiak ditu.

Guztiok ezagutzen dugu Umberto Eco-ren *El nombre de la rosa*. Eta eleberri ona dela aitortu ere. Hala ere *Crime Writers Association*-ek egin zuen 100 polizia eleberririk onenen zerrendan 13. tokian dago.

Kontua, beraz, ez dago motan, generoan, ondo idaztean baizik. Mota guztiek dituzte beren alde onak eta txarrak. Idazle onak, maitasun eleberriak, gizarte eleberriak edo polizia eleberriak idazten dituenen, eleberri onak idazten ditu.

Polizia eleberriak eta filmak

Beste puntu batean ia denak bat gatoz. Polizia eleberritan oinarritutako film asko oso onak direla. Filmen kondairan onenen artean sartu behar direla.

Dashiell Hammeten *The Maltese Falcon* (Humphrey Bogard, 1941), Raymon Chandler-en *The big Sleep* (Humphrey Bogard, 1939), James M. Cain-en *The Postman Always Rings Twice* (John Garfield, 1934), *Double Indemnity* (1943, Edward Robinson), William Rilely Burnett-en *The Asphalt Jungle* (1950), Graham Greenen *The Third Man* (Joseph Cotten, 1950), Vera Casparyren *Laura* (1943, Gene Tierney)... ia guztiok ikusi ditugu eta artelanak direla esan beharra dago.

Film zuzendarien artean Alfred Hitchcock gailendu da polizia eleberriak film bihurtzen. Miresgarriak dira beraren *The Thirty-nine Steps* (1935), *Spellbound* (1945), *The Paradine Case* (1947), *Strangers on a Train* (1951), *The Man Who Knew Too Much* (1956).

Filmatu zituen film guztietarik nik *Vertigo* (1958) ipiniko nuke gailurrean. Maitasun giroak, James Steward dektibearen jokabideak, Kim Novak-i ingurutzen zion misterioak eta bukaera ustezinak film hau oso estimagarri egingen dute. Askok, arrazoi handiz, orain arte egin diren hamar filmerik onenen artean ipintzen dute.

Polizia eleberriak, egungo egunean ere, onak badira, arrakasta handia dute. Eta zinemagileak berehala hartzen dute film egiteko.

Har dezagun, adibidez, EEBBetan eta European arrakasta handia izan duen *The Silence of the Lamps*. Filme hau izen bereko Thomas Harris-en eleberrian oinarriturik dago.

Idazleak

Polizia eleberrien idazleetan nik neuk bat aukeratzen, Raymond Chandler hautatuko nuke. Guztien artean gailentzen dela uste dut, batzuk Dashiell Hammet gorago jasotzen badute ere. Dashiell Hammet-en estiloa ez da heletzen Chandler-en arte mailara. Raymon Chandler-en des-

kribapen koloretsu-indartsuek, elkarrizketa zorrotzek, sortzen dituen giro ilun mehatxugarriek ez diote Hemingway-ren eleberriei ere inongo inbidiarik.

Dena delarik, honatx lehen ere aipatu dugun Inglaterrako *Crime Writers Association*-en arabera zein diren hamar polizia eleberririk onenak:

1. Josephine Tey-ren *The daughter or Time* (1951).
2. Raymond Chandler-en *The Big Sleep* (1939).
3. John le Carré-ren *The Spy who came in from the Cold* (1963).
4. Dorothy L. Sayers-en *Gaudy night* (1935).
5. Agatha Christie-ren *The Murder of Roger Ackroyd* (1926).
6. Daphne du Maurier-en *Rebecca* (1938).
7. Raymond Chandler-en *Farewell my Lovely* (1940).
8. Wilkie Collins-en *The Moonstone* (1968).
9. Llen Deighton-en *The Ipress File*.
10. Dashiell Hammet-en *The Maltese Falcon* (1930).

Polizia eleberrien arrakastaren arrazoiak

Arrazoi bat baino gehiago dago azaltzeko, jendeak zergatik duen polizia eleberritarako horrelako zaletasuna. Polizia eleberriek eguneroko asperguratik ateratzen gaituzte.

Polizia eleberririk gehienetan heriotza eta hiltzaile baten inguruan ardaizen dira. Norbait hil dutela irakurriz gero, berehala sortzen zaigu hiltzailea nor den jakiteko grina.

Polizia eleberri onak irakurterrazak izaten dira, ekin-tza bizia dute, ideologia gutxi eta elkarrizketa asko. Hitz batez esateko, jakinmina hasieratik azkeneraino pizten dute eta ez digute irakurtzeko inongo trabarik ezartzen. Eskutan hartu eta ezin utzi. Badute gainera polizia eleberriek beste alderdi on bat. Ez dutela «edantxarrik» uzten. Irakurri eta ahaztu arte, haren gustu ona gelditzen zaigu, pastel on bat jan eta biharamunean ere haren oroitzapenez pozten garen bezala. Horregatik, sarri gertatu ohi zaigu, aspal-di irakurri eta zokoan genuen polizia eleberriren bat berri-ro eskuratu eta berriro atseginez irakurtzea.

Euskal polizia eleberrien hasiera

Idea nagusiok gogotan izanik, zer esan dezakegu Euskal Herriko polizia eleberriez?

Euskal Herrian literatura lanetan oso berandu ibili garelako gauza jakina da. Olerki eta atsotitzen (esaera zaharren) alorrean ez gabiltza horren gaizki. Eleberrietan, ordea, gure emaitzak oso berantkorrak eta eskasak izan dira.

Zenbait naziotan 14. gizaldian hasi baziren eleberriak idazten, Euskal Herrian 19. gizaldiaren azkenaldian. Lehendabizikoa Txomin Agirrek idatzi zuela esan genezake: *Auñamendiko lorea* (1898). Geroago, berrogeita hamar urtean hamabost bat eleberri idatziak izan ziren. Batezbeste, hiru urtean bat. Polizia eleberri lanetan are beranduago hasi ginen.

Lehendabiziko eleberria

Lehendabiziko eleberria Jose Antonio Loidi Bizkarrondok idatzi zuen. 1954an Euskaltzaindiak eleberri sariketa bat antolatu zuen. Eleberria nor berek asmatua edo itzulia izan zitekeen. Sariketa Etxaideren *Joanak joan*-ek irabazi zuen. Bigarren saria *Bide izkutua*, Hugo Wast-en *El camino de las llamas*-en itzulpenak (Bai itzulpen bikaina!) eskuratu zuen eta hirugarren saria Loidiren *Amabost egun Urgain'en* eleberriak eramanez.

Loidiren eleberria hurrengo urtean argitaratu zen, 1955ean. Gogoan edukitzean badugu Edgar Allan Poe 1840 inguruan hasi zela bere polizia kontakizunak idazten, esan liteke gizaldi bat atzeratuak hasi ginela euskaldunok.

Jose Antonio Loidiren bizitza

Jose Antonio Loidi Erreterian sortu zen. Azken berrogei urteotan, ordea, Irunen bizi izan da. Botikario da. Luis de Urantz Kultur Taldearen sortzaile da eta orain beraren ohorezko lehendakari. Talde honek urtero liburu bat ateratzen du, mardula, mila orrialdekoa.

Irunen Botikarioen Inspektore izan da eta edateko ura aztertzea bere gain izan du. Urari buruz, botanikari buruz

eta toponimiari buruz idazten du. Toponimian, adibidez, Ondarribia izenari buruzko azterketak egin ditu.

Euskal Herrian ezezik beste tokitan ere idatzi du eta telebistan agertu. Guztira ehun artikulu baino gehiago idatzi ditu, bai erdaraz eta bai euskaraz.

Hogeita hamar urte arte ez zuen bere euskara landu. Adin horretan Azkueren *Morfologia*, Altuberen *Erderismos* eta Zabaleren eta Lopez Mendizabalen gramatikak aztertu zituen. Simenonen eleberriak euskarara itzultzen hasi zen eta egun batez pentsatu zuen: «Zergatik ez dut nik neuk polizia eleberri bat idazten». Eta horrelaxe egin zuen. *Amabost egun Urgain'en* burutu zuen.

Eleberri hau katalanera itzuli dute. Frantsesera eta gaztelerera ere bai. Bi hizkuntza hauez, ordea, ez dira argitaratu, dirulaguntzarik izan ez delako.

Amabost egun Urgain'en

Amabost egun Urgain'en agertu orduko arrakasta handia izan zuen. Ongi oroitzen naiz zein gogarakoa izan genuen eleberri hura. Loiolan nengoen ni orduan, eta euskaltzale talde bat ginen. Guztiok irakurri genuen eleberri atera berria. Huraxe zen lehendabiziko polizia eleberria euskaraz. Harrituxeak gelditu ginen. Euskaraz polizia eleberria! Euskal literaturan urrats handia egina zen.

Geroztik berriz ere hiruzpalau aldiz irakurri dut eleberri hori eta Deustu Unibertsitatean neure ikasleei aztertze-ko agindu izan diet.

1981 urtean polizia eleberri batekin Azkue Saria irabazi nuenean, hitzaurre bat egiteko eskatu zidan nire adiskide Joxe Ramon Bilbaok. Hitzaurre horretan ere Loidi Bizkarrondo hitz egiten nuen.

Eleberriaren merituk

Besteak beste polizia eleberriak izan behar dituen bi alderdi gogagarri zituen Loidirenak: a) jakinmina piztea eta b) hizkuntza jatorra erabiltzea.

Jakinmina, bukaera eta sinesgarritasuna

Polizia eleberriak jakinmina piztu behar du. Ahal izanez gero, hasiera-hasieratik. Horrela egiten du lehenago ere aipatu dugun Mickey Spillanek. Aurreneko kapituluan ipiniko dizu gertakari harrigarriren bat eta azkeneraino jakinminak erreko zaitu.

Loidik ere aurreneko kapitulutik piztu zigun jakinmina. Kanposantuko lurperatzaileak emakumearen gorpuan tiroa nork eta zergatik tiratu duen jakiteko irrikaz egongo gara. Eleberri guztietan, filmetan bezala, eta beharbada polizia eleberrietan areago, bukaerak garrantzi handia du.

Eleberrietan Joko Olinpikoetako gimnasia bezala gertatzen da. Hagan, barretan lanean ari direnak, hagaren inguruan itzuliak eta jirabirak egin ondoren, azkenean lurrera jauzi egiten dute. Azken jauzi horretan zutik eta lirain gelditzen ez da erraz. Asko oker eta erdi-erorian gelditzen dira.

Gauza bera gertatzen da eleberrietan eta filmetan ere. Nahiko ongi joan diren eleberri eta film batzuk azkenean erdipurdikeria batekin bukatzen dira. Liburua errematatzen ez dakite.

The murder of Roger Ackroyd Agatha Christieren eleberri onena dela uste dute askok. Eleberri horri, ordea, batzuek bukaera txarra duela egotzi diote. Beste batzuek, ordea, bukaera oso ona dela. Ustegabeko bukaera du, hori bai.

Amabost egun Urgain'en-ek ere ustegabeko bukaera du. Deustu Unibertsitateko neure ikasleekin bukaera horretaz eztabaidatu izan dugu. Batzuek eskasa dela diote. Beste batzuek ona dela. Nik, horien artean. Bukaera egiazkoa da, itxaroten ez genuen bezalakoa izan arren.

Hain zuzen ere, *Amabost egun Urgain'en*-ek badu polizia eleberri on guztiek izan behar duten beste dohain bat: egiantza, sinesgarritasuna. Polizia eleberri askotan horixe izaten da huts handia eta oinarritzkoa. Kontatzen diren gertakariak sinetsezinak direla. Bitxikeriak, gauza harrigarriak, hilketa asmaezinak eta sekula gertatzen ez direnak.

Raymon Chandler-ek, polizia eleberrien idazle ona izateaz gainera, polizia eleberriei buruzko teoria idatzi zuen. Lehen aipatu dugun artikuluan (1949) hauxe zioen:

It must be realistic as to character, setting and atmosphere. It must be about real people in a real world.

«*Pertsonaiak, ekintza eta giroa egiazkoak izan behar dira. Egiazko pertsonaiak egiazko gora-beheretan*».

(Aipa. libu. 298 or.)

Egia da, nazio batetik bestera alde handia dagoela. Estatu Batuetan magia, hilketa organizatuak, txantajeak eta droga inon baino hobeki antolatuak daudela esan liteke. Beste tokitan gerta ezin litezkeen gauzak gertatzen dira han.

Giro hori nahiko ongi ezagutzen dut. Ia hogeita hamar urtean New Yorken eman izan dut uda. Urte batzuk Bronxen. Harlem-en ere bizi izan naiz. Azken hamabost urte honetan Manhattanen, Washington Heights auzoan. Auzo honetan gertatzen omen dira munduko hilketarik gehienak. Halaxe daukat irakurrita. Auzo hori Washington Zubiaren ondoan dago. Zubi hori igaro eta New Jersey zaude, eta Atlantic city kasinoak hortxe daude. Droga erostera gure auzora etortzen da jenderik anitz. Gauez behin baino gehiagotan iratzartzen gara, tiroen zalapartarekin. Droga saltzaileek beren eztabaidak tiroz garbitzen dituzte. Astero ditugu gazteen hilketak.

Idazlea, beraz, ez da bitxikerietan oinarritu behar. Eguneroko bizitzan kontakizun jakingarririk asko bada.

Simenonen eleberriek badute eskuarki bertute hori. Maigretrek askatzen dituen kasuak, gure eguneroko bizitzatik atereak dira. Horrek izugarrizko indarra ematen die beren eleberriei. Geuk ikusi duguna erraz sinesten dugu.

Hamabost egun Urgain'en eleberriak ere horixe du on. Euskaldunok, egunero ikusten ditugu hor gertatzen diren gauzak. Hor agertzen diren pertsonak gu bezalakoak dira.

Telebistan *Goenkale*-k izan duen arrakasta ere horrela ulertzen da. Gure-gurea den Euskal Herria zirriborraturik aurkitzen dugu *Goenkale*-n.

Gainera, badu *Amabost egun Urgain'en*-ek beste alderdi ona. Herri txikian gertatzea. Polizia eleberriaren gertakariak Bilbon gertatzen badira, mundu artifizialean gaudela ohartzen gara. Poliziak euskaraz ari dira, dendariak euskaraz, drogazaleak euskaraz. Bilbon, ordea, horiek guztiok espainolez mintzo dira. Urgainen, berriz, guztiak euskaldun

dira, Gipuzkoako herri txikietan izaten zen bezala. Egiazko gizartea ispilatzen zaigu.

Detektibearen lana

Ikastetxeetan eta beste tokitan hitzaldiak egiten ditut neure eleberriei buruz. Askotan galdetzen didate polizia eleberrietan zein den alderdirik inportanteena. Ez da erraza erantzuten. Gertakarien haria ongi eramatea, giro egokia sortzea, bukaera bikaina ematea, elkarrizketa biziak egitea, idazkera zorrotzez baliatzea, hauetxek eta beste alderdi batzuek pisu handia dute.

Hala ere, nik neuk, beharbada, detektibea nolako den punturik inportanteena dela, esango nuke. Howard Haycraft polizia eleberrien kritikari entzutetsuak esaten zuenarekin bat nator:

In any detective story worth the name, at once the most important and most difficult integer is the sleuth.

«Egiazko polizia eleberrietan, alderdirik garrantzitsuena eta zailena detektibea da».

Nolako polizia eleberria idatzi nahi duzun, horrelako detektibea sortu behar duzu. *Mystery* eleberrietan detektibea gehienetan goxoa izaten da, batez ere burua erabili behar duelako. Eleberri beltzetan, buruarekin batera, detektibeak beldurra alde batera utzirik, ukabilak ere erabiltzen jakin behar du. Hots, nolako ekintza, halako detektibea.

Zenbait kasutan idazlea baino detektibea askoz ezagunago da. Askok oso ongi ezagutzen dituzte Perri Mason, Sherlock Holmes, The Saint. Ez dakite, ordea, nor den detektibe horien sortzaile. Ez dute Erle Stanley Gardner, Arthur Conan Doyle eta Leslie Charteris-en aditzea. Kriatura sortzailea baino entzutetsuago da.

Kasu guztietan, detektibeak moldatzen du eleberriaren izakera eta giroa.

Ipini ezazu detektibe edo polizia egokia, zartadakoa, jatorra, eta eleberriari bizkarrezur bikaina paratu diozu.

Chestertonen eleberrietan Father Brownek ematen die gertakizunei erlijio kutsua eta gaizkilearenganako giritino maitasuna. Chesterton protestante zen eta katoliko

egin zen. Protestante ingurunean bizi zenez gero, bere idazki guztietan nola edo hala bere sinesmenaren ageriak ematen ditu.

Georges Simenonen Jules Maigret komisarioak giro baketsu eta dotorea ematen dio bere jarduerari. Emaztearekin goxo eta maitagarri den bezala, gaizkileekin ere horrela jokatzeko du.

Agatha Christieren Hercule Poirot gizon zuhurra da. Buruaren argitasunaz baliatzen da eraileak harrapatzeko. Gaizkileen kasuak asmakizun edo puzzle bat balira bezala askatzen ditu.

Mickey Spillaneren eleberrietan ikusten dugun lazkeria, gogorkeria eta errukigabetasuna ezin litezke ulertu Mickey Hammer gogorra, latza eta edozein basakeria egiteko gai dela, gogotan ez badugu hartzen. *Encyclopedia of Mystery and Detection* liburuan irakur liteke, bera dela «Probably the toughest of all private detectives» («Beharbada detektibe guztietarik latzena» 184 or.).

Raymond Chandler-en eleberriak nahiko balantzatuak, gehiegikeriarik gabeak dira, Philip Marlow detektibea bera ere gizon zartadatsua izan arren, *gentleman* bat delako. Laburki esanik: nolako detektibea, holako polizia eleberria.

Amabost egun Urgain'en-go Garaidi detektibea jatorra da, *gentleman*, gogozkoa egiten zaiguna. Gertakizunen harria dotore eramaten duena. Urgaingo gertakizun normalentzat Loidik detektibe normal bat aukeratu du.

Euskara

Amabost egun Urgain'en-en haria ongi eraman, detektibea ongi jasoa eta jakinmina beti piztuta badago ere, punturik bikainena eta txalogarriena, euskara da.

Loidiren eleberriak goiena jo zuen, euskaraz denaz bezainbatean. Gure atzetik datozenek, eleberri hori irakurri eta harriturik geldituko dira. Bai ederra *Amabost egun Urgain'en-en* euskara! Laburki esan liteke zertan dagoen bikaintasun hori: erabiltzen duen herriko euskara aberatsean.

Gero eta bakanago irakurtzen dugu gure gurasoen ahotik entzuten genuen euskara jator, bizi, aberatsa. Badira, hala ere, oraindik ere herriko euskaraz ongi idazten du-

tenak. Hortxe daude Auspoak ateratzen dituen liburuak. Ia denak zoragarriak. Gazteleraz gaizki, baina euskaraz ongi dakitenek idatzita.

Ataño, Jose Azpiroz, Bartolo Ayerbe, Txomin Garmendia, Patxi Lazkano, Manuel Lasarte, Atxukarro... eta Auspoan idatzi duten beste asko eredutzat har genitzake. Ezin horien euskarari hutsik harrapatu.

Horrelakoxea da *Amabost egun Urgain'en*-en euskara.

Lehendabizi herriko euskara. Loidik bere polizia eleberrian herriko euskara txertatu du. Hortxe dago beraren meriturik handienetako bat. *Amabost egun Urgain'en*-en gure gurasoek erabiltzen zuten Gipuzkoako euskara aberatsa, bikaina eta indartsua aurki genezake.

Herritasun hori alderdi askotan ikusten da.

Lehendabizi errepetizioetan. Roman Jacobsonek behin eta berriz esaten zuen atsegin estetikoa errepetizioan dagoela. Literaturan ez ezik, arkitekturari eta musikan ere zati bat behin eta berriz irakurri-ikusi-entzuteak geure baitan atsegina sortzen duela.

Gure gurasoek errepetizioaz etengabe baliatzen ziren hitz egiteko. Superlatiboa, adibidez, maiz hitz bat bi aldiz esanez burutzen zuten: frakan-frakan, bizi-bizia, ixil-ixillik, on-ona... Euskaraz indoeuropar hizkuntzez baino sarrigo erabiltzen da superlatibo molde hau. Gaurko gazte-riak oso bakan erabiltzen du.

Denetatik errepikatzea da *Amabost egun Urgain'en* eleberraren baliapide literarioerik nabarmenena. Loidiren lana horrelako errepikapenez josia dago. Ia orri bakoitzean aurkituko dituzue:

«Euria! Euria ta euria!...» (15 or.), «Sartu zaite, sartu!» (48 or.), «Berri-berria» (65), «ixil-ixillean» (89 or.), «etsi-etsian» (99 or.), «Tira, tira! Asi zaitez gizona, asi» (104 or.), «Zaude, zaude!» (104), «Kalez-kale, zuzen-zuzen» (116 or.).

Loidik hitzak ezezik, esaldi berdintsuak ere elkarren ondoan ipintzen ditu. Har itzazu eleberraren aurreneko hitzak:

«Illunabarra zan... negu gorriko illunabar bat...» (15 or.), «Ba-noa, ba-noa!» (48 or.), «asi... asi ai, baiña bukatu...»

(65), «Ondo dago, Muñue, ondo dago» (71), «Garai one-an iritxi ere! Onik-onenean!» (113 or.).

Loidik, baserritarrek bezala, guttigarriak, diminutiboak maiztxo erabiltzen ditu:

«Ez da oraingoxea» (77 or.), «ezpaltxo ura kentzeko» (151), «Unetxo batean» (185 or.), «leguntxeago» (186 or.).

Anaforek ere herriko kutsua ematen diote:

«Ango euri-zaparrak! Ango aize-zurrunbilloak! Ango otza!...» (15 or.).

Baserritarrek orain ere batzuetan aditz osoa eta bestetan aditz laguntzailea maiz jaten dute. Loidik ere bai:

«Diruketa galantaren jabe Egurmenditarrak noski!» (148 or.). «Beste biok dana belarri; karrankik ere ez bere ezterrian» (150 or.).

Herriko esamolde (lokuzio) garazitsuak erabiltzen ditu:

«Gaiztakeri ura bere bizkar uzten zuten!» «Bai zera!» (63 or.), «emaztearen berri txintxik ere esan ez» (64. or.), «Garaidi, bazan-ezpazan» (73 or.), «Esku-arte urria aiena» (76 or.), «ez non eta ez an» (77), «Zer kutsu ta zer kutsu ondo?» (79 or.), «Betiko lepotik orrek burua!» (204 or.).

Harridura eta amorrua azaltzen duten esaldiak sarri irakur litezke *Amabost egun Urgain'en-en*.

«Uraxe lana!» (62 or.), «Zital, kiskil hutsa!», «Pirmin'en izerdiak! Egurmendi'ren illuntasuna!» (214 or.).

Jazargoan dauden esaldiek ere herri kutsua dute:

«Bat lasaitu ala, bestea larritu; bat poztu ala beste atsegabetu?».

Eguneroko bizitzatik ateratako konparazioak:

«Ura arrapatu nai izatea ta arrautz gorringoari danbolliña jotzea... gauza bera» (99 or.), «Jatea utzi gabe, an zebillen, lur-arrotuan ollar zar bat txitxare billa ibiltzen dan bezelaxe» (126 or.).

Esaera zaharrak ere sartzen ditu. Piparra, gatza eta berakatzak ematen diote irakurgaiari:

«Askoren miña txoroen atsegiña» (23 or.), «Txakur zaunkaria, gutxitan oskaria» (19 or.), «itzontzi, utsontzi» (180 or.).

Loidiren elkarrizketak oso biziak dira, erabiltzen duen herriko euskarari esker. Hain zuzen ere, eleberrietan elkarrizketek eginkizun berezia dute. Idazle onak badaki zuzenean zer kontatu eta zer kontatu elkarrizketen bidez. Elkarrizketak antzerkiaren moldea ematen diote kontakizunari. Orainaldira ekartzen dituzte aktanteak.

Raymon Chandler, adibidez, gailen agertzen da bere elkarrizketetan. Dashiell Hammet-enak baino hobeak dira, bi-ziagoak, zorrotzagoak. Loidirenak ere pipertsuak dira, zauliak, orain arte aipatu ditugun herriko moldeez hornituak.

Deskribapenetan Loidiren idaztankera, estiloa, zauli eta koloretsua da:

Arpegia gorritu zitzaion; bereala zuritu; gero urkindu; begiak berriz betzuloetatik iges egin naian zeuzkan; aoa zabal-zabalik; beatzak dardarka... (93 or.).

Giroa, gertalekuak eta parajeak ongi pintatzen ere badaki Loidik.

Egia esan. Gero ere, euskararen aldetik, ez dira polizia eleberri asko idatzi Loidirena baino hobeak. Deitoragarri izan da Loidik eleberri gehiagorik ez idaztea.

Coidi Bizkarrondoren ondorengoak

Zazpi urte igaro ziren polizia eleberririk agertu gabe. Pentsa! Horrekin bakarrik esanda dago gure euskal eleberrigintza zein mailatan dagoen. Frantzian bakarrik zazpi urte horretan bost mila baino gehiago idatzi zituzten.

Mariano Izeta

Bigarren polizia eleberria Mariano Izetaren eskutik heldu zitzaigun. Elizondotar honek *Dirua galgari* eskaini zigun. Ez dakit gaurko gazteek eleberri hau ezagutzen dutenentz. Auspoak argitaratu zuen eta agortua dago. Liburutegietara jo behar da, beraz, irakurtzeko.

Merezi du, ordea, irakurtzea, gai bizia, pizgarria delako eta Baztango euskara airoski erabiltzen duelako. Mariano Izetak geroztik ez digu eleberrri mota honetan beste emaitzarik eskaini.

Txomin Peillen

Beste bost urte igaro ziren, polizia eleberririk gabe. 1967an Txomin Peillenek *Gauz ibiltzen dana* idatzi zuen.

Polizia eleberrri klasikoen bidetik doa. Badu, ordea, orijinaltasunik, gai eta teknika aldetik. Pettiri Sabuki detektibearen nortasuna, gainera, indartsu agertzen zaigu.

Gatu beltza, berriz, idazle berak idatzia, polizia eleberrien parodia dugu, Peillenek horren maisuki erabiltzen dakien ironiaz beterikoa. Ironia edo erremen horren fruitu bikainagoak ediren daitezke bost urte geroago argitaratu zuen *Itzal gorri*-n.

Xabier Gereño

Polizia eleberrriak jendeak erraz irakurtzen dituela garbi ikusi zuen Xabier Gereñok. Gereñok euskarari egin zion mesedea neurtzen ez da erraz.

1969an argitaratu zuen bere lehendabiziko polizia eleberria, *Arantza artean* eta geroztik etengabe ekin zion holako eleberrriak idazteari.

Garai batean mila eta milaka euskaldunek, zaharrik eta berririk, irakurri zituzten Gereñoren polizia eleberrriak.

Geroago beste euskal idazlek bide beretik jo dute. ¶

Bibliografia

- BARNES, Melvyn: *Murder in Print*, Barn Owl Books, 1986.
- CHARLOT, Alain. *Les 100 chefs-d'oeuvre du suspense*. Marabout, Alleur (Belgika), 1989.
- COMA, Javier. *Diccionario de la novela negra norteamericana*. Anagrama, Bartzelona, 1986.
- COMA, Javier: *Diccionario del cine negro*, Plaza y Janes, Bartzelona, 1990.
- HAYCRAFT, Howard: *Murder for Pleasure*, 1988.
- HIGHSMITH, Patricia: *Plotting and Writing Suspense Fiction*.
- LOIDI BIZKARRONDO, Jose Antonio: *Amabost egun Urgain'en*, Arantzazu, 1968, Laugarren argitalpena: lan honetan erabili dudana.
- STEINBRUNNER, Chris and Otto PENZLER: *Encyclopedia of Mystery and Detection*, McGraw-Hill Book Company, New York, 1976, 184 or.
- SYNONS, Julian: *Bloody Murder*, 1985.
- VAZQUEZ DE PARGA, Salvador: *Los mitos de la novela criminal*, Planeta, Bartzelona, 1981.
- Writing Suspense and Mystery Fiction*, Edited by A.S. Burack, Publishers The Writer, INC, Boston 1987.

Hainbat aburu



JOSU AMEZAGA

Kulturaz eta kultur politikaz

73



JULEN ZABALO

**Europa batuaren ildoan,
euskal nazionalismoa bidegurutzean**

99

Kulturaz eta kultur politikaz

*

J O S U A M E Z A G A ¹

*

Gaurko gure gizartean kulturak berebiziko garrantzia du. Marxismoaren irakurketa mekanizista eta estuegi batetik, kultura «gainegitura» kokatu izan da, «azpiegitura» ekonomikoaren mailako gora-beheren menpe dagoen zerbait bezala, beraz. Irakurketa honen desegokitasuna, ordea, historiak erakutsi digu. Herrialde sozialista ohietan gertatuak zera ikustarazi digu: produkzio-mailako aldaketek, besterik gabe, ez dituztela eraldatzen jendearen pentsamolde, ohitura eta praktikak. Bestalde, nahiz eta aberatsen eta desjabetuen arteko kontraesanak gaur egun inoiz baino handiagoak izan, kapitalismoak munduko txoko askotan —geurea barne— lortu duen egonkortasuna, beste faktore batzuen artean, «kulturaz» egiten duen erabilerari leporatu behar zaio; hots, mintzaira marxista klasikoa erabiliz, errotzea lortu duen «ideologiari». Hau dela eta, gero eta gehiago dira kapitalismoak ezarritako alienazio nagusia ekonomi mailatik kultur mailara pasatu dela diotenak; lanaren bidez barik, kulturaren bidez lortzen baitu sistema menperatzaile honek bere burua behin eta berriz birsortzea. «Kultura» hitza zentzu zabal batean ulerturik, horrela delakoan gaude geu ere. Eta uste horrek, kulturak gizartearen eraldakuntzarako duen garrantziaz behingoz ohartu eta gogoeta sakonera eraman beharko gintuzke.

Aspaldidanik nazio-proiektu aurrerakoi baten inguruan gabiltzalarik, kulturak duen balioa ezkerreko beste

1 Josu Amezaga Soziologian doktorea eta EHUko Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatean irakaslea da.

indar askok baino hurbilago ikusi izan dugu Euskal Herrian. Ez da kasualitatea ETArekin sortzen den nazionalismo berriaren ekarpen nagusia, hain zuzen, nazio-mailako eta gizarte-mailako borrokak bateratzearekin batera, euskal herriaren definitzaile nagusizat euskararen aldarrikapena izatea. Alde horretatik, ezker abertzalea beste indar aurreazale batzuk baino egoera hobean dago gizarte berria ekonomia-eremutik soilik eraikiko ez dela ikusteko. Baina,aldi berean, kulturarekikoa hizkuntzarekikoa bakarrik dela pentsatzeko arriskua dugu. Beste hitzetan, kulturaren inguruko eztabaida «euskal kultura *versus* erdal kultura» eztabaidara mugatzera eror gintezke. Eta kulturak gizarte arteko kontraesanetan ezezik gizarte barneko kontraesaneetan jokatzen duen papera, ahaztuta edo beste maila batean geratuko litzateke horrela. Esan nahi baita, herri edo nazio bati besteen kultura ezartzen zaionean herri hori alienatu egiten da, menperatu. Baina herri baten barnean, gizarte-ko sektore bati besteen kultura ezartzen zaionean, hor ere alienazioa eta menperakuntza gertatzen dira. Ezinbestekoa dugu, beraz, kulturaren auziari bi ikuspuntu ezberdin hauetatik heltzea. Alegia, euskal herriaren nazio-eraikuntza oztopatzen duten kultur errealitateei aurre egitearekin batera, euskal gizarte zuzenago eta askeago bat eraikitzea oztopatzen duten kultur errealitateei ere aurre egin behar diegu. Alderdi biak, gainera, ezin ditugu maila ezberdinetan pentsatu: biok dira gizarteko zapalkuntzaren ondorioak; hots, gizarteko klase batzuek besteen gainean ezartzen duten zapalkuntzaren ondorioak. Honegatik guztiagatik, kulturaren ere herri bezala geure burua garatzea ahalbideetako digun gizarte-eredu bat proposatu beharrean gaude, «herria» hitzari esangura bikoitza ematen diogularik: *nazio* esangura (euskal herria, frantsesa eta espainola ez dena); eta *populu* esangura (klase menperatzailea ez dena).

Gizatalde baten adierazpidea da kultura

Kultura era labur batez definitzeko, gizatalde baten espresibidea edo adierazpidea dela esan dezakegu. Giza-

kiek, errealitateari aurre egin ahal izateko, ezagutza, pentsamolde, praktika, adierazkera, eta tresna-multzo bat garatu dute historian zehar. Horiei guztiei zeinuen bitartez eusten dien sistema da kultura. Sistema horri esker, gizakiek errealitateari aurre egiteko garatu dituzten baliabideak —ezagutza, pentsamolde, praktika, adierazkera, tresna, eta abarrak— sortu eta birsortu egiten dira. Lurra lantzeko modua zein ama eta alabaren arteko harreman-modua, kulturak emandako ereduaren arabekoak ditugu. Areago, modu horiek eraldatu nahi ditugunean ere, kulturak eskaintzen dizkigun osagaiez baliatuko gara modu berriak irudikatzen, eta beroriek praktikan jartzeko. Horregatik guzti-gatik diogu kultura gizatalde baten adierazpidea dela: gizatalde horren izana isladatzen duelako eta, aldi berean, gizataldearen birsorkuntza arautzen duelako. Gizataldeak egiten du kultura, eta aldi berean kulturak gizataldea egiten du.

Kulturaren definizio honetan sakontzen badugu, berehala konturatuko gara gauza batez: *dena da kultura*. Izan ere, gizakiak egiten duen orok adierazten du zerbait. Geure praktika guztiek eta praktika horretatik datozen objektu guztiek, neurri handiago edo txikiago batean adierazleak dira, zerbait *erakutsi* edo *esaten* dute. Kulturaz mintzatzen garenean, ordea, zertaz ari garen zehaztea komeni da, eta horretarako honako bereizketa hau egin ahal dugu: praktika eta objektu batzuk, bereziki zerbait adierazteko eginak dira: hitza, keinua, ikurra, artelana, edergarria, eta abar luze bat. Beste batzuk, ordea, bestelako funtzio bat betetzeko eginak dira, nahiz eta funtzio hori betetzeaz gain zerbait adieraz dezaketen: lana, autoa, jakiak, etab. Sarritan zaila gertatzen da bion artean muga zehatzik jartzea, baina adibide batez praktika eta objektu hauen arteko izaera ezberdina ikus daiteke: leizeetako leinuetan basazko ontzia asmatu zen, ura edo beste zerbait edukitzeko funtzioa zuena; hala ere ontzien jabe izateak aberastasuna adierazten zuen. Geroago ontzia apaindu egin zen eta, ura edukitzeaz gain, zerbait adierazteko erabili zen (majia, siniskerak, jatorria, etab.). Azkenik ura edukitzeko funtzioari utzi egin zion, eta balio adierazle hutsa hartu zuen ontziak, gela baterako apaingarri bihurtu zenean. Ikus daitekeen bezala,

muga jartzea zaila den arren, argi dago praktika eta objektu batzuen balioa bereziki funtzionala dela, beste batzuen adierazlea delarik. Hemen, besterik aipatzen ez den bitartean, bigarrenak hartuko ditugu kulturaz mintzatzen garenean, nahiz eta lehenengoak ahaztea komeni ez den. Are gutxiago, objektu eta praktika funtzionalen balio adierazlea gero eta handiagoa den gizarte honetan.

Kulturan, bestalde, sistema ezberdinak daudela ikusiko dugu, sistema ezberdinen bitartez adierazten eta birsortzen baita gizataldea: siniskera-sistema, janzkera-sistema, ohitura-sistema, lan egiteko era, hizkera, etab. Kultura, hartara, azpisistema hauek guztiek osatzen dute. Baina guztiek ez dute hedapen berdina, eta batzuek besteek baino indar gehiago dute. Horietatik, hizkuntza bereziki aipagarria dela uste dugu, gure kasuan bederen. Izan ere, hizkuntza pentsamendurako tresna funtsezkoa izateaz gain, gizarteko praktika askoren euskarria da, gure bizitzaren arlo gehienetara zabaltzen baita. Argi dago hizkuntza ez dela sistema adierazle bakarra; baina hori bezain argi dago gainerako sistemak iristen ez diren egoeretaraino iristen dela bera. Gainera, bestelako sistemak bere baitan integratzeko ahalmena dauka, gauzak eta harremanak izendatzeko eta sailkatzeko duen gaitasunagatik. Horregatik, hizkuntzak gizatalde baten errealitatea indar bereziz moldatzen duela esan beharra dago, bere mugen eta baliabideen arabera burutzen baititugu geure bizitzaren gogoeta eta ekintza ugari. Jakina, gizarte eta garai bakoitzean sistema adierazle ezberdinak garatzen dira, eta pisu ezberdina hartzen dute gizataldearen birsorketan. Hizkuntza beti garrantzitsua izanik, beste sistema horiek ere garrantzi handia izan dezakete. Pentsa dezagun arteak zenbait une eta tokitan izan duen garrantzia, edota erlijioak beste batzuetan izan duena. Gurean arteak ez du garapen handiegirik izan historian zehar (bai ordea, Oteizak dioenez, historiaurrean), eta erlijioa ez dugu jarri bizitza kolektiborako araudi nagusi gisa. Baina hizkuntza garatu dugu, eta beste batzuen ezean, horixe dugu gure kulturan sistema-adierazle nagusi.

Kulturak gizataldeen izanerako eta birsorkuntzarako duen garrantziagatik, gizarteko botere orok menperatu

nahi izan duten eremu bat da. Ugazabak langileei, gizonetako emakumezkoari, nagusiak gazteei, kaletarrak baserritarrari, denok ezarri nahi diote beren kultura menpekoari; denok ukatzen diote menpekoari haren ahots propioa, berea emateko. Non gizarteko zapalketa, han kultur inposaketa. Inposaketa honen ondorioz, kultura batzuk «unibertsal» gisa aurkeztuko dira, beste batzuk «partikularrak» direla esaten den bitartean: batzuk «modernoak» izango dira, beste batzuk «tradizionalak» diren bitartean; batzuk benetako (maiuskuladun) «Kulturak» izango dira, beste batzuk «inkulturak» direnean. Adibide hauek, azken finean, asmo bat bera erakusten digute: gizartean menperatzaile diren sektoreek, menperatuei kultura propioa ukatzeko asmoa. Eta berdin erabiliko da euskal kulturaren gainean erdal kultura ezartzeko (euskal kultura, horrela, partikular, tradizional, edota landugabetzat joko da, kultura espainol edo anglosaxoi unibertsal, moderno, edo goimailakoaren aldean), zein burgesiak herri xeheari haren kultura ukatzeko (kultura herrikoa ere, partikular, tradizional, eta behe-mailakotzat joko da, «gustu» eta «Kultura» burgesaren aldean).

*K*ultura gizarte kapitalistetan

Esana dugu jadanik historian zehar izan diren klase menperatzaileek oro beren kultura ezarri nahi izan dietela menpekoei, haiena ukatuz. Horren bidez, errealitateari aurre egiteko beharrezkoak dituen tresnak kentzea lortu nahi izaten dute zapaltzaileek. Horretarako klase menperatzaileek erabiltzen duten bidea, honako hau izan ohi da: kultur boterea eskuratu. Alegia, kultura sortzeko eta hedatzeko baliabideak bereganatu, besteei ukatuz. Zehazkiago esateko, zapalkuntzazko errealitateari aurre egiteko tresnak dira zapalduari kentzen zaizkionak. Izan ere, beti uzten baitzaio askapenera barik zapalkuntza onartzera edota zapalkuntzak eragindako estuasunetik ihes egitera zuzentzen den kultura: hots, dibertsiora eta ihesbidera daraman kultura. Telebista, kasu, kultura sortzeko eta komunikaziora-

ko tresna izugarria izan litekeen tresna izanik, nahi beste ematen zaio zapalduari; baina lasaigarri gisa, eguneroko zapalketek sortzen duten oinazetiko ihesbide gisa. Ez jarre-
ra kritikoaz. Hori horrela eta ez bestela erabil dadin, mer-
katuko eta estatuko legeak daude.

Gaurko gure gizartean, klase menperatzaileek beren hegemoniari eusteko kulturaren egiten duten saio hau uler-
tu nahi badugu, gutxienez boteregune edo instituzio biri erreparatu behar diegu. Botere politikoa edo estatua, bate-
tik. Botere ekonomikoa edo kapitala, bestetik. Ikus deza-
gun nola jokatzeko duten batak eta besteak, oro har, kultu-
raren eremuan; eta geroago jokaera hori Euskal Herrian
nola gauzatzen den ikusiko dugu.

Estatua eta kultura

Estatu garaikideak kulturaren izan duen esku hartzea bi prozesu nagusik baldintzaturik egon dela esan dezakegu: estatu-nazioaren eraikuntza batetik, eta estatuko botere-
aren legitimazio etengabearen beharra bestetik.

Lehenengoari dagokionez, gogora dezagun merkatu bat osatzeko burgesiak duen premiatik sortzen dela estatu-
nazioa. Ereku geografiko bat hartu, mugatu, eta botere-
-egitura bat ezarri: horixe da merkatu bateratuak beharrez-
ko duena, estatu bat hain zuzen. Baina estatua eraiki dene-
ko eremu horretan, gizatalde bat baino gehiago bizi da,
geografia, ekonomia, historia, harreman, hizkuntza edota
kultura ezberdinak dituztelarik. Estatuari bateratasuna
emateko, beraz, beharrezkoa du burgesiak eremu horreta-
ko aniztasuna leuntzea, eta homogeneousaziora jotzea. Bes-
te hitzetan esanda, *estatu* izatetik *nazio* izatera igaro beha-
rra du burgesiak: nazioa osotasun natural bat bezala aur-
keztuko da, beste nazio batzuen aurrean. Gizatalde natural
gisa aurkezten den neurrian, nazio bakoitzari estatua da-
gokio; botere-egitura bat, beraz, eta merkatu bateratu bat.
Esan beharrik ez dago, nazioaren eraikuntza honetan kul-
turak berebiziko garrantzia duela, *nazio-kulturak* nazioaren
esentzia frogatzen duelako; eta horrexegatik, estatuaren
existentzia justifikatzen du. Estatuaren lehenengo helbu-

ruetako bat, nazio-kultura eraikitzea izango da, horretarako nazio berriaren identifikazio-erreferenteak, hizkuntza ofiziala, oroimen historiko nazionala, hezkuntz sistema, eta abar ezarriko dituelarik; eta nazio-kultura horretara sartzen ez dena —bestelako kultura eta hizkuntza guztiak— baztertu egingo du.

Lehenengo gertaera honi loturik, estatuaren boterearen legitimazio-beharra agertzen da. Estatua, izatez, indarrez eraikia eta indarraren monopolioan oinarritua da. Baina ez du beti aurpegi hori agertzen gizartean, eta kontsentsuaren ondorio gisa aurkezten du bere burua. Horren arabera, estatua gizaki guztien arteko hitzarmenetik datorrela esango da; guztion elkarbizitzarako beharrezkoa dugun antolamendu-era omen da. Legitimazio-asmo horretan kulturak duen lekua oso garrantzitsua da. Talde eta klase ezberdinen kulturak gaindituz, nazio-kultura eta sistemaren araberrako baloreak hedatuko ditu kultur politikaren bitartez (hezkuntz sistema, hedabideak, kultur sustapena, etab.), estatuko boterearen eta sistema kapitalistaren berraren baloreak gizakiei barneratuz.

Bi helburu hauek (nazioaren eraikuntza eta estatuaren legitimazioa) dituelarik, estatuak garrantzi handia emango dio kultur politikari. Mendebaldeko Europako estatuetan, bi muturren artean desplazatu da kultur politika. Lehenengo muturra, XVIII. mendetik zetorren ilustrazioa iturri zuena da. Honen arabera, kulturaren ulerkera elitista batetik, estatuak gizartearen kulturizatzaile eta hezitzaile izan behar zuen. Haren eginbeharra, beraz, herriaren kultur maila «igotzea» zen. Eginbehar hau, praktikan, herriaren kultura propioaren —herri-kulturaren— ukazioa bihurtzen zen gehienbat. Nazio-kultura, horrela, elite nazionalen kulturaren oinarritzen zen: jauntxoaren historia, literatura, artea, etab.

Baina mende honen bigarren erditik aurrera, Mendebaldeko Europako estatuaren kultur politika desplazatu egingo da. Kultura «ofizialetik» aparte beste kultura batzuk hedatzen eta nagusitzen ari dira kontrakulturako mugimenduak sortaraziz —kontrakultura kontzeptua modu zabal batean ulerturik—. Izan ere, estatuaren politikaren ondorioz

—bereziki hezkuntzaren zabalkundearen bidez— zein «masak, kontsumoaren bitartez, kulturaren agertu izana» dei genezakeenaren ondorioz gertaturiko kultur sorkuntza eta hedakuntzarako baliabideen garapenak, kontraesanak sortaraziko ditu gizarte kapitalistetan, batez ere herri-eskakizunek neurri batean aurrera egin duten garai batean. Kontraesan hauek direla medio, ordura arteko kultur politika ez da nahikoa izango sistema kapitalista onargarri gisa aurkezteko; 68ko Maiatza horren erakusle bihurtu zen. Horregatik guztiagatik, estatuen kultur politikak Ilustrazioaren idealak alde batera utzi, eta masa kulturari gero eta gehiago begiratu dio, klase herritarrak sisteman integratzeko modu berrien bila. Telebistaz duela hamar urte igortzen ziren deba-teak (*La Clave*, kasu) eta gaur egungoak (*Rifi-Rafe*) alderatzea besterik ez dago gertaera honetaz jabetzeko.

Bestalde, kulturgintzan gero eta presentzia gehiago izango duen kapital pribatuak dinamika berriak sortaraziko ditu, estatuak harekin lehiatzera behartuz. Lehia honetan kapitala garaile aterako da, hainbat fenomenok erakusten duten bezala: Europan hasieratik estatalak izan ziren ikus-entzunezko hedabideen pribatizazioa; kultur zerbitzu publikoen desarautzea; edota, marketinak bultzatuta, enpresa handien parte hartzea kulturgintzan (fundazioak, museoak, kirol taldeak, etab.). Horrela, Mendebaldeko Europako estatuen kultur politika EEBBetako eredura hurbilduko da.

Estatuen kultur politikan izaniko joera honetan, esan bezala, zeresan handia dauka kapital pribatuak kulturgintzan izan duen presentzia hazkorra. Gertaera hau etorkizunean bereziki garrantzitsua izango delakoan, apur bat gehiago sakontzeari egokia deritzogu.

Kulturaren industria

Gaur egungo kapitalismoan, kultur produktuen industria oso garrantzitsua da, eta garrantzi hori goraka doa. 1990eko hamarkadaren hasieran, industria honen salmentak 1,6 bilioi dolarreko kopurura iritsi ziren, munduko Industri Produkzioaren % 12ra hain zuzen. Datu honek, kulturaren industriaren garrantzia erakusten digu. Era berean,

beste datu hau ere ekarri behar dugu gogora: EEBBek esportatzen dituzten lehenengo produktuak, funtsean, kulturalak dira: *Micky Mouse*, *Madonna*, *Michael Jackson*, *McDonald's* hanburgesak, *Levis* prakak eta *Coca-Cola*. Nola gertatu da kulturaren industriaren eztanda, eta zein ondorio ditu gizartean?

Kulturaren industriaren garapenarekin batera, kultur produkzioak eta kontsumoak ezaugarri bereziak hartzen dituzte. Lehenagotik ere, sektore menperatzaile ezberdinek kulturaren sorkuntza eta hedakuntzarako egitura nagusien jabe ziren, hein handi batean: hezkuntz sistema, erlijioa, artea, ikerkuntza-sistemak, botere politikoaren egiturak, etab. Burgesiak erabili egingo ditu egitura hauek, bere hegemonia sendotzearen. Hala ere, kapitalismoan al-daketa nabarmenak izango dira kultur boterearen egituran. Batetik, sistema hauetariko batzuen garrantzia areagotu egingo da —heziketa formala eta zientzia, esate baterako— eta beste batzuen ahulduko —erlijioa edo tradiziozko instituzioak kasu—. Bestetik, zenbait prozesu direla medio (estatu garaikidearen ezaugarriei loturikoak, alfabetakuntza eta hezkuntzaren hedapena, teknologia berrien bilakaera, edota kapitalaren metaketa-modu berrien garapena), kultur sorkuntzaren eta hedakuntzaren modu berri bat agertuko da, XX. mendearen lehenengo herenetik aurrera indar handia harturik: kontsumorako ekoizten den kultura edo *kulturaren industria* alegia².

Kulturaren industriarekin batera, kontsumorako ondasun bihurtzen da kultura: liburua, egunkaria, irratsaioa, antzerkia, artelana, eta abar, kontsumo masifikaturako ekoiztuko diren produktuak izango dira. Gertaera hau, berez, ez du burgesiak ekarri. Baina dudarik ez da, industriaosteko kapitalismoak aurrera egin ahala, kontsumorako kulturaren industriak inoiz izan ez dituen dimentsioak hartzen dituela, eta kultur produktu hauek pertsonen egunerokotasunaren gero eta zati handiagoa beteko dutela; horrekin batera, gizakien kultur bizitzaren gero eta zati handiagoa hartuz.

XX. mendean zehar sistema kapitalistak herrialde «garatuenetan» bere birsorkuntza bermatu beharrez kontsumoaren hedapena bultzatzen duenean, kulturaren in-

dustriak ere hedapen nabarmena izango du. Jadanik oinarritzko premiak aseturik —metropolian, noski—, eta lanaldiaren murrizketak zein soldaten igoerak hala ahalbidetzen dutelarik, egunerokotasunaren espazio gero eta handiagoak beteko ditu kontsumoak. Nolabait esateko, kontsumoa lanaldiaren bestaldea bihurtuko da: zuzenean produzitzen ari ez garenean, kontsumitzen dugunaren produkzioa ari gara bultzatzen. Horrela, langileak «produkzioa-kontsumoa» gurpilari ematen dion bira bakoitzean, ugazabak etekina ateratzen du.

Kontsumo mota horretan, jakina, kulturaren kontsumoak leku berezia izango du. Izan ere, oinarritzko premia materialak mugatuak dira (elikadura, jantzia, espazio fisikoa, osasuna, etab.), une batetik aurrera beteta geratzen dira; baina kapitalaren diru-egarria asegaitza da. Berori asetzeko garaian, hartara, garrantzi handia hartuko du premia ez materialetan oinarrituriko kontsumo-produkzioak: premia afektiboak, estetikoak, ezagutzakoak, aisialdiak, irudimenekoak, eta abar luze bat. Hauek, premia materialak bezain oinarritzkoak ditu gizakiak; beroriek gabe ezin bizi daiteke. Baina, haiek ez bezala, ez dira hain erraz asetzen. Horrexegatik, besteak beste, bide horretatik abiatuko da kapitala, merkatu mugagabeen bila. Kulturaren merkatua, horrela, lehen mailako merkatu bilakatuko da burgesiarentzat. Eta hemen «kultura» kontzeptua bere esangura zabalenean hartu behar dugu. Esan nahi baita, «bereziki kulturaltzat» jo ditugun praktika eta objektuen industria dugu alde batetik, hots, kultur produktuen industria: hedabideak, artegintza, argitalgintza, ikurrak, etab. Bestela esanda, balio adierazle edo sinbolikoa duten produktuen industria. Eta bestetik, jatorriz balio adierazlea duten produktuekin batera, balio funtzionala duten produktuen alderdi adierazle edo sinbolikoak ere berebiziko garrantzia hartuko du, moda, estilo, *status*-adierazle, eta antzekoen bidez. Horrela, ez da nahikoa izango hotzari aurre egingo dioten praktikak produzitzea (urteetan bakarrak erosiko genituzkeelako, merkeak gainera), eta praken balio adierazlea bultzatuko da (prakak gure statusa, gure bizitza-estiloa edota gure izaera adierazteko erabiliko ditugu; ho-

rra praka bakeroen eta lihozkoen arteko aldea), kontsumoa dinamizatzearen. Gero eta gehiago, kontsumitzen ditugun produktuen balio funtzionalaren gainetik balio adierazlea jarriko da (publizitateak erakusten duen bezala: produktuaren berezko balioak azpimarratu beharrea, produktu horren kontsumoari loturiko irudia da azpimarratuko dena). Azken finean, kultura gizatalde baten adierazpidez definitu dugularik, kontsumorako produktuen *alderdi kulturala* bultzatuko dela esan dezakegu.

Kulturaren industria —eta kultur kontsumoa— hedatu ahala, gizakia gero eta gutxiago izango da kultur sortzailea, eta gero eta gehiago kultur kontsumitzailea. Ez du kultur sorkuntzaren kontrolik izango, eta bere erabaki-ahalmen bakarra «kontsumitu ala ez kontsumitu» hautaketara mugatuko da. Aldi berean, kultur sorkuntza eta hedakuntza baldintzatuko duen irizpide nagusia, kultur produktuaren errentagarritasuna izango da: errentagarritasun ekonomikoa —dirua irabaztearen ekoizten baita produktua— eta errentagarritasun ideologikoa —sistemaren premien arabera— . Hartara, kultur industriako produktuak gero eta gutxiago egokituko zaizkie gizaki ezberdinen premia eta errealitate konkretuei, beraien sorkuntza gizakien eskuetatik kanpora baitoa. Honen ondorioz, sistemaren araberrako kultura bat hedatzen den aldi berean, kultur homogeneizazioa eta estandarizazioa bultzatuko dira, merkatu zabalen bila.

Global Village delakoaren gezurra

Aipatu ditugun prozesuak oso ezberdinak izango lirarteke, kultura sortzeko eta hedatzeko baliabideak gizaki eta gizatalde guztien esku baleude. Hain zuzen ere, sistema kapitalistak kultura bere alde erabiltzeko daukan tresnarik sendoena komunikazio-sistemen gaineko kontrola da. Nola bait deskribatzeko, kapitalak gizaki arteko komunikazioa monopolizatzeke joera duela esan dezakegu. Alde batetik, kultur industriako produktuek gero eta esparru handiagoa betetzen dutelako gure bizitzan. Aisia kultur produktuen kontsumoaz betetzen dugu: hedabideak erabiliz (euskal herritarrok, batezbeste, bizpahiru ordu ematen ditugu

egunero telebista aurrean), zinera, antzerkira edo museora joanez, oporretan «turismo industrial» eginez, etab. Bestetik, esan dugun bezala, besteez harremanari gero eta gehiago egiten baitiugu aurre kontsumoaren bitartez: geure nor izatea, geure nortasuna, gero eta gehiago eraikitzen dugu kontsumitzen ditugun produktuen inguruan.

Gauzak horrela, argi da kultur produktuen sorkuntza eta hedakuntza kontrolatzen dituen, gizaki arteko komunikazio-bideak monopolizatzen ari dela, hein garrantzitsu batean.

Honi loturik, sistema kapitalistaren paradoxa bat aipatu beharra dago. Gaur egun, *Global Village* edo «Mundua Auzune» deitu izan den honetan bizi gara. Kontzeptu honek, planeta osoa komunikazio-sareen bidez loturik dagoela azaldu nahi du. Komunikaziorako teknologiaren zein telekomunikazioen garapenari esker, gaur egun mundua osoa komunikazioan jartzeko aukera teknikoa dago. Inoiz baino errezagoa da besteekin komunikatzea, munduaren beste muturrean daudelarik ere. Eta inoiz baino informazio gehiago jasotzen dugu edozeri buruz. Era berean, aurrerapen teknologikoari esker, edonor bihur daiteke igorle, irratia bat, telebista bat, edota aldizkari bat sortzea gauza sinplea eta merke samarra baita. Komunikaziorako aukeren hedapen izugarri honi deitu izan zaio «Global Village»: alegia, komunikazioaren teknologiari esker mundu osoa elkarrekin kontaktuan jartzea ahalbidetzen duen garapen-maila, zeinean aspaldiko herriska txikietako elkarbitzara itzultzen omen baikara.

Baina «Global Village» delako honen diskurtsoak dioenaren aurka, gaur egun jendea inoiz baino inkomunikatuago bizi da, herrialde «garatuenetan» bereziki. Eta hementxe dago paradoxa: komunikazioa sekula baino errezagoa delarik, gero eta komunikazio txikiagoa dago. Eta honen arrazoia garbia da: gero eta igorle gutxiago dago munduan, eta gero eta hartzaile gehiago. Masa «hedabideen» zabalkundeari begiratzen badiogu, lehen aipatu dugun monopolizazioaren gertaera oso nabaria da.

Adibide gisa datu soil batzuk emanez, esan dezagun ikus-entzunezko hedabideen eremuan EEBBn eta Japonia-

ren artean munduko merkatuaren % 62a kontrolatzen dutela, Europako Batasunak % 30a kontrolatzen duelarik. Zer esanik ez, kontrol hori enpresa gutxi baina erraldoiek kontzentratzen dutela; estimazio batzuen arabera, esaterako, jadanik EEBBetako kulturaren industriaren % 90a 15 talde erraldoiren esku dago. Informazioaren merkatuan, era berean, datuak nabarmenak dira: munduan zehar egunero ibiltzen diren informazioen % 80a lau agentziaren eskutik dator (AP eta UPI estatubatuarrak, France Presse, eta Reuter ingelesa). Antzeko kontzentrazioa eta monopolizazioa gertatzen da gainontzeko kultur produktuekin, eta azken hamarkadetan «unibertsalizazio» prozesuak biziki azkartu dira, gertaera ezberdinen ondorioz: informazioaren eta komunikazioaren berrikuntza teknologikoen garapena, finantz merkatuen hedapena, merkataritzaren hedapena —zeinak produktuen eta marketinaren estandarizazioa ekarri baitu— edota Estatuek gauzatu dituzten desarautze-prozesuak.

Kultur produktuen unibertsalizazio faltsu eta kontzentrazio-gertaera hauei, gainera, gizakien arteko komunikazioa oztopatzen duten bestelako gertaera batzuk ere gehitu behar zaizkie: adibidez, lan-erritmo eta modu berriak edota hiri-antolaketa-aren garapen konkretua zeinak eremu publikoak gero eta gehiago garraiorako eta merkataritzarako dedikatzen baititu, bestelako erabilerak baztertuz. Tabernetako giro-aldaketak ere horixe erakusten du: zenbait tokitan musika hain altu jartzen dute, ezen edan baino ezin baitaiteke egin; gehiago kontsumitzen da horrela, baina gutxiago komunikatu lagunekin.

Honek guztiak, esan bezala, gizaki arteko komunikazio-sareak hautsi eta horien ordeztu goitik beheerako egiturak ezartzea ekarri du. Kapitalak gizaki arteko komunikazio-bideak monopolizatzean, berauen kultura propioaren existentzia bera zapuzten da, gizabanakoak sakabanatuz eta erresistentziarako aukerak murriztuz. Adibide grafiko gisa, ezin egokiagoa da merkaturuekin gertaturikoa: lehenago azoka zena —merkataritza-gune baina, aldi berean, herri-tarren topagune, jairako aukera, eremu publiko, *plaza* azken finean—, gaur egun *hipermerkatu* bihurtu da. Azokan saltzailea-eroslea komunikazioa zegoen. Orain produktua-

-eroslea da harreman nagusia, publizitate, diseinu edo objektuen lekutzearen bidez burutzen dena. Produktuak «hitz egin» egiten digu, baina guk ezin hari erantzun. Sal-tzailearekin ere ez dugu hitzik egiten, kreditu-txartela ematera mugatzen gara (presaka gainera, ilaran dauden bezeroek bultzatuta).

Komunikazio-sareen eraldakuntzaren ondorioz, giza-banakoak kulturalki desegituratu eta sakabanatzen diren neurrian, izatez sozialak diren zenbait arazo (langabezia, lan-baldintzak, etab.) gero eta gehiago arazo pertsonal eta pribatutzat hartzeko joera dago, erresistentziarako aukerak murriztuz, eta banakokeria —nork berearen aldeko jokae-ra— hedatuz³. Zenbait ikerlarik dioten bezala, gizarteko kontraesanak, antagonismoan isladatzetik, anomian isladatzera pasatzen ari dira. Hots, gizataldeen arteko harreman desorekatuaren ondorioa dena, norberak gizartean integratzeko duen zailtasun gisa bizitzen da. Izan ere, arazoak dagozkien lekuan kokatzeko, eta benetako irtenbideak bilatzeko, ezinbestekoa da elkarrekiko topaketa: gizakiok elkar har eta elkar ezagut dezagun ahalbidetuko diguten egiturak sendotzea alegia. Egitura horiek amankomuneko ikurrak, mintzaira, ohiturak, komunikazio-sareak eta, azken funtsean, kultura dira.

Euskal Herriaren kultura, zapalduetako kultura

Euskal Herria ez dago egungo gizarte kapitalistetako kultur dinamikatik kanpo. Zehazkiago, hemen ere estatuak beren burua birsortzeko darabilte kultur politika, eta kulturaren industriaren presentzia nabarmena da, jadanik aipatu ditugun ondorioekin. Komenigarria da, halabaina, Euskal Herrian ondorio horiez gain gertatzen diren beste gertaera batzuk ekartzea gogora. Hain zuzen ere, gutxiengotutako nazioa izateari dagozkionak.

Laburki esanda, historian zehar euskal herriak politikoki eta ekonomikoki jasan duen menpekotasunak euskal kulturaren gutxiengotzea ekarri du. Batetik, kanpoko aginta-

riek baztertu egiten zuten euskal kultura, berea ezarriz. Bes-tetik, bertoko jauntxoek, beren botere-apurak mantentzea-
ren, Koroaren aldera jotzeko joera izan dute historian ze-
har, horrek ere euskal kulturaren zokoratzea ekarri duela-
rik. Euskararen historiak oso garbiki erakusten digu hori. Ho-
nen guztiaren ondorioz, mendeetan zehar hizkuntz orde-
zkapen-prozesuek aurrera egin dute, euskara geografikoki eta
sozialki eremuak galduz etorri delarik. Eta euskararekin ba-
tera, euskal kulturaren zenbait osagai ere. Horrela, azken
mendeetan bederen eta gure egunetaraino, euskal kultura
batez ere herri-kultura izan dela esan dezakegu: inoiz kultu-
ra hegemonikoa izatera iritsi ez den kultura alegia.

Estatu-nazioen eraikuntzak gutxiengotze prozesua az-
kartu egiten du. Frantziako Iraultza burgesaren ondoren,
legedi berriak euskara (frantsesa ez diren gainontzeko hiz-
kuntzekin batera) baztertzen du, eta ezarriko den hez-
kuntz sistema «nazionalak» frantsesetasuna hedatzea izan-
go du helburu nagusietako bat. Estatu Espainolean antzera
gertatuko da, eta euskal kulturak itxita izango ditu gara-
pen-bideak, euskal herriak botere politikorik eduki ezean.
Kultur eta hizkuntz ordezkapenak, horrela, areagotu egin-
go dira gizarte garaikidea garatu ahala, eta fisikoki bortitza
izatera ere iritsiko da frankismoaren garaian.

Bitartean, euskal jauntxoek jokaera bi muturren artean
ibiliko da: lehenago bezala euskal kultura baztertzea, esta-
tu sortu berriekiko harremanek errenta handiagoa uzten
zietelako; eta euskal kulturaren defentsa apala egitea, no-
labait menperakuntzarako eremu propioa eraiki asmoz
(burgesia nazionalistaren zati baten kasua). Esan beharrik
ez dago, lehenengo joera nagusia izan dela, bigarrena
gogora ekarri behar den arren.

Estatu Espainol zein Frantsesek euskal kulturarekin
izan duten eta duten jokaeraz, asko eta ondo hitz egin da.
Beraz, ez dugu hori dena hemen errepikatu beharrik. Gu-
txiago aipatu da, ordea, kulturaren industriak euskal kul-
turaren egoeran duen eragina, eta hori aipatzera goaz hu-
rrengo lerroetan.

Beste edozein gizarte «garatutan» bezalaxe, euskal gi-
zartean ere kulturaren industriak presentzia nabarmena

dauka. Industria honen ezaugarriak eta eragiten dituzten ondorioak ere, antzekoak direla esan dezakegu. Kontzentrazioari dagokionez, adibide gisa, esan daiteke Hego Euskal Herrian egunero irakurtzen den prentsaren erdia, modu batera edo bestera, BBVri loturik dagoela. Telebista-kate pribatuetan ere, banketxeen eta Europako enpresa multi-medien kapitalen presentzia handia da, erdia baino handiagoa. Eta antzera gertatzen da argitalgintzan, publizitategintzan, eta gainontzeko sektoreetan.

Euskal herria nazio gutxiengotua izaki, kulturaren industriarako aipatu ditugun joerek eragin berezia dute hemen. Gure kulturaren industria erabat menpekoa dela esan daiteke.

Euskal Herriko kulturaren merkatuan aurki daitezkeen produktuetatik bertan sorturikoak gutxiengo bat izateari, beste honako gertaera hau gehitu behar diogu: euskarazko ekoizpena, gutxiengo horren gutxiengoa dela. Adibide gisa, eta azterketa orohartzailea egiteko batere asmorik gabe, honako datu hauek aipa ditzakegu: telebistari dagokionez, Hego Euskal Herrian hedatzen diren 7 kateetatik bakarra da euskarazkoa, igorketa orduen % 10a osatzen duelarik (Euskal Herri osoa hartzen badugu, esan dezagun 12 kate direla erdarazkoak, euskarazko orduak % 6ra jaisten direlarik; honi, gaur egun satellite bidez har daitezkeenak gehituz gero, euskarazko eskaintzaren pisua ia desagertu egiten da; eta zer esanik ez laster batean martxan jartzekoa den kable bidezkoa kontuan hartzen bada). Irratigintzaren arloan, 55 irratitatik 7 dira euskara hutsez aritzen direnak, beste gutxi batzuk euskaraz eta erdaraz aritzen direlarik. Prentsa idatzian, bertan ekoizten diren 8 egunkarietatik bakarra da euskarazkoa. Zinemagintzan, euskaraz eskaintzen diren filmeak hutsaren hurrena dira. Bideogintza komertzial eta hezkuntzazkoan, zertxobait gehiago aurki daiteke. Publizitategintzari dagokionez, bertan egiten den inbertsioaren % 4a baino ez da egiten euskarazko iragarkietarako. Liburugintzan, bertan argitaratzen diren liburuak Estatu Espainolean argitaratutakoen % 4,7 soila izaki, honen erdia baino apur bat gutxiago da euskaraz argitaratzen dena (% 46a). Diskagintzari buruz ere, azkenik, antzeko

datuak ditugu: gutxi gora-behera, Hego Euskal Herrian argitaraturikoen erdia dira euskarazkoak. Ikus daitekeenez, euskaraz eginiko kultura oso marjinala da kulturaren industriaren barnean.

ℵkultura askatzailea

Orain arte esandakoaren arabera, kultura eremu estrategikoa da gizatalde ezberdinak askatasunean bizi daitezzen. Kultura propioa izateak, besteekiko harremanari bere baitatik aurre egitea ahalbidetzen die gizakiei. Gaur egungo sistema kapitalistak bere birsorkuntzan kulturaren eta komunikazioaren monopolizazioa hain oinarrizkoa izaki, begi-bistakoa dugu sistema hori eraldatzeko kultura eta komunikazio-eremu propioak garatzearen garrantzia. Talde-kultura izateak, gizakien arteko elkartasuna sortzea ahalbidetzen du. Kultura propiorik gabe —hots, elkarkidetasunik eta errealitateari aurre egiteko modu amankomunik gabe—, elkartasunerako aukerarik ez dago. Historiak, bestalde, argi asko utzi du zapalkuntzaren egoera objektiboak ez duela, berez, subjektu politikorik sortarazten; kultur faktoreak lehen mailakoak dira horretarako.

Marxek berak langilegoari aplikatzen zion printzipio hori, «bere baitango klasea» izatetik «bere baitarako klasea» izatera igaro beharra aldarrikatzen zuenean. Eskema bera harturik, menpeko orok bere kultur espazio propioa eraiki beharra du, baldin eta menpekotasunetik askatu nahi badu. Emakumezkoak berena eraiki beharrean daude, gizonezkoek ezarritako menpekotasunetik askatu ahal izateko. Berdin gazteak nagusien menpekotasunetik irteteko, baserritarrak hiritarrenari aurre egiteko, eta euskaldunak ezarri zaizkion estatuen menpekotasunetik irteteko. Kulturaren eremuan, beraz, honako helmuga honetara iritsi behar dugu: gizatalde ezberdinek (txikienetatik hasita herri-nazioraino), beren espazio propioa eraiki ahal izan dezaten. Kultur espazio propioak irabaztea, askatasun-eremuak irabaztea da. Espetxean erabateko kontrolpean zegoela, «euskara da gure territorio libre bakarra» idatzi zuen Jose-

ba Sarrionandiak. Horrelako lurralde askeak lortzea dugu, beraz, kultura askatzailearen helburu nagusia.

Helburu horretara hurbiltzeko, bereziki gaur egun euskal herriak bezala herri sektore ezberdinek beren kultura propioa eraiki dezaten oztopatzen duten faktoreei egin behar diegu aurre. Hau diogunean, ez da gure asmoa sektore bakoitzaren edota euskal herriaren kulturak nolakoak izan behar duten eta zein eduki izan behar dituzten definitzea. Aitzitik, sektore horiek eta, oro har, herri honek bere kultura sortzeko, birsortzeko eta hedatzeko dituen baliabideei begiratu behar diegu. Beraz, gizartearen antolamendu politikoa benetako demokrazia aldarrikatzen dugun bezalaxe, edota antolamendu ekonomikoan langileen burujabetza bilatzen dugun bezalaxe, kulturaren ere kultur demokrazia eraiki beharrean gaude.

Kultur demokrazia

Kultur demokrazia mintzatzean, gizaki eta gizatalde guztiei beren kultur osagai propioak sortzeko, erabiltzeko eta adierazteko zor zaien eskubideaz ari gara mintzatzen. Eskubide hori bermatuko duen sistema izango da kultur demokrazia. Baina eskubide hori bermatzerik ez dago, berori gauzatzea ahalbidetuko duten gizarteko egiturak horretarako prest ez badaude. Lanerako eskubidea paperean soilik bermatzen ez den bezalaxe, kultura propiorako eskubidea ere errealitatean bermatu behar da.

Nola bermatu behar dugu kultur demokrazia? Haste-ko, jadanik aipatuak ditugu egun eskubide hori burutzea ezinezkoa bihurtzen duten instituzio nagusi bi: Estatuak eta kapitala. Instituzio bi hauek, kultur sorkuntzarako eta zabalkuntzarako baliabide nagusiak beren esku dituztelarik, monopolizatu egiten dute, neurri handi batean, kulturgingintza. Horrela, Estatuak gutxienez honako eremuotan ezartzen du bere monopolioa: legedian (esaterako, hizkuntza ofiziala ezarriz, edota kultur praktikak —adibidez, telebis- tagintza— arautuz); irakaskuntzan (sektore dirudun zenbaitekin batera); eskala handiko hedabideetan (komunikazio-sare erraldoiak izan litezkeenak, hedapen-tresna zentra-

lizatuak bihurturik); kultur politikan; eta abar luze batean. Era berean, kapitalak ere bere monopolioak ditu: Estatua- rekin batera irakaskuntza pribatuko edota hedabideetako oligopolioaz gain, kulturaren industrian duen nagusitasu- na. Horrela, errentagarritasun ekonomikoa eta ideologikoa kultur sorkuntzarako eta zabalkuntzarako irizpide nagu- siak izaki, homogeneizazioa eta gutxiengoen bazterrera- tzea bultzatzen da, gizatalde ezberdinen nortasuna ezaba- tuz, eta monopolioen kulturaren menpe jarritz.

Nola definitu euskal kultura?

Euskal gizarteko sektore eta talde guztiek bezalaxe, euskal herriak berak, gizatalde bezala, bere kultur espazio propioa eraikitzeko ahalmena izan dezan bermatu behar dugu. Herri bezala ere zapalduarik gaudelako —geure hiz- kuntza, historia, elkartasun, burujabetasun, nortasun, eta abar luze batean zapalduarik—, kultur espazio propioa iza- teko eskubidea ezezik, premia ere badaukagu. Espazio pro- pio hori, ez bairik gabe, euskal kultura izango da. Nekez ja- rriko da zalantzan, euskal herrirako nazio-proiektua gauza- tzerik ez dagoela, kultura propiorik gabe. Bere burua eza- gutzea, eta besteengandik bereiztea ahalbidetuko duen kultura propiorik gabe. Eta kultura propioa, euskal kultura da.

Berau definitzean, ordea, irizpide ezberdinak erabil li- tezke. Besteak beste, honako irizpide hauek aipa genitzake: a) historia eta tradizioa; b) politika eta lurraldetasuna; c) bo- rondatea; eta d) hizkuntza.

a) *Historia eta tradizioa*. Irizpide honen arabera, euskal kultura historian zehar osatu eta iraun duen euskal kultu- ra dugu. Irizpide honek, gaur egungo euskal kultura defi- nitzeko, arazo nabarmenak planteatzen ditu. Izan ere, nahiz eta zenbait kultur osagai euskal kulturakoak direla esateko baliagarria zaigun, gure gizarteak bizi duen bilakae- ra arina eta kultur eredu berrien sorrera eta etorrera direla medio, irizpide hau nagusitzat hartzeak zeharo mugatuko luke euskal kulturaren kontzeptua, geroari begirako proiektu bat erabat oztopatu arte.

b) *Politika eta lurraldetasuna*. Honen arabera, Euskal Herriaren muga politikoen barnean egiten den kultura litzateke euskal kultura: muga horien barnean batera bizi diren osagai eta eredu ezberdinek osatuko lukete. Formulazio honek, baina, arazo handiak planteatzen ditu. Nola lortu, Euskal Herriko gaztelerazko eta frantseseko kulturak, kultura espainolaren eta kultura frantsesaren luzapen bihur ez daitezen, eta euskarazko kultura ito ez dezaten? «Erdarazko euskal kultura» Euskal Herrian dagoen erdal kultura izan ez ledin, Estatu sendo bat beharko litzateke, Euskal Herriaren eta alboko herrialdeen arteko mugak, kulturaren ere, trinkoki nabarmenduko lituzkeen Estatu hain zuzen. Eta hori, egun bizi garen testuinguruan —non estatuen muga politiko eta ekonomikoak ahultzen ari baitira—, zaila litzateke. Bestetik, Estatuaren eskuhartze handia suposatuko luke, horrek kultur demokraziaren garapenerako dakartzan oztopoekin.

Bestalde, formulazio honen aurrean beste galdera hau egin beharrez gaude: geografiaren edota Estatuaren arabera definituriko euskal kulturak, herri honek kulturaren behar duen espazio propioa osatuko ote luke? Ez ote legoke, kasurik hoberenean, batasun politiko bakar baten azpian hiru kultur komunitate ezberdin finkatzeko arriskua, horietatik ahulena, euskarazko komunitatea litzatekeelarik? Gaurko errealitatea arras argigarria da zentzu horretan: bi —edo hiru— komunitate elkarbizi gaitzkeela diotenek, ahaztu egiten dute «hirugarren komunitateko kideok», euskaldunok alegia, beste komunitate batekoak ere bagarela, hala beharrez. Areago, erdaldun ere ez bagina, nekez bizi izango ginateke hemen. Beraz, «hiru komunitateak» aipatzen direnean, «bi komunitate oso» eta «komunitate herren» bat direla gogoratu beharra dago (berdin antzera gertatzen da «mestizajearen» auziarekin: berori aldarrikatzen dutenek gogoratu beharko lukete euskaldunok jadanik mestizoak gabela; erdaldun hutsak, ordea, ez).

c) *Borondatea*. Irizpide honen arabera, euskal kultura euskal herritarrek hala definitzen duten kultura izango da. Formulazio honek, garrantzi handiko osagaia azpimarratzen du: euskal herriaren borondaterik gabe, ez dago eus-

kal kulturarik. Halabaina, kulturak, osagai subjektiboez gain, oinarri objektiboak ere baditu, eta ez dago pentsatzerik une orotan euskal herritarrak beren kultura zer den eta zer ez den definitzen ibiliko direnik. Beraz, kontuan hartzeko faktorea den arren, euskal kultura definitzeko berrondatea eznahikoa dela uste dugu.

d) *Hizkuntza*. Euskal kultura, bereziki euskararen inguruan antolatzen den kultura da. Formulazio hau, euskal kulturako tradizioari lotzen zaio: euskal herria, euskardun herria da. Herri hau, historia anitza duten herrialdeek osatua, inoiz batasun politikorik osatu gabea, bereziki etniazko osagaien eta hizkuntzaren arabera definitu izan da mendeetan zehar. Bestalde, hizkuntza hedakorra da: geografia osora ezezik, norbanakoaren zein gizarteko bizitzaren arlo gehienetara heda daiteke. Horrela, bestelako ezberdintasunen gainetik, euskarak herrikide egiten ditu hiztun guztiak, euskal herri osorako kultur espazio propioa eraikitzea ahalbidetuz. Hizkuntza bizitzaren arlo gehienetan agertzen den kultur adierazpena izateak, bestalde, beste kultura batzuetatik datozen kultur osagaiak geureganatzea ahalbidetzen digu. Kanpotik datozenak euskararen bidez euskal kulturara barneratuz, euskaldunen espazio propioa sendotzen dugu.

Planteamendu hau egitean, ordea, ezin ahaztu egun bizi dugun errealitatea: historian zeharreko gora-beherek, euskararen eremu geografikoa eta gizartekoa zeharo murriztu dute. Horrela, Euskal Herriko zenbait eskualdetan euskara ez da, mende askotan zehar, hizkuntza propioa izan. Gertaera honi mende honetako biztanle-mugimenduak gehitzen badizkiogu, denok ezagutzen dugun errealitatea agertzen da: euskal herritarren heren bat baino ez da euskalduna. Errealitate honek, euskararen berreskurapena lehen mailako helburutzat jotzera eramane behar gaitu, Euskal Herrian nazio-proiekturik gauzatu nahi badugu berederen.

Honaino esandakoa laburbilduz, beraz, honako hau esan dezakegu: gizarte-asmo berri batean, norbanako eta gizarteko subjektu ezberdinek beren nortasuna eta beren espazio propioak eraikitzea ahalbidetu eta bultzatu behar

du kulturak. Gizartearen maila txikienetatik, handienetaraino, hots, euskal herriaren mailaraino. Hori lortzeko, kultur demokraziaren planteamendua mahaigaineratu dugu: alegia, norbanako eta gizarteko subjektu guztiei beren kultur osagai propioak sortzeko, erabiltzeko, eta adierazteko zor zaien eskubidea bermatuko duen antolamendu era. Azkenik, euskal herriak herri bezala ezinbesteko duen espazio propioan, euskarak eta euskal kulturak izango duten garrantzia azpimarratu dugu.

Puntu honetan, baina, kontraesana sor daiteke. Euskal Herriko populazioaren gehiengoa euskalduna ez izaki, egun herri honetan egiten den kulturaren zati handi bat, objektiboki, euskal kulturaren ukazioaren birsortzailtzat har daiteke. Aldi berean, euskara euskal herriaren osagai bateratzailtzat proposatzea, kultur inposaketa gisa har liteke euskaldunak ez diren zenbait sektoretan. Nola bateratu, hartara, euskal gizartearen sektore guztiei beren kultura garatzeko zor zaien eskubidea, eta euskal herri gisa garatzea ahalbidetuko digun euskal kulturaren berreskurapena?

Dударик gabe, euskal herriarentzako nazio-proiektu batek hementxe du erronkarik handienetako bat. Galdera hauetarako erantzutea ez baita erraza, eta teoriaraino baino gehiago praktikan eman beharko da. Hala ere, ideia batzuk aurrera daitezkeelakoan gaude. Batetik, herri-proiektu batean sinesten badugu, kulturaren ere herri-proiektua izan beharko du. Esan nahi baita, kultur inposaketak gizarteko inposaketak dira: klase edo sektore batzuk besteen gainean egoatea ahalbidetzen duen botere-egituraketa baten ondorioak beraz. Gizarte-eredu berrian era honetako botere-egituraketa deuseztatzen ditugun neurrian, kultur inposaketa (euskal kultura gaineratiko adierazpide guztiei inposatzea, zein alderantziz) ekiditen dugu.

Bestetik, euskal kulturak eta euskarak duten potentzialtasuna landu eta sendotu beharra dago. Egungo Euskal Herriko herri kulturgintzari begiratzen badiogu, euskararen inguruko herri-mugimendua bizienetakoa dela ageri zaigu. Duen balio historiko, sinboliko eta pragmatikoa dela medio, euskara kulturgintzaren ardatz garrantzitsuenetako bat da gaur egungo Euskal Herrian. Eta are handiagoa

izan liteke, horrenbeste muga jarriko ez balitzaizkio. Euskal gizarteak (euskaldunak zein erdaldunak) euskararekiko duen atxikimendua; euskararen berreskurapenaren aldeko mugimenduak jendea mobilizatzeko duen ahalmena; mugimendu honek hamarkada luzetan zehar metatutako esperientziak eta gauzatzeak; proposamenak egiteko duen gaitasuna. Hauek guztiak oso kontuan hartzeko faktoreak ditugu euskarak aipatu dugun bezalako eremu batean izan dezakeen presentzia aurreikusteko. Azken funtsean, euskara eta euskal kultura bera, orain artean, beste ezeren gainetik herri-kultura izan baitira, hots, gehienbat klase menperatuen kultura. Biharko gizarteari begira, beraz, hortxe ikusi behar dugu bere potentzialtasuna: herri-kultura hedakor eta sendoa izaki, gaineratiko herri-kulturen erreferentzia eta bateratzaile gisa izan lezakeen ahalmenean hain zuzen. Esan bezala, erronka handia da, eta praktikan erantzun beharko zaio. Abiapuntua, hartara, praktikak berak jarrita dagoela uste dugu.

Kultur politikaren beharra

Batzuen iritziz, «kultur politikarik onena existitzen ez dena da», kultura eta politika ondoegi ezkontzen ez diren terminoak direlakoan. Hala ere, gaur egun bizi dugun errealitatea hartu behar dugu kontuan. Ikusi dugun bezala, kultura sortzeko eta zabaltzeko bideak behar dira. Eta gaur egun oso bide eraginkorrak daude, baina gutxi batzuen esku. Galdera, hartara, erraza da: utz ote lezake herri batek edota gizatalde batek bere oroimen historikoaren, bere nortasunaren eta bere ezagutzen multzoaren kudeaketa talde ekonomiko boteretsu batzuen esku? Ala berak hartu behar du beretzat zeregin hori?

Bigarren aukerari eutsiz gero, bere kulturaren jabe izan dadin baliabideak behar ditu herri honek. Eta gaur egungo baldintzetan, horrek *kultur politikaren* beharra suposatzen du: administrazioaren eskuhartzearen beharra hain zuzen. Honek ez du esan nahi estatuak kulturaren sortzaile eta arduradun izan behar duenik. Izan ere, faltsua bada merkatuak gizartea protagonista bihurtzen duela, es-

tatuak gizartea ordezkatzeko duela ere faltsua da. Administrazioaren helburuak *gizartea kulturaren subjektu* izan dadin behar du. Beraz, filosofia nagusi gisa zera erabili beharko luke: ahalik eta gutxien parte hartu kulturaren sorkuntzan, eta ahalik eta gehien babestu eta bultzatu herriaren eta gizartearen protagonismoa. Honek esan nahi du herrian sortzen diren ekimenen aurrean, administrazioak bere burua erretiratu beharra daukala. Eta administrazioaren behe-mailetan (udaletxeetan, esaterako) egin daitekeena, ez dezala egin erakunde goren batek. Baina herri osoa bere itzalean hartzen duten ekimenean (esaterako hizkuntz politikari, legediari edo azpiegitura handiei dagokienez), ezinbestekoa izango da erakunde gorenaren partaidetza.

Herria protagonista bihurtzeko helburu honekin, eta nazio-proiektu batean sinesten badugu, administrazioarentzat lehen mailako lan-ardatza izan behar du euskal kulturaren garapenak. Euskal herrirako kultur espazio propioa garatu nahi badugu, euskal kultura garatu behar dugu. Eta, lehenago esan dugun bezala, honek euskararen berreskurapenaren aldeko apustu ezin argiagoa eskatzen du, gaur eta hemen.

Era berean, inolako kultur politikarik ezin izango da aurrera atera, gaur egun hain erabakior gertatzen den kulturaren industriari mugak jartzen ez bazaizkio. Alferrik da euskalduntzearen alde halakoak eta bi egitea edota gizarteari kultur baliabideak eskaintzea, baldin kulturaren industriak horien aurkako joerak nagusiarazten baditu. Jadanik esana dugu kulturgintzaren inguruan estatuen eta botere ekonomikoen arteko lehian, bigarrenak nagusitu zirela. Eta joera hau hazkorra da. Kulturaren industria handiari mugak jartze honetan oso nabarmen agertzen da administrazioaren beharra, kulturgintzaren merkaturak nolabaiteko arauketa ezarri (hizkuntz kuotak, esaterako). Eta hau diogunean, ez dugu ez estatuen beharra gorapatzen, ez eta ezer berririk aurkezten: GATT izeneko akordioetan kulturaren esparruan jarritako mugak, esaterako, hor daude lehendik.

Horrekin guztiarekin batera, kultur politika batek duten garrantzia eman behar die azpiegiturei. Inongo udalak

ez du zertan antzerki-talderik sortu behar; hori lagun batzuek sortuko dute, sortzen bada. Baina administrazioak antzokia eskaini beharko luke, hori edozein talderen ahalmenetik haruntzago baitago. Eta antzokiak dauden neurrian, antzerki-taldeak sortuko dira. Administrazioak, hartara, zuzenean parte hartu barik, gizarteak eskatzen dituen azpiegiturak sortu behar ditu, herriak libreki balia ditzan. Hau da, Guggenheim Museoa ez bezala. Azpiegitura hau, administrazioak egin beharko ez lukeen adibide ezin argiagoa da. Batetik, baliabide ekonomikoak leku bakar batean zentralizatzen dituelako, gainerako ekimenetarako urte askotako errekursoak hipotekatuz. Bestetik, herria kulturaren subjektu bihurtu beharrean, artearen merkatura dedikatzen den enpresa estatubatuar baten *bezero* bihurtzen baitu. Kasurik hoberenean, enpresa horrek —edota hemengo sukurtsalak— aukeratutako kultur produktu batzuen kontsumitzaile pasibo bihur gintezke; baina ezer gutxi lagunduko digu gizabanako bezala kultur sortzaile bihurtzen, ez eta herri bezala geure kultura zabaltzen eta garatzen. Hain zuzen ere, proiektu hau gauzatzean ez baitzaio begiratu kulturak gizartearen garapenean *berez* duen ahalmenari, eta garapen ekonomikorako tresna huts gisa hartua izan da. Kultur politika batek, ordea, oinarrian eduki beharko luke *kulturaren berezko balioa, gizarte zuzenago baten bidean.* ¶

1. Artikulu honen egile gisa izen ugari agertu beharko lirateke baten lekuan, Herri Batasunako lantalde batean sorturiko burutazioek osatua baita berau. Bestalde, ez du ezeren «jarrera ofizialik» agertzen.
2. Kulturaren industria terminoaren bidez, honako hau izendatu ohi da: «Edukin sinbolikoa duten merkantziak ekoizten dituzten adar, sail eta jardueren multzoa, lan sortzaile baten bidez sortuak, balorizatzen den kapital batek antolatuak, eta kontsumoko merkatuetara bideratuak, erreprodukzio ideologiko eta sozialeko funtzioarekin». Bertan sartzen diren jarduerak, honako hauek izaten dira: edizioaren eremuan liburugintza, zinemagintza eta diskagintza; komunikabideen eremuan prentsa, irratigintza eta telebistagintza; publizitategintza; informazioaren teknologia berriei loturikoak, kontsumo sozialaren —ez industrialaren— aldetik (bideo-tex, tele-testua, datu-baseak, etab.); eta gero eta indar handiagoa hartzen ari diren beste industria batzuk (diseinu industrial, bideogintza, etab.). Ohizko adar hauei, orain arte kontzeptu honetatik kanpo egon diren baina, kapital handiaren sartzearekin batera, kultur industriaren gero eta menpekoago bihurtzen ari diren beselako jarduera batzuk gehitu beharko genizkieke: zuzeneko musika-kontzertuak, artegintzaren zati bat (bereziki museogintza, edota fundazioek bultzaturiko antzerkigintza, dantzagintza, etab.). Kulturaren industrietatik kanpora geratuko lirateke, beraz, artisautza, artegintzaren zati bat, eta oro har errentabilizazio-logikarik gabeko kulturagintza (ikus ZALLO, R., 1990: «Joera ekonomiko berriak kultura industrializatuan». *Jakin* 59. zkia. 107-147.).
3. Gertaera hau ez da berria, eta emakumeen historiak antzeko zerbait erakusten digu: kultura askotan, emakumezkoen eremua etxea eta familia izan dira, eta haien arteko elkargunerik apenas eduki dute. Sakabanaketa honen ondorioz, mendeetan zehar beren elkartasunerako —beraz, askapenerako— aukerarik ez dute izan, eta beraien zapalkuntza zapalketa *pribatutzat* hartu izan da (etxeokonde bakoitzak bere gizonarekin zeukan harreman konkretuaren ondorioa), zapalkuntza *sozialtzat* hartu beharrean. Horregatik ere, emakumeen erantzuna eta erresistentzia, sarritan, pribatuak izan dira: zapalketaren zama bere gain hartu, eta ahal den neurrian egoerara moldatu, moldakuntza horren bidez egoeratik etekin apurra ateratzeko (egonkortasun afektibo eta material gutxieneko bat, edota gizonaren onarpen-keinua).

Europa batuaren ildoan, euskal nazionalismoa bidegurutzean

*

J U L E N Z A B A L O

*

europako Batasuna garapen urteak ezagutzen ari da 90eko hamarkadan eta, giro honetan, zokoraturik zegoen batasun politikoaren gaia berriro plazaratu da, aurreko urteotan ia ardura bakarra izana zen helburu ekonomikoa itzali gabe horregatik. Helburu politikoa presente egon zen II. Mundu Gerraren ostean proposatu ziren batasun saio guztietan eta horrela izan zen ere EB osatuko zuten erakundeetan. Hala ere, bere ondorengo ibilbidean EBk nahiko eduki zuen iraute hutsarekin, hainbeste izan baitziren aurkitu zituen oztupoak. Noizean behin batasun politikoa-ri aipamena egiten zitzaion arren, gai hau bazterturik geratu zen, 80ko hamarkadan apurka-apurka berpizten hasi arte. Baina Batasunerantzako urratsak eman ahala, handigurratsuagoak bihurtu izan dira adierazpenak eta agiriak, eta gero eta idealizatuago aurkeztu izan da etorkizuneko batasun politikoa. Honetan guztian, dudarik ez, Erdi eta Eki Europako estatuetan gertaturiko aldaketek eta Gerra Hotzaren amaierak eragin dute, ez bakarrik Europa banatzen zueneko lerroa ezabatu delako, baizik eta banaketa horren arrazoietakoa nagusia desagertzean, sozialismo-kapitalismo eztabaida ideologikoa alegia, iraganeko gaitz guztien konponbide izango den Europa batuaren mezu idealizatuari ekin ahal izan zaiolako.

▮ Julen Zabalo, Geografian doktorea, *Europako (zein) Batasuna* liburuaren egilea da. Valentziako espetxean preso dago.

Giro honek kutsaturik, estaturik gabeko nazionalismoek beren ekarpenak gaineratu dizkiote gaiari, Europak egituraketa politiko berria hartu behar duela argudiatzen bada, mugimendu nazionalista hauek proposamen deszentralizatzailea egin nahi dute eta. Mugimendu hauen artean, Euskal Herrikoan berebiziko eragina eduki du gai honek, halako moldez non kasu batzuetan, etorkizunari begirako funtsezko erreferentzia puntua jotzen baita Europaren egituraketa politiko berria.

Izan ere, estatu independentearen osagarri gisa batzuetan edo haren ordezkoko modura ulertua besteetan, supraegitura politikotan integartzeko joera aspaldikoa da Euskal Herrian. XIX. mendean zehar, eta federalisten eraginez gehienbat, oihartzun handia eduki zuen Iberiako Federazioa eraikitzeko proiektuak. Ideologia guztietako nazionalistek (liberalak, kontserbadoreak, ezkerrekoak) eutsi zioten asmo honi XX. mendeko hasierako lau hamarkadetan, baina II. Mundu Gerraren ostean batik bat, proiektu zaharra ere zen Europako batasunak ordezkatu zuen hura eta gaur arte heldu zaigu joera hau (ik. Zabalo, 1994). Batasun hau, ordea, era desberdinez ulertzen dute batzuek eta besteek eta horretaz eta oraingo Europako Batasunetik euskal alderdi nazionalistek itxaron dezaketenez arituko naiz idatzi honetan.

Alderdi abertzaleak, Europa batua eta oraingo Europako Batasuna

Europa batuaren alde alderdi nazionalista guztiak daude Euskal Herrian. Izatez, II. Mundu Gerraren ostean Europako batasunaren alde eragingarriro mugitu ziren Nazionarteko Talde Berrien barruan (Europako kristaudemokratek bultzatuak) EAJ zegoen. Eta 1963ko Aberri Egunean Iparraldeko abertzaleek Itsasuko Gutun famatua aurkeztu zutenean, aipamen egiten zitzaion Europako batasunari. Berdin egin zuen ETAk urte hauetan eta antzeko aipamenak ikus daitezke orduko euskal erakunde politiko guztietan. Baina alderdiek aintzat hartzeko kontsigna jo arren,

ezin esan daiteke oso herritarra bihurtu zenik. Egia esan, goi maila teoriko batean geratu zen, independentziari alternatiba bat eskaintzeko askotan. Euskal Autonomi Erkidegoan autonomiak sortu zuen zirrarak, independentziarako bidearen hasiera modura aurkeztua batzuetan, oraindik gehiago baztertu zuen gaia, baina 1980ko hamarkadaren erdi aldera batu ziren hiru faktorek protagonismo berria ekarri zion: batetik, eta esan dugunez, urte hauetan mezu europarazalea berpizten da; bestetik, Hegoaldea EEEen (Europako Ekonomi Elkartean; EBren orduko izena) integratzen da 1986an; eta azkenik, Europako Parlamenturako ordezkariak botu zuzenen bidez hautatzen hasten da 1987tik aurrera eta alderdiek, hortaz, gai honen inguruko hauteskunde kanpainak eratu beharko dituzte eta euren jarrera argitu, ondorioz.

Baina gauza bat da Europa batua eta beste bat gaur egungo Europako Batasuna, eta lehenean denak badaude ados, oso iritzi kontrajarriak agertzen dira bigarrenari dagokionez. Hots, Europa idealizatua denek onartzen dute, oraingo gaitz guztien konponbide modura aurkeztua izaten denez, zaila baita bere kontra egotea, baina batasun horren hazia den EB gai eztabaidatua da eta asko dira baieztapen horrekin akort ez daudenak. Begira ditzagun euskal alderdi nazionalisten jarrerak esaniko Europako Parlamenturako 1987ko lehen hauteskunde horietatik aurrera.

Europa batuaren aldeko jarrera oso onartua da, esan dugunez, alderdi nazionalisten artean eta bere formulazio idealizatuan Euskadik Europa barruko federazio bat osa dezala errebindikatu ezezik, pertsona, talde eta herriekiko begirunea gordeko duen Europa askea ere galdatzen da. Ez dugu honen adibide zehatzik isladatuko, oso ugariak dira eta. Hala ere, diferentziak nabaritzen dira alderdien artean eta, oro har, esan daiteke EB (alderdia), EMA, HA, HB eta Zutik-ek ez ziotela aipamen gehiegirik egiten batasunari hasieran eta gutxiago oraindik Europako Batasunari, kritika egiteko ez bazen. Ondoren, berriz, ugariagoak izan dira aipamenak, tonu kritiko eta mesfidatiaz gehienetan. EA eta EAJren artean, ordea, askoz erabiliagoa izan da gaia, ez bakarrik batasun idealari dagokionez, baizik eta batasun

horren hazia izan nahi duen oraingo EBri dagokionez ere. Bigarren maila honetan parte hartzeko borondatea erakusten da eta errebindikazio zehatzak egiten dira nazio arazoa konponbidean sar dadin.

Denetatik, EAJ da EBren aldeko aposturik argiena egiten duena eta ekonomia mailan, esate baterako, guztiz identifikaturik ageri da. EB aukera ezin hobea ikusten dute Euskal Herriaren batasuna lortzeko. Azken aukera, egia esan; harrapatu beharrekoa. Estatu independentziaren bidea bazterturik —gaur egungo munduaren interakzioak ezina egiten baitu—, Europako Nazioen Elkarte osatzea da alderdi honen proiektua, non Euskadi partaide bat izango bailitzateke, aske eta batua. Prozesu luzea iragaritzen da, apurka-apurka botere maila berriak lortuz beteko dena eta azkenean estatu independentziaren bidetik lor zitekeen botere maila berdina eskuratuko lukeena. Errealis-tagotzat jotzen den bide posibilista eta gradualista honen lehen ekimenak izango lirateke Europako Parlamentua bultzatzea eta eskumenez betetzea, nazio guztiei zabalik legokeen Europako Senatua sortaraztea, hauteskunde barruti autonomikoak eratzea eta, oro har, instantzia guztietan parte hartzea eta estaturik gabeko nazioen eskubideak bertan errebindikatzea. Aipa dezagun ere antzeko jarrera defenditu zuela desagertu arte Euskadiko Ezkerrak, baina EAJk baino ilusio gutxiago pizturik nazio helburua betetzeko aukeraz (benetan errealistago joz, agian). EBrekin identifikaturik, eskuragarriago eta profitagarriago jotzen zuen Europa barruko makroerregio atlantikoa osatzea, EAE, Nafarroa eta Akitania bilduz. EAK, azkenik, interes handia jartzen du gai honetan, baina Europako batasun batera heltzeko, Euskadik aurretik estatua osatua joan behar duela uste dute, eskubide osoko partaide izan dadila nahi bada. Ez dago, hortaz, auzia atzeratzerik, EAJk iradokitzen duen moduan. Behin-behineko eta hasierako urrats bezala, autonomiek EBrekin zuzenean negoziatzeko ahalmena eskatzen dute, estatuen bahetik iragazi behar izan gabe. EBrekin kritikoago agertzen da EAJ baino eta Senatua errebindikatzen du nazio guztiek beraien ahotsa plazara dezaten¹.

EBren problematika hurbilarekiko kezkak eta aipamenak askoz gutxiago dira beste alderdien artean. Europa batu idealari baietza eman ondoren, EBk dakartzan arriskuez ohartaraztea izaten da alderdi hauen jokaera euren idatzietan, kontrol ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalaren galera posiblean laburbil daitekeena: langilearentzako baldintza txarragoak, kanpoko inmigrazioari jartzen zaizkion oztopoak, erabaki politikoak gero eta instantzia altuagotan hartzea, nolanhiko batuketa batek ekar lezakeen inposaketa kulturala, eta abar. Jarrera kritikoak agertzen dira Parlamentuaren efektibitateaz eta zalantzan ipintzen da Senatuak lor lezakeen eragingarritasuna. Horren guztiaren aurrean, Euskal Herriak Europa batuaren barruan goreneko subiranotasun maila edukitzeko eskubidea azpimarratzen da². Azken honetan bat egiten dute aurreko multzoan ikusi ditugun alderdiekin. Denek errebindikatzen dute, beraz, Europa, oso era desberdinetan bada ere. Baina zer itxaron dezakete oraingo Europako Batasunetik?

Oraingo Europako Batasuna eta etorkizuna

Orain Europako Batasuna deritzon erakundea II. Mundu Gerra osteko giro europarzalean sortua da eta europarren batasunaren bidean bete den urratsik sendoena izan da, zalantzarik gabe. Eta sendoena izan da aurreko proiektu gehienek falta izan zituzten osagai batzuk sartzen jakin izan zuelako, besteak beste, estatuetakoa gobernuen parte hartzea (eta ez ekimen indibidualak, aurretiko gehien modura); eredu garbirik ez adieraztea interes desberdina bildu ahal izateko; eta zentzu praktikoa iraunkorra, helburu ideal urrunak eta unean unekoak bat egiten jakin zuena. Heater-ek dioenez, EEE bere aurretik agertutako proiektu eta mugimenduen zordun da hein handiz. Europako Estatu Batuen ideia XIX. mendekoa da; integrazio ekonomikoarekiko interesa 1920ko hamarkadan sortzen da; eta erabiltzen diren kontzeptu batzuk zaharragoak dira era berean, Saint-Simon-en bake helburua, kasu. Antzera gertatzen da, gainera, beste puntu batzuetan (1992:178).

Hala ere, faktore hauek batzeko trebetasunak proiektua martxan ipintzeko balio izan bazuen, egunean eguneko jarduerak bide praktizistatik, edo praktizistegitik, abiatzera eraman zuen eta hasiera batez lortu zuen onespén zabala galduz joan da ordutik, erakundea proiektu berriztatzaile eta askatzaile, eta ez gobernuen tresna hutsa, bihurtu nahi zutenen aldetik batez ere.

Baina federaziozale askok EBren bidea gaitzesten badu ere, erabilgarria da askorentzat, egin beharreko aldaketa eta zuzenketak sartuz gero. Berdin uste du Euskal Herriko zenbait nazionalistak, ikusi dugunez, eta antzera gertatzen da estaturik gabeko beste nazio batzuetan ere. Euskal Herrikoarekin batera indartsuen diren mugimendu nazionalisten artean nabaria da uste hori. Katalunian, bertako alderdi koaliziorik indartsuenak, Convergencia i Unió delakoak, erreferentzia puntu iraunkorra dauka EBn, beronen barruan independentea izateko aukera zuzenean aldarrikatzen ez badu ere. Eta Eskozian ere oso jarrera positiboa jasotzen du oraingo EBk, orain urte batzuk gertatzen zenaren kontrara. Hango alderdi nazionalista hegemonikoak, bestalde, Scottish National Party delakoak, bai eskatzen du EB barruko independentzia (ik. Keating, 1996: 189 eta 222). Alderdi nazionalisten amets hauek, ordea, ez dutoz bat aipaturiko bide praktizistarekin eta euren gauzapeña benetan urruna eta gertagaitza jo behar da, jarraian ikusiko dugunez.

Federaziozale, nazionalista, ezkertiar eta beste askoren ametsak Europa batuan ipintzen dira eta horra heltzeko modua oraingo EBren bilakaera izan daiteke, naturala ez bada, indar hauek derrigortua. Bilakaera hori gerta dadin urrats asko bete beharko lirarteke, baina oztoporik handiena hasiera-hasieran egongo dela ziurtasun guztiz esan daiteke, ezen zerbait mugitzen has dadin oraingo EBren funtsa diren estatuen borondatearekin kontatu beharko litzateke eta ziurtzat jo daiteke aurka agertuko direna. Hala ere, esan dudanez, bilakaera derrigorturik ere bultzateke, baina nork bultzatua? Gordon Smith-entzat, nazio-estatua hain da boteretsua gaur egun, non nahikoa baitzaio inertzia hori profitatzea aurrera egiteko, zerbait hobeagorik as-

matzen ez den bitartean (1987: 247) eta momentuz ez dago inor izugarrizko indar horri aurka egiteko gai denik. Baina horrek ez du esan nahi horrela izango denik beti. Bilakaera ere gerta daiteke eta horrek eragina edukiko luke Euskal Herrian, noski.

Argi utzi behar da, hasiera batez, Europako Batasuna deritzon erakundea Europako estatu batzuek eraikia dela eta, ondorioz, estatu horiexetako gobernuek kontrolatzen dutela eta ez beste inork. Gobernu hauek nazio-estatuak ordezkatzan dituzte eta, hortaz, zentzugabekeria da esatea nazio-estatu egitura ahitua dela. Ez du beti iraungo eta adierazle askok bere nagusitasuna mehatxaturik dagoela diosku, baina, kontuz, beste adierazle askok kontrako joraz ohartarazten gaitu eta. Edozein kasutan, bere hondamena ez da ez bihar ez etzi gertatuko eta integrazio handiagorantzako bilakaera egiten bada, estatuak eurek eman beharko diote hasiera prozesuari. Baina nola hori?, kontrerasankorra bailitzateke estatuak euren subiranotasuna galtzea dakarren erakunde bat eraikitzea. Paradoxa bada ere, subiranotasun apur bat galduta, nazio-estatuak bere iraupena bilatzen du, ezen munduan gertatu diren aldaketek ezina egiten zuten aurreko egituraketa. Geoestrategian, ekonomian, politikan, gizartean edo kulturaren eskala globaleko erronkak agertzen ziren eta nazio-estatu isolatua ez zen gai problematika hari aurre egiteko. Nahikoa omen zen, ordea, nolabaiteko integrazioa lortzea arazoei jarkitze-ko eta halaxe egin zuten. Honela laburtzen du Mann-ek:

Europako Nazio-estatuak ez daude hiltzen, ezta zaharkitua geratzeko puntuan ere; funtzio batzuk eskualdatu dituzte bakarrik, eta baliteke etorkizunean ere egiten jarraitzea. (1993: 109)

EBren bilakaeraz mintzatzeko ginen eta nazio-estatu indarrak aritzen jarraiki dut. Nahita, inportantea baita adieraztea bilakaera hori ez dela halabeharrez gertatu behar eta, hortaz, daitekeena dela oraingo egituraketari ere eustea, integrazioari gehiago ekin barik, Gallisot-ek dioenez, iraupen horretan asko baitira interesatuak, abantaila argiak ateratzen dituztenak (funtzionarioak, lobbyak...)

besteak beste (1992). Estatu partaideen lehen helburua eurenari eustea da, beraz, bidean ahalik eta gutxien galtzen saiatuz. Bilakaeran sei maila bereiz daitezke (nire beste lan batez —Zabalo, 1997— baliatu naiz honetarako).

Lehena oraingo estatuen elkarteari dagokio, estatuen beharrek inposatua, helburu zehatz batzuk erdiesteko, euren subiranotasuna behin ere arriskutan ipini gabe. Bata-suna bilatzeko zio nagusia ekonomikoa da, zeina helburu politikoen gaintik ipintzen baita. Jakina denez, integrazio ekonomikoak tirabira gutxiago sortzen du partaideen artean, emaitzak azkar ikusten direlako eta baita bakoitzaren subiranotasun politikoa neurririk handienez salburik geratzen delako ere. Ildo honetan, oraingo erronka nagusia diru batasuna osatzea da. Eta ondoren, aukera desberdinak proposatzen dira. Asko dira EBn sartzea eskatu duten estatuak eta oraingo partaideek mesfidantzaz begiratzen diote prozesuari, arrazoi estrategikoak direla eta, batzuentzat, politikokoak besteentzat, ekonomikoak zenbaitentzat... Badi-ra erakundea gehienbat ekonomia eta merkataritzara mugatu nahi dutenak eta helburu politikoagoak eta integraztaileagoak dituztenak. Batzuek «espazio ekonomiko batu» bat eraiki nahiko lukete, Europako estatu guztiei zabalik. Besteek, onartu egingo lukete espazio ekonomiko zabal hori, baina espazio politiko mugatu bat estatu batzuentzat gorderik, oraingo EBkoentzat gutxi gora-behera. Edozein kasutan, estatuen elkartea izaten jarraikiko luke, orain artekoa modukoa, eta estatuak lirateke ardatza. Epe labur-ertainean (2002rako jarri da Diru Batasuna indar betean egoteko epea eta urte horietarako partaide berrien sarrera aztertzea) besterik ezin da itxaron eta esan gabe doa Hego Euskadik ezin duela hor protagonismorik eduki. Eskatzen den Europako Senatua bera (Herriena) ez da lor daitekeen gauza.

Integrazio handiagorantz jo nahi duen pentsaera le-
rroak arrakasta lortuko balu, eta estatuen jarkiera inertzia-
la garaitu ondoren, estatuen konfederazio bat eraiki liteke,
zeinean batasunak eskumen gehiago eta indar handiagoak
bilduko bailituzke, baina nazio subiranotasuna estatueta-
n egonik oraindik. Hala ere, estatu batzuek defenditzen du-

ten aukera hau epe luzera planteatu behar da, gaurgero hogei urte gutxienez; eta estatuak bailirateke ardatza, Euskal Herriak ez luke zer eginik edukiko. Europako Senatua era liteke menturaz.

Konfederazioak federaziorako zubia direla esaten da, hots, integrazio estuagoko egitura batera abiatzeko, eta, kasu horretan, EB estatuen federazioa bihur liteke, non batasunak pisuzko eskumenak hartuko bailituzke eta estatuen indarra nabarkiro gutxitua agertuko bailitzateke zenbait arlotan. Puntu honetara heldu ahal izateko integrazioaren aldeko indar eskerge beharko litzateke eta populazioaren aldeko iritzia ere, horrela bakarrik lor bailiteke estatuen berezko jarkiera garaitzea. Oraindik estatuen federazioa izango litzateke, baina errazagoa izango litzateke partaide berriak onartuak izatea, estatu partaideetako banaketetatik sortuak balira ere. Errazagoa izango litzatekeela esateak ez du esan nahi, ordea, litekeena denik; aukera adierazi gura du, baina oso zaila dirudi. Euskadiren lehen aukera izango litzateke, atzetik mugimendu sendo lehiatsu eta, hein batez gutxienez, erasokorra baleuka. Konfederazioa baino epe luzeagora jarri behar da aukera hau edo, agian, etorkizunerako eta epe jakinik gabeko hipotesi modura.

Hipotesi hauen artean, eperik jarri gabe, beste aukera batzuk zabal daitezke, hala nola, Herrien Europa, Nazio-estatu berria Europa, edo Mendebaldeko Europa, mailakoa eta Erregio-inperioa ere. Ez ditugu hemen garatuko, baina, noski, Nazio-estatuaren kasuan Euskadik ez luke subiranotasunik edukiko (hala ere, suma daitekeenez, nazio fidelitasunak desaktibaturirik egongo lirateke puntu horretara heldu ahal izateko); Erregio-inperioan izaera onar zekiola lor lezake, baina nazio fidelitasunak oraingo indar soziala galdurik edukiko lukeela itxaron daiteke, aurreko kasuan bezala. Herrien Europa da, azkenik, nazionalistek nahiago duten aukera, oraintxedanik ere, baina bidea luze eta oztopoz bete izango dela aurreikus daiteke.

Aukera posibleen zerrendatzea eta denboran ordenatzea baino ez dut egin. Iritzi bat baino ez. Epeekin jokatzea beti da arriskutsua eta, batez ere, argi utzi gura dut ez

dagoela inolako determinismorik planteamenduan, hots, posible da edozein momentutan edo puntutan haustea, bilakaeran atzerantz egiteko edo azkarrago aurreratzeko. Abagadunean abagaduneko indar harremanek erabakiko dute auzia. Puntu bat argi utz daiteke, ostera: epe labur-ertainera nekez mugituko da ezer EBren egituraketa politikoan. Hau dela eta, zentzurik ez dute Diru Batasunaren ezarrera batasun politikoaren hasiera aldarrikatzen dituzteneko iritziak, helburu ekonomikoak politikoekin nahasten dituzte eta. Okerrago agian, EBn hasieratik nagusitu zen ekonomizismoak eraginik, integrazio ekonomikoa nahikotzat jotzen da, politikoak halabeharrez hari itsatsirik joan beharko balu bezala. Agian ere, politika eta hauteskunde interesak egon daitezke honen guztiaren atzean, aurreko usteari gehiturik. Dakardan adibide bakar bat argibide gisa. Europako Legebiltzarrean EAJren ordezkaria den Josu Jon Imazek hamabost urtetan zifratzen du Euskal Herriak, EAEk behintzat, Europa barruan subiranotasuna erdiesteko itxaron beharreko epea. *Argia* astekarian eginiko elkarrizketa batean (1996-7-14, 1.586: 8-11 or.), nahikoa iritzi dio denbora tarte horri Europako Batsunak estatueta-ko eskumen gehienak eta inportanteenak beregana ditzan eta, ondorioz, EB nagusi izanik, EAE gutxienez Espainia eta Frantziaren pare gera dadin, azken hauek subiranotasun maila beheraturik edukiko dute eta. Hau dena hamabost urtetan, behin baino sarriago errepikatzen duenez, gaineratzen duelarik: «azken mendeetan lortzerik izan ez duguna eremu horretan lortzeko modua izango dugu». Alternatiba egokia independentziari kontrajartzeko, baina zentzurik gabekoa, ene aburuz, hain epe laburrera, nioen bezala. Eta epe luzera ere... ikusteko dago!

Etorkizuna, alderdi abertzaleak eta Europa batua

Euskal nazionalismoaren adar batek beti uste izan du estatu independente bat erdiestea, nazio-estatu klasikoen gisara, ezina, baliobakoa, urrunegia edo ez-aholkugarria

zela, eta hura frogatzeko argudio desberdinak erabiltzen ziren. Baina helburu klasiko hari ezin zitzaion autonomia hutsa kontrajarri alternatiba bezala, hura bakarrik eskatzean Espainia eta Frantziaren nagusitasuna onartzen baitzen, eta hura defendigaitza zen independentzia aldarrikatzen zuen, eta horrexetan oinarriturik nazionalismoaren esklusibitatea errebindikaten zuen, sektorearen aurrean. Beste sektore ez-independentzizale honek ondorio berberera eramango zuen alternatiba landu behar zuen, beraz, eta Iberiako Konfederazioa edo Herrien Europa proiektuak aurkeztu zituen. Euren abantailak tentagarriak ziren: independentzia lortezina zen, baina proiektu hauek lortzeko bidean zeuden eta epe labur-ertain batera gauza zitezkeen, prozesu erraz, azkar eta eroso baten bidez, gainera. Alternatiba hau, bestalde, sektore independentzizaleak ere onartzen zuen, baina independentziarekin bateragarri eginenez beti eta ez aurkakotzat aurkeztuz (ik. Zabalo, 1994).

Denborak ez bide du norberaren alternatibaren bikaintasunaz eta hausnarketaren egokitasunaz beste sektorea konbentzitu eta gaur biek diraute gora-behera gutxirekin. Independentziaren aurkako sektoreak, oro har EAJko sektore batek gidatua, lortezina irizten dio independentziari, estatuen arteko interdependentziak ezina egiten baitu horrelako prozesurik garatzea. Independentziaren aldeko sektoreak, berriz, inoiz ez bezain beharrezko irizten dio prozesu horri ekitea, Euskal Herriaren geroa inoiz ez bezain arriskutsu ikusten du eta. Argudio modernoak ohiko helburuak justifikatzeko, ikusten denez. Zelan eragin dezake honetan guztian EBren ibilbide berriak?

Argitu beharko litzateke, lehen-lehenengo, Europa batuaren eta Europako Batasuna erakundearen artean dagoen desberdintasuna, lan osoan zehar egiten saiatu naitenez. Lehena ideal bat da eta bigarrena ideia gauzatu bat. Eta bereizi beharra ikusten dut nahaste handia dagoelako puntu honetan, bai gizartean eta bai alderdi abertzaleen artean ere. Horrela uler daiteke, momentu eta leku desberdinetan, kontraesankorrak diruditen mezuak jaulkitzea, batzuetan Europa batuaren alde agertuz eta besteetan batasuna gaitzetsiz. EAJ kenduta, beste alderdi guztiak jaus-

ten dira, hein desberdinez, nahaste horretan (EAJ, ordea, alde agertzen da kasu guztietan). Baina oinarrian dagoena da Europa idealari baietza ematen diotela eta batasun gauzatuaz, EBz, eztabaida gehiago dituztela.

Izan ere, Europa batuaren irudi ideala handitu egin da azken urteotan, Erdi eta Ekialdeko Europako «sozialismo errearen» esperientziak porrot egin ondoren batez ere. Nola sozialismoa erreferentzia ideala izan den (eta bada oraindik askorentzat) urte anitzez, hala orain europarren batasuna betetzen ari da, batzuentzat, hutsune hori. Idealizazio honetan, norberaren arduren mistifikazioa isladatzen da. Eskema, ezaguna bezain erabilia da: iragan paradisuarra bilatzen da, ondoren endekatu dena; batasun paradisuarraren bilaketa jin da gero, Erdi Arora atzera daitekeena; batasuna denon helburua izan da beti, baina ezin izan da inoiz lortu; orain, berriz, gauzagarri antzematzen da eta aro loriatsu berria iragartzen da, zeinean norberak faltan zeukana erdietsiko baitu, nazionalistak nazioen Europa, federalistak federazio egitura, sozialista klasikoak berdintasun ekonomikoa, kontserbadoreak nazio-estatu bermea, liberalak garapen ekonomikoa, eta abar; eta denek, aberastasuna, bakea eta ongizatea. Horregatik daude denak alde; egongo ez dira, ba? nork egingo lioke uko horrelako ikuspegi bati!

Hori da Europa batuak ordezkatzeko duena, baina ez Europako Batasunak, berau Europa batu bat baino ez da eta, Europa batuaren bidean eraiki den proiektu bat, baina ez bakarra eta ez aipaturiko Europa idealaren ildotik doana. EBk Europa batzeko beste ikuspuntu bat garatzen du, nahiz eta posible izan etorkizunean norabide hori berbideratzea. EB helburu gehienbat ekonomikoak dituen erakundea da, politika arloan zerbait egin gura duenean jarkiera handiak aurkitzen dituena, are handiagoak norberak egingdako Europa idealaren iruditik aldentzen den neurrian. Ez da ezkertiar askoren gustukoa, jakina denez, baina ezta eskuindar askorena ere, Britainia Handiko kontserbadore talde batek argi utzi duenez eta beste estatuetan ere froga daitekeenez, indar gutxiagoz bada ere (ik., adibidez, Gortazar, 1994). Ez da nazionalista, federalista, feminista, sindi-

kalista, ekologista, askoren gustukoa ere, ezta arrazismoaren kontrako edo kulturaren aldeko talde askorena ere. EBk jarkiera handiei egin beharko die aurre politikoki garatu nahi badu; horrexegatik hartu behar dira patxadaz helburuak betetzeko epeak.

Esanak esan, kontuan hartu behar da EB Europa batu bidean dagoen proiektu gauzatu bakarra dela eta, beraz, nahitanahiezko erreferentzia Europako agente politikoen zat. Hori dela eta, gogorrago kritikatzten zaio uneko arazoe-kiko loturan dagoen problematika (ekonomian, langabezia; gizartean, inmigrazioaren kontrako neurriak...) urrutira planteatzen dena baino. Eta azken multzo honetan sartu behar da nazio arazoa, zeinaren konponketa asmo idealen barruan sartzen baita. Hori dela eta, EBk kritika gutxi jasotzen ditu, arlo honetan, nazionalisten aldetik, zeren, azken finean, estatuen indarra jaitzarazteko tresna jotzen da eta horregatik bakarrik onuragarri suertatuko zaielako ustein daude. Horretan daude euskal alderdi nazionalistak ere, zeintzuek nolabaiteko konfiantza ematen baitiote EBri gai honetan, beste askotan gogoz kritikatzten duten bitartean. Kontraesana nabaritzen da hemen, ezen nazio arazoa konpontzeko erakunde ezegokia jotzen bada orain, zergatik lortuko da epe luzera?

EB onuragarria edo kaltegarria den nazio arazotik haragoko arloei kasu eginik adierazten dute alderdiek, bakoitzaren eredu ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalaren arabera. Hau da, EBren egokitasuna alderdi politiko modura aztertu behar dute gaur egun alderdi abertzaleek, ez nazio arazoaren ikuspuntutik, beronetan ez baitago aurrerantzerako planteamentu eginik, asmoak, iragarpenak eta desioak baizik. Nazio arazoaren konponketa EBri atxikirik ulertzea, Europa batu idealetik EBra egiten den lekualdaketa baino ez da; desiratik asko, baina errealtatetik gutxi. Posible litzateke ezer lortzea horren aldeko presio gartsua egingo balitz, baina hein batez hori bera oraingo estatuetan ere egin daiteke. Baldintzak desberdinak lirateke, hori bai, eta errazago izan liteke nazio arazoa EBn konpontzea, estatuek indarra murrizturik edukiko bailukete, baina presioa beti egin beharko da. Esan nahi da, hortaz, EB, orain

planteatuta dagoen moduan, ezgai dela arazo horri aurre egiteko. Eta bilakatu beharko dela helburu hori betetzeko. Bilakaerarako zenbat denbora behar den, eta posible den, ikusteko dago, baina ez dirudi epe laburreko helburua denik. Ikusteko dago ere, EBk daraman «Europa batuaren» eredua profitagarria den nazionalistentzat nazio arazo honetan, ala beste nonbait bilatu behar den eredu hori eta ez EBn. Euskal alderdi nazionalistek erabaki behar dute EB honi eustea merezi duen ala ez eta erabaki horretarako argudioak zehaztu beharko dira, argi utzirik, nazionalista modura, nazio arazorako konponbidea izan daitekeen ala ez eta nola. Baina azterketa oso hau Europako Batasuna erakundeari egokiturik egin behar da, eta ez ideala den Europa batuari.

Oraingo EB Europako nazio arazoa konpontzeko ezgai delako argudioa defenditu dut. Horren arabera, Euskal Herriaren nazio arazoaren irtenbidea erakunde honexetan gauzateari politika okerra deritzot. Gehiago izan daiteke koartada bat benetako ustea baino, eta gehiago atzeratze-ko taktika, hura berrindartzeko modua baino, denbora luzez ez baitago bertatik (eta hori erakundearen norabidea berbideratzeko indar nahikoa batuko balitz) horrelako helbururik betetzerik. Hala ere, eta hona arrazoi nagusietako bat aurreko bideak indarrean jarrai dezan, independentzia helburua epe luzera ipintzen dute bere defendatzaileek eta, era berean, beraren errebindikazioa koartada ere izan liteke benetako ustea baino. Era horretara, oinarriko nazionalistak biak onar ditzake, maila idealean, bietan bermatzen baita burujabe izateko aukera (horregatik ez diote eragin handirik egiten EAJko bozemaile independentzizaleari jaurtikitzen zaizkion mezu independentzizaleek). Epe luzera planteatzen direnez, biak dira onargarri, biak baitira gauzaezin bezain gauzagarri. Bata edo bestearen aldeko jarrerara norberaren hobespen politikoak markatzen du, alderdi abertzaleak, errepikatu beharrik ez dago, politika jarduerak banatzen baititu. Helburu nagusi bi horietatik epe laburrera gauzagarri antzematen den lehenak, ordea, arrakasta gehiago duke abertzaleak proiektu berean biltzen. Horra desafioa. ♪

1. Hor-hemenkako artikulua labur edo iritzi publikoek gain, ondoko materialak erabili ditut: EArako, *Ponencias. Congreso Constituyente* (1987), *II Congreso. Ponencia política* (1990), *1994-1999 urteetarako Europako Parlamentuko gure lan-programen azalpena* (1994); EAJrako, *Hauteskunde egitaraua. Geure Udalean, geure aldundian, European* (1987), *... y ahora EUROPA. El proyecto del Partido Nacionalista Vasco en Coalición Nacionalista* (1989), *Es tiempo de unir fuerzas* (1994); EErako, *Hemendik —V. Biltzar Nagusia, 1992ko otsailaren 8an, Hemendik X: 103* (1992).
2. Alderdi hauek agiri gutxiago daukate gai honetaz, nahiz eta azken urteetan hausnarketa gehiago igarri. HBren «Europa, Alternatiba eta kritikak» (1994) lan luzea kontsultatu dut. Zutik-ek eta Ipar Euskal Herriko alderdiek, ostera, ez dute kanpainarik egiten Europarako hauteskundetan eta ez dago, hortaz, agiri ofizialik gai honetaz. HArako «Maastricht? Ez, Milesker» (Patxa-Oldartzen, 1992) kontsultatu dut. Gainera, Kongresuetako adierazpen orokorrez, egunkari eta aldizkarietan irakurritako artikulua laburrez eta iritzi publikoek baliatu naiz ideia orokor hauek erazteko.

Aipamenak

- GALLISOT, René (1992): «Transnacionalización y Europa», in APALATEGI, Jokín —zuz.—: *Movimientos sociales y nacionalismo*, Gasteiz: Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, 150-170. or.
- GORTAZAR, Guillermo —zuz.— (1994): *Visiones de Europa. Analisis de una controversia política*, Madril: Noesis.
- HEATER, Derek (1992): *The idea of European unity*, Leicester: Leicester University Press.
- KEATING, Michael (1996): *Naciones contra el Estado. El nacionalismo de Cataluña, Quebec y Escocia*, Bartzelona: Ed. Ariel (1. arg. ingelesez urte berean).
- MANN, Michael (1993): «Los estados-nación en Europa y en otros continentes. Diversificación, desarrollo, supervivencia», *Debats* 46, Abendua, 102-113. or.
- SMITH, Gordon (1987): «¿Tiene futuro el estado-nación?», in TIVEY, Leonard —koord.—: *El Estado Nación*, Bartzelona: Ed. Península (1. arg. ingelesez 1981ean), 247-259. or.
- ZABALO, Julen (1994): «Alternatiba bat independentziari: euskal nazionalismo ez independentzizalearen jokabidea», *Inguruak* 8, Urtarrila, 169-183. or.
- ZABALO, Julen (1997): *Europako (zein?) Batasuna. Etorbizuneko egituraketa politiko posibleez*, Bilbo: Euskaltzaindia / BBK.



kultura • 117

500 urte eta oraindik etxeko giltza • *Goldberg*, norentzat?

• Oteiza eta bere lagunak

ALBERTO BARAND IARAN



literatura • 123

Ajeak • Txoriak • Isladak • Harira • Aroa

EDORTA JIMENEZ



ikuskitzuna • 130

Eredu irlandarra • Folka jalgi hadi mundura

• Telebista lokalen iruzurra • Hogei urte

• Historiaren irudiak

IMAN OL AGIRRE



soziolinguistika • 136

Euskal ikaskuntza • Euskal unibertsitatea

• Nafarroako euskara • Zer dio euskal komunitateak

• Kontseilua

ERRAMUN BAXOK



telepolis • 142

Aukera paregabea • Microsofteko milioiak

• Ekimen interesgarriak • Erlea

LUIS FERNANDEZ



500 urte eta oraindik etxeko giltza

Joan den martxo honetan bete dira bostehun urte Joan III. Albrotekoa eta Katalina Nafarroako errege-erreginek judutarrak egotzi zituztenetik. Inor gutxik erreparatu dio datari, baina Erdi Aroan komunitate honek eman zuen kultur maila kontuan hartuta —Euskal Herri osoan parerik izan ez zuena—, lerro batzuk justiziakoak dira.

Judutarrak Nafarroara noiz iritsi ziren zehaztea ez da erraza, baina lehen lekukotasunak X. mendearen hasierakoak dira, Arnedo, Kalagorri eta Naiara nafar hirietakoak hain zuzen. Musulmanek Erribera osoa mendean zuten, eta Islama askoz toleranteagoa zenez Daviden erlijioarekin kristauak baino, Tuteran, adibidez, oso alhama garrantzitsua eratu zen. Alfontso I. Borrokalariak —Aragoa eta Nafarroako Erregea— hiria 1119an konkistatu zuenean judutarrena komunitate sendoa zen, oso kultoa gainera, eta garapen etengabekoa izan zuen: XIV. mendean bertako biztanlegoaren laurdena zen judutar. Garai berean Iruñetik beherako herri ia guztietan ziren alhamak: seirehun familia orotara.

Orduko nafarrak euskaldunak ziren gehienbat, baina musulmanei hartutako herriak populatzeko errege-erreginek ekarritako gaskoin edo frankoen eta mozarabiarren erdara —nafar erromantzea— zen hizkuntza erabilia gortean eta agirietan. Komunitate judutarren baitan erdara nahasten zen arabierarekin, baina hizkuntz kultoa, rabbi, notario eta intelektualek ezezik, judutar askok ere irakurtzen eta mintzatzen zekitena, hebraiera zen. Pentsa liteke Iruñeko eta Lizarrako alhametan ere euskara ezagutuko zutela judutarrek, inguruko biztanleen hizkuntza izanik.

Judu nafarren garaia Diasporako Iberiar Aldiaren barruan dago kokatuta. Garai honetan (950-1492) Iberiar Penintsulako erresuma musulman zein kristauetako juduek hartu zuten Europako komunitatearen gidaritza, eta inoiz-

ko berpizkunde kulturalik garrantzitsuena eragin zuten, besteak beste arabieratik hebraierara eta latinera eginiko itzulpenen bidez kultur grekoa zabaldu eta ezagutzera eman zutelako. Nafarroak izan zuen bere garrantzia loria-tze kultural honetan, eta kristauen artean analfabetismoa erabat hedatuta zelarik, hauen artean azpimarratu moduko izenik aurkitzea nekeza delarik, Tuterako hiru judu nabarmendu ziren munduan filosofia, literatura eta testu sakratuen interpretazioetan egin zuten lanarengatik. Yehuda ha-Levi (1075-1140?), Abraham Ibn Ezra (1089-1164) eta Binyamin bar Yonah Tuterakoa (1130-1173) dira hiruok.

Benjamin Tuterakoa da dudarik gabe ezagunena. Ez da asko bere bizitzaz ezagutzen dena, ez bada bere lanik famatuena aitzinsolasean esku anonimo batek idatzi zuena:

Gizon aditua eta ikasia zen, Torah eta Halakha ongi zekizkiena eta, haren hitzak egiaztatzeko egin diren araketa guztiak, zuzenak, zehatzak eta ukaezinak gertatu izan dira, bera gizon egiatia baitzen.

Ondo zekien hebraieraz, arameeraz, arabieraz eta nafar erromantzeaz, eta ulertzen zuen grekoa eta latina. 1165ean bere jaioterrian hasi zuen Mediterraneoan zehar bidaia luzea, seguraski komertziala, eta zortzi urte beranduago Gaztelan zen, gaur egungo Frantzia, Italia, Grezia, Turkia, Txipre, Libano, Israel, Siria edo Egipto zeharkatu ondoren. Joanaldi haren oroitzapenekin idatzi zuen *Bidaia Liburua*-k Europako XII. mendeko gizartea, kultura eta ekonomiaren erretratu interesgarri eta zehatza eman zuen, Marco Polok Ekialdera bere bidaia famatu askoa hasi baino ehun urte lehenago.

Garai berekoa da Abraham Ibn Ezra jakituna, baina ez dirudi biek elkar ezagutuko zutenik, azken hau Erroman zelako 1140. urtean, testu sakratuen interpretazio lanetan. Astronomo, astrologo, poeta, hizkuntzalaria, exegeta, matematikoa... Erdi Aroko intelektual ilustratuaren eredu bat betetzen du goitik behera tuterarrak. Maimonidensen atzetik, bera izan zen Iberiar Penintsulako poligrafoarik emankorrena.

Yehuda ha Levi, bestalde, poeta judutarren artean maisua da garai honetan. Lehen liburuetan lagunak, natura edo ardoa bezalako gai prosaikoak azaltzen dira bere bertsoetan, baina adinez aurrera egin ahala filosofia eta kutsu metafisikoko lirika landu zuen batik bat. Adibiderako balio beza judutarrekiko ezinikusiak kezkatuta idatzi zuen poema honek:

Ahantzi zara, Maitea, nire bular gainean baratzen zinenekoaz?/ Zergatik saldu ninduzun neure zantzaileei?/ Ez ote nintzaizun lur mortuan gaindi pausarik gabe jarraiki?/ Seir eta Paran mendia, Sinai eta Sin ditut lekuko./ Ez ote zen izan zuretzat nire maitasuna, niretzat zure laguntza?/ Zergatik, bada, gabetu ninduzun neure ospez?/ Seir aldera behartua, Kedarren arbuiatua./ Mediako uztarripean nahigabetua./ Ez ote zara zu jaregile bakarra eta ni esperantzaren gatibu bakarra?/ Emaidazu, bada, zeure indarra eta nik neure amodioa dizut emanen.

Ez dira bakarrak, Shem Tov Tuterako rabbi filosofo eta helenistak, Haim be Shemuelek edo Yosef ben Azach-ek —Constantinako rabbi nagusia izan zenak—, kristau komunitateak sekulan erdietsiko ez zuen gisako produkzioa idatzi zutelako Nafarroako mugetan barna. Egia da nafarrek baino lehenago judutarrak zirela denak, eta harremarik apenas zutela beste komunitatekoekin... baina bazekiten non zuten jatorria. Benjamin «Nafarroako Herrikoa» dela dio *Bidaia Liburua*-ren aitzinsolasak, erresuma uzteko agindua iritsi zenean judutar asko konbertitu ziren Tuteran, Iruñea edo Lizarra ez uzteko, eta joan zirenen artean batzuek lehengo abizena utzi eta Navarra hautatu zuten, erroak erabat ez galtzarren.

Duela bostehun urte, martxoko egun batez, bi errege-erreginek agindu zuten kristau bihurtu nahi ez zuen orok erresuma utzi behar zuela, «ebitatzeko sekta izurritsu honek kristauengan egin ahal zuen kaltea». Gehienak Mediterraneo aldeko herrietara, bereziki Italiara, eta Herbehere-tara joan ziren. Horietako batzuen ondorengoek, bostehun urte eta gero, oraindik gordetzen dute Nafarroako etxeko giltza.

Goldberg, noretzat?

Ez dago kontzertu bat itxuroso entzuteko moduko antzokirik, opera anekdotikoa da, dagoen orkestra bakarrak hogeita hamabost musikari ditu eta famatua da ez egiten dituen interpretazioengatik, baina soldatak ez direlako garaiz iristen. Beti izan da abesteko tradizioa —bereziki tabernetan, gutxiago elizetan edo eszenatokietan, aitor dezagun—, baina ezagunagoak dira Barricada Maria Bayo baino, eta gehiago saltzen du Tahures Zurdosek Pablo Sarasateren lan bildumen konpaktoak baino, eta musikari klasikoak txakur berdeak dira, eta ez dago egitarau musikal finkorik, eta Gorriti, Remacha edo Gonzalez Acilu soilik beren herrietan dira ezagunak eta... Bada, panorama honekin eta non eta Nafarroan atera dute *The Washington Post*-eko musika kritikariaren zutabe oso bat bete duen antzinako musikari buruz aldizkari eskusiboa. Inoiz ez dut herri hau ulertuko.

Jendeak ez du barrokoa eta erromantizismoa desberdintzen eta hara non Johannes Ockeghem eta Johann Sebastian Bachen arteko diferentziaz sei orriko artikulua eskaintzen dute. Kaleko jendearen ulermena larriki nahastuko litzateke fusa eta fusaerdia norbaitek hitz xumeez azalduko balitu, eta antifonak, *cantus firmus*, melismak eta *hexacordo durum* darabilzkite ausarki. Siloseko mojeek gregorianoarekin grabatutako kantuak irrati guztiek zabaldu dituztelako halako ezagutza zabaldu delarik, haiek diote XII. mendeko Hildegard von Bingen moja alemana dela etorkizuna.

Goldberg du izena argitalpenak, eta 1750. urtetik —Bachen heriotzaren urtetik, hain zuzen ere— atzerako musketan espezializatua da, zaletu on samar batek ere nekez ezagutuko litzuzkeen konpositoreen lanean zentratuta. Ahaztu Mozart eta Beethoven, ahaztu Chopin, Vivaldi edo Mendelssohn, ahaztu, Deutsche Gramophonen grabazioen bilduma aukeratua erosi duzun horrek, Schumann, Schubert, Strauss edo Ravel. Horiek guztiak modernoak dira. *Goldberg*-en bakarrik antzinako musika aurkituko duzu.

Argitalpena gaztelaniaz eta ingelesez dago, eta iruzkinak egiten ditu soilik Paris edo Berlingo musika etxeetan

aurki daitezkeen diskoei buruz, eta inoiz grabatu ez diren lanei die berebiziko maitasuna. Lisboa, Princenton, New York edo Pariseko irakasleek idazten dute, eta Napoli espainiarreko musikan edo Monteverdin, edo XVII. mendean dira adituak. Nazioarterko bokazioa du, jakina, baina Nafarroan egina da. Hemen, gure ondoan. Estatu Batuetako egunkaririk garrantzitsuenetakoak esan du bere arloan onena dela eta gu ez gara enteratu. Guk nahikoa lan dugu erabakitzen zein den hobea, Ainhoa Arteta edo Maria Bayo. Nahiz eta inoiz opera oso bat ezin izan dugun jasan.

Oteiza eta bere lagunak

Oteizarena oso erraz ulertu daiteke: ingurukoei begiratzeari besterik ez dago. Oteizak beti nahiago izan dituelako ahoberoak ondoan, ez dakit zergatik. Akaso ahoberoak izan dira Oteiza nahiago izan dutenak, baina emaitza bera da. Zerbait lortzekotan dagoelarik, porroten zerrenda amaigabea lorpen nardagarriren batekin zikintzeko zorian dagoenean, orduan azaltzen da ohiko izorrantea, EAJko agintarien gaitasunik eza eta herri honek zeinen gaizki tratatu duen gogorarazten diona, eta iritzia aldarazten dio. Edo, hori nahikoa ez bada, aipatzen diote Iruñeko Klinika Unibertsitarioan atera zuen pistola oraindik ez diotela itzuli eta ez diotela inoiz itzuliko eta hori ezin duela berak onartu. Hori entzunda ere bizarzuriak lasai jarraitzen baldin badu —arrunt arraroa izango litzateke egoera hau—, orduan Joseba Arregiren izena aipatzen diote. Aipatu eta zezenttoa bufaka hastea bat da, eta sinatutako guztiak ez duela ezertarako balio esaten du orduan, eta berak egingo duela bere lanarekin nahi duena eta bakean uzteko oso gaixo dagoelako eta idatzi besterik ez duela egin nahi.

Antzekoa izango zen beste artista handi batzuekin, eta gogora datozkit Dali pintorearen azken urteak. Baina noizbait ezagutaraziko dira Oteizaren garai honetako gorra-beherak, eskrupulorik gabeko jendearen marroak artistaren itzalpean etekina ateratzeko, atzora arte bere lagunak eta gaur deabruaren itzala izan zirenen frustrazioak.

Bitartean, ez gaitezen aztoratu. Eskultorearen sinadurak ez du askorik balio, baina azken desioa izango den hura geldi dadila esku onetan. Arren. ♪



Halako ezintasun batek jota ekin diot ohar hauek idazteari, aspaldi honetan irakurritakoak hausnartu beharrak gonorazko ezer idaztea eragozten baitit. Durangoko azken Azokakoek eragin didaten barne-zurrunbilotik oraindio irten ezinik nagoela, hara non irakurri dudan libelo ospetsu hori, nire ustez libelo izatera iresten ez den arren gogoetarako bide zabala eskaini didana bera. Baina hasieratik ekingo diot.

Ajeak

Durangon bertan trenean sartu eta hara non ekin diodan Ibon Sarasolaren *Euskara batuaren ajeak* (Alberdania, 1997) liburuari. Horretan esaten direnetatiko batzuk, denak ezin-eta, luzaroan erabili ditut gogoaren errotan.

Filologia filologoentzat utzita, hots, euskaldun orok bezala nik neuk ere hor nire baitan non edo non omen dudana meneraturik, literaturgintzaren arlora begira jarri nahi nuke nire iritzia. Liburuak, hasteko eta behin, poztu egin nau. Poza eta gero —poetak idatzi zuen horrela— zailantzaren arrak egin du lan nigan. Badira pasarte batzuk norbera detektibe bihur dadin eskatzen dutenak, eta zilegi bekit alderdi hau azaltzen luzatzea.

Euskara bera espainolez kutsatzen ari garela salatzen digu Ibon Sarasolak, eta salaketak biziro poztu nauenez, etxean ditudan hiztegiei egin diet bisitaldi gidatua. Jakina, Sarasolaren liburua izan dut txango horretan gidari.

Ez dira etxean ditudan bakarrak, baina badira, ostera, euskara batuaren azken arauekin bat idatzirik dauden zabalena; *Elhuyar* eta *Hiru mila* izeneko hiztegiak ditut lan-mahaian nik, Sarasolaren berarenarekin batera. Bada, biak ere biak daude, itxura batean behintzat, Sarasolak salatu digun gaitzak jota. «Orobat gogoratuko nioke —dio Sarasolak bere liburuan, *gaitzaren* jatorria mugarritu nahi-

rik—, hizkuntza bateko hiztunari, beste hizkuntza batek menderatzen duenean, motz gertatzen zaizkiola bere hizkuntzako hitz gehienak». Ados. Baina, zer egin?

Hasteko eta behin, aitortu egin behar euskaldun elebidunok ageri ditugun patologien arteko bat dela Sarasolak salatzen duena. Patologia horrek, ostera, badu bere sorburua. Sorburu hori ez luke aipatu gabe utzi beharko, ez, euskal literaturaren lehenengo historia soziala idatzi duenak. Gure hizkuntzako hitz gehienak motz geratu zaizkigu, bai.

Alabaina, zer dela eta geratu zaizkigu motz? *Abiadea hartu, abiadan etorri eta abiadea ekarri*, hirurak erabiltzen genituen guk txikitan. Eta hala laugarren bat ere esaten zen gurean: belozidadea! Gero, indarrak apur baterako bildu eta, erdarakaden kontrako guduan ttukunketa etnikora jo izan badugu, egin izan dugun legez, ez ote da izan, hain zuzen ere, menderatzen gaituen hizkuntza horretatik askatu nahian?

Etsaiaren hiztegian adina hitz gura izango genituzkeen etxekoan, gutxiago ginela ez sentitzeko. Zeren eta ni neu gutxiagotasun konplexu horren barruan hezitu bainaute, hasi eskolako maixu haren irainetan eta amaitu Dirección General de Seguridad-eko interrogatorietan (denbora pasarako zer ez ote duten egiten poliziek, atxilotuaren hizkuntzako lexiko-gaietan ere sartzen dira eta). Haiek beti lelo berbera ahoan: gure euskara kamuts-ezgauza eta espainolaren berben eder-joria, behean bata, goian bestea. Inperioaren jerarkiak.

Espainolezko hitz bakoitzeko euskarazko beste bat gura izan dugu, bai, ahaztu gabe euskara beste gaitz batek jota ere egon izan dela, orain urte batzuk egin zen hiztegi tekniko haren hitzaurrean salatu zen legez. Gaitz hori euskal lexikoaren anbiguotasuna zen. Berben aldetik motz omen genbiltzan. Orain Ibon Sarasolak ezpata atera du, eguzkiak isla egin du haren ahoan eta bihotza zauritu gura izan digu, aldarri eginez: *Euskaldun espainolduok!* Gaitz zaharra bera, ala hura sendatu guran hartutako botikak eragin omen digun gaitz berria, zein ote gaitzago. Horra hor galdera.

Gaia ez da bertan behara uzteko modukoa. Literatura egiten saiatzen garenon aldetik, ostera, soluzioa ez legoke, nonbait, aditu-filologoen hizteggintzan. Gainera, nork esan zuen Orixek hiztegirik begiratu gabe egiten zuela lan? Nik ere antzera. Beraz, auziari literaturaren aldetik begiraturik, Jon Alonsok proposatu du irtenbide bat.

Ibon Sarasolaren hitzen auzira joz-edo, Jon Alonsok *Euskaldunon Egunkaria*-n *Hitzaren oihartzuna* izenekoa argitaratu zuen. Hor dioenez, «euskaraz egiten den literaturaren irakurlea naizen aldetik, nago hiztegia dela literatura horrek egun daukan arazorik latzena». Haatik, nafarraren proposamenak lekuz kanpo uzten ditu orain arteko hizteggileak, esan ere honela baitio: «Nor saiatuko da literatur hiztegiaren arazoak konpontzen, idazle-itzultzaileak ez bada? Zeren zain daude?».

Txoriak

Graitzak gaitz eta ajeak aje, trenetik ohera egin nuen. Gripea, neguko ajea, bedeinkazioa ere izaten da batzuetan. Aurtengoan bezala ohean geratu eta liburu pareira kurtzeko abagunea dakarrenean, esate baterako. Zein liburu eraman ohera gaitzaren lagun? Aspaldion Bertsolaritzaz libeloan-eta esan direnek kilikaturik, *Zozoak beleari* (Alberdania, 1997) eraman nuen.

Nire gogoetan haria nondik nora zihoan ohartaraztearren, irakurle hori, jakin ezazu gogoa eman niola hausnartzeari zer dela eta biltzen dituen halako jendetza zabalak bertsolaritzak. Bada, horrenbeste lagun biltzen dituen zeingura gertaera edo fenomenok, nioen nire artean, behar duela izan behar zer bait bere baitan, bere-berea, hain bertsozale ez garenok antzematen ez dioguna.

Bertsoaren munduaz dihardute Andoni Egañak eta Jon Sarasuak, bele eta xoxo, xoxo eta bele, nor zein den argitzeak ardura ez duelarik. Ardura duena besterik da. Ardura duena da, azken batean, bertsolaritzaren aro berri baten ikur diren izen bik beren burua argitzeari eta, bidez batez, gaurko bertsolaritza zertan den besteoi azaltzeari

ekin diotela. Izan liteke, bai, bertsolaritza poetika-maila eskasekoa izatea, inozoa eta irenstezina ere, beste edozein hizkuntzatan emanez gero. Baliteke, bai.

Egaña eta Sarasuaren liburuak paradoxa batekin aurrez aurrez jartzen gaitu. Bertsolaritzari egotzen zaion poetika-maila eskasa ez da eskola gabeko iletratu anafalbetoen jarduna. Eta hori inoiz horrela izan bada ere, Amurizaren ostean bertsolaritza polito alendu zen diodan jardun hori izatetik. Bada, hara hor unibertsitatean lizentziaturiko bi, apaiz ikasketarik gabekoak diren arren euskaraz idazten euskaldun gehienek baino askoz hobeto dakitenak, lirika-zain aberats banaren jabe direnak eta hala ere arruntke-riak omen dituztenak kantatzen. Bada hor zer hausnartu.

Liburuaren egitura gogoan hartuz gero, irudi luke *argitaldariak* agindurikoa dela. Horrek, hala balitz ere, ezin liezaioke meriturik ken liburuari. Egitura horren barruan Andoni Egañak eta Jon Sarasuak elkarri egindako eskutitzak daude batetik. Bestetik, edo, hobeto esanda, gutunen artean tartekatuz, bertsolari hoberenaren azken txapela biak jantzi dituenaren testuak doaz.

Egañak eta Sarasuak beren asmo eta ametsen berri ematen digute, bertsolaritzaren tradizioari jarraituz, hau da, biluzte lotsagabe baina hala ere tentuz neurturiko baten barruan. Hala egin dutela eman dit niri behintzat. Ikusi ere, Sarasuak eta Egañak militantziaz dihardutenean ikusten da hobekien zein neurtua izan den erakustaldia. Gutun-sortaren azken aldera jabetzen da norbera, lehen-dik oharturik egon ez bada ere, bertsolari biak bat datoze-la beren arte-jarduera (ez dira nire hitzak) ei den horreki-ko gehienetan, ezen ez beste gai askoz gehiagotan. Xoxoa eta belea dira bertsolaritzarekikoan. Hortik goragokoetan, ostera, ez dirudi luma-kolore bereko txoriak direnik. Laburtuz, etorkizunean garrantzia izango duen liburua dela-koan nago.

Auzitan behin eta berriro jartzen den bertsolaritzaren protagonista handi bi mintzo dira hemen, bide batez literatura ona ere eginez. Alderdi horretatik begiratuta, gero-ko balizko horrek ez dio gaurkotasuna galarazten liburuari. Literatura dario, jori eta oparotasunez.

Isladak

Bertsolariak ez dira aspaldi batean izan zirena. Horra hor, diodanaren lekuko, Unai Iturriagak egin duen *Isladak* (Zubia, 1997). Liburu bitxia, zinez. Ezkerreko orrialdeetan, gure literaturan nahiz eta bestetan idatzi diren olerkiak di-relarik, eskuinaldekoetan Unai Iturriagak olerkiotatik etorritz asmatu dituen testutxoak ageri dira.

Poesia ikastetxetara, hau da, irakurle gazteengana helarazteko saio ausarta da bertsolari gazteak egin duena. Irakaskuntzan ari direnek eskertuko dute liburua. Bestalde, hurrengo txapela janzteko gai omen denaren burua beste zertarako gai den erakusten duen liburua da *Isladak*. Topikoa den arren, esan beharrekoa da: bertsolariak ez dira aspaldi batean izaten zirena.

Bertsolariak ez direla aspaldi baten izaten zirena delako topikoa, aldiz, aspaldiko bertsolari baten alde jarri du Juan Gartzia *Txirritaren baratzea Norteko trenbidetik* (Alberdania, 1997) izenekoan. Egaña eta Sarasuaren liburuari hitzaurrea ezarri dionaren anaiak berak ere bertsolaritzaz badakiela erakutsi digu. Areago, Txirritaren bertsoetan diren balio literarioak egungo literatur-kritikaren tresnen bidez azalarazten saiatu da Gartzia. Ahaleginak ezusteko-ezusteko eroaten du irakurlea, liburuko hamalau kapitulu edo bagoietan zehar. Jende multzo handiak bertsolariak entzuten aho zabalik geratzearen zergatia ulergaitz egiten zaionari, hona hemen harridura are haratagoko bat eragingo dion liburua. Nire aldetik, Juan Gartziaarena irakurri ostean dumu dut Txirritarenak biniloan barik cd-an ez eukitzea.

Harira

Gertakarien harira, Durangoko azokan aurkeztu zen *Demokratak eta biolentoak* (Elkar, 1997) Joxe Azurmendiren azken liburuak gaurkotasun berri bat hartu du. Hil egin da E. Jünger, hain zuzen ere, Azurmendik aipatu liburu horretan aitzakia edo ardatz, ez daukat oso garbi, hartu zuen filosofo eta idazlea.

Jünger *Honoris Causa* delako doktore izendatu zuen EHUK orain dela zenbait urte. Askok eta askok ez zuten izendapen horren zioa ulertu orduan. Eztabaida berahala piztu zen eta Azurmendik gogoeta argigarriak egin zituen aldizkari honetan bertan. Horien bilduma da *Demokratak eta biolentoak* liburuaren eduki nagusia.

Azurmendirena jesarraldi batean irakurtzen den liburua da, batere indarrrik galdu ez duena, Jünger-en inguruko eztabaidak galdu ez duen legez. Azurmendi, ordea, alemaniarraren inguruko auzia baino haratago doa. Izendura biologiko edo genetikoak diruditen horiek —demokratak, biolentoak— kazetari askoren estilo liburuko hitz nagusi bilakatu diren honetan ezinbesteko bilakatu da liburua. Zegamako filosofoak egundoko trebetasuna izan du, bere karreraren hasieratik nik uste, gertakari arruntei ohikoak ez diren ikuspegietatik fokatzeko.

Aroa

Joxe Austin Arrietaren azkena, *Labur aroz* (Txalaparta, 1997), ez da kazetetan aipatua izan. Erraza ere ez da, egia da. Eta gertatu ere, gerta dakioke horri Iñigo Aranbarriren *Emon bear yako* hari egin zitzaiona, hain zuzen ere, kritikarik gabe igaro zela. Halako liburu ezusteko, oso, hausnartu eta mardul batekin aurrez aurre, kritikari edo iruzkingileak arma teorikorik gabe geratzen baikara. Zer esan Aranbarriren liburuaz, haren hizkeraz, gaiaren garrantziaz, estiloaren indarraz eta beste hainbat alderdiri buruz? Orain ere, zer esan Arrietaren liburuaz?

Treanean irakurri dudana liburua da *Labur aroz*, eta eskerrak ematen dizkiot patuari, tarte batez autorik gabe utzi eta horretarako abagunea ekarri zidalako. Gripeak bertsolaritzaz irakurtzeko legez, auto-ezak Joxe Austinen azkena gozatzeko era eman dit. Gozamina baita liburua.

Nahiz eta kostatu egin liburuan sartzen eta luzeegi iritzi nizkion pasarte batzuei. Esandakoak esanda, Joxe Austin Arrietari buruz luzaz pentsatu izan dudana esango dut: ez ote da bera euskal idazlerik trebeena?

Hona hemen, bada, Arrietaren obra laburraren edizio kritiko eta *metakrikoa* —Arrietaren kasuan hitzak asmatzea literatur-jolasaren ataletako bat da eta, zilegi bekit niri ere hori asmatzea—. Hitzaurreak, jatorrizko lanak, lanoi buruzko oharrak, oharren barruko gain- barne- eta pos-oharrak, den-denak dira bildu eta josirik liburuan. Arrietak koska bat estuago egin dio bere buruari. Nire ametsa da, aldiz, idazleak erabili ohi duen estutze kasik infinitorako joeratik libre, Arrietak iritsiko duela halako barne-baretasun bat, eta ekingo diola, maratz eta ekuru, hurrengoari.

Ez dakit inoiz halako biluzte-janzte saiorik egin izan den gure literaturan. Ezezkoan nago. Labur-aroz hau oturantz itzela da. Tamalgarria litzateke, liburuaz ezer esateko gai izan ez eta ahanzturaren irladiko beste arkaitz galdu bat bilakatzea *Labur aroz* hau, *Emon bear yako* haren kasuan legez. ♣



Eredu irlandarra

Irlandar eredia denon ahotan izan da azken aldiotan. El-karrizketa politiko honen eszenaratzea gai interesgarria litzatekeen arren lerro hauetan Ipar Irlanda protagonista izan duen zine ereduari buruz berba egingo dugu. Arazo politikoetatik gehiegi urundu barik, jakina.

Lau filme izan dira eredugarri. Laurak hunkigarriak. Laurak bikainak. *Hidden agenda* (Ken Loach), *In the name of the father* (Jim Sheridan), *Some Mother's son* (Terry George) eta, azkena, *The Boxer* (Jim Sheridan).

Nabaria da aipatu zinegileen begirunea eta sintonia irlandarrek daramaten borroka politikoarekiko. Britainiar errepresio bortitza agerian jarri dute lau filmeetan eta IRA erakunde armatuari kritika zorrotza egin arren, Irlandaren aldeko militanteak duintasun osoz pantailaratu dituzte. Oro har errespetua nagusituz gainera, zenbait unetan gidoiari kutsu lirikoa antzeman dakioko.

Euskal Herriko zinegileek, berriz, begirada okerra nahiago. *Ander eta Yul* (Ana Diez), *Días contados* (Imanol Uribe), *A ciegas* (Daniel Calparsoro). Hiru filme hauetan militanteen giza duintasuna kolokan dago fotograma guztietan. Bihurriak, ninfomanoak, odolzaleak, basatiak... abertzaleen soslai ilun eta arbuigarria.

Nekez aurki daiteke euskal egoera politikoan murgildu den filme duinik. Euskal zinema garaikideari hasiera eman zion *La fuga de Segovia* (Imanol Uribe) eta berandua-go *Offeko maitasuna* (Koldo Izagirre) izan daitezke salbuespen bakarrak. Ihes handi baten abentura lehenengoa eta presoan itzalaren ildotik zinta poetikoa bigarrena. Balantze eskasa.

Zine politikoa ez da atzo goizekoa eta oroimena iratzartzeko martxoaren bukaeran telebista kate batek Pontecorboren *La Batalla de Argel* ostera ere pantailaratu zuen. Zinema politikoaren aurreneko ikur honek hainbat zine-

zaleri begiak zabaldu zizkion eta ordutik hona zinema mota honek bilakaera galanta izan du. Gurean izan ezik, nonbait.

Esan bezala, zine eredu irlandarrari oso erakargarria deritzot. Tamalez, euskal zinegileen jokaera ikusita eskurazina ematen du. Irlandari buruzko ekoizpenetan gure islada bilatzen jarraitu beharko dugu. Eztabaida bizten bada, onuragarri.

Folka jalgi hadi mundura

Euskal folk garaikidea ez da sekula oso joria izan. Goi mailako taldeak badabiltza —Oskorri, Benito Lertxundi, Hiru Truku...— baina egia esan, ez dago gure antzinako herri-kulturari dagokion folkgileen mugida indartsurik, trikitixaren martxa ez bada.

Soinu-txikiak ez du sosegurik hartzeko betarik eta esperientziarik berritzaileenak plazaratuz musikazale oro harritzea lortu ohi du. Kepa Junkera dugu berriro ere hizpide.

Bilbotarraren eskutik baitator udaberri honek eman dezakeen liluragarriena. Urtarrilean eman zion hasiera grabazio berriari eta martxoaren bukaeran amaitu nahi zuen. Hiru hilabetez infernuko auspoaren erresumako jau-regirik harrigarrienaren harriak banan bana jartzen.

Iragarritako jauzia eman du. Madrilgo Ediciones Resistencia-ren erakusleihoa erabiliz euskal plazak eman dezakeena baino haruntzago heldu gura du. Eta ohiko duen bezala, itzal handiko bidaiarikide mordoa bildu du. Oraingoan munduari bira eta guzti. Bikoitza izango den biribil honetan Madagaskarreko Justin Vali-ren *Fali-Faly* kanta izango da mestizaiaren frogarik esanguratsuena. Vali-ren valihaz gain, Martin O'Connor-ren akordeoia, Carlos Nuñez-en flauta, Alisdair Fraser-en bibolina, Dulce Pontes eta Joao Afonso-ren bozak eta Liam O'Flynn-en gaita nahas-mahasean Keparen auspoarekin batera. A zer nolako koktel sutsua!

Gainera, Hedingarna, Phil Cunningham, La Bottine Souriante eta Pedro Guerra, besteak beste, nazioarteko

gonbidatuen zerrendaren partaideak dira. Munduko folkaren ordezkariak hoberenez gain, bilbotarraren lagun hurbilak, Oskorri, Tomas San Miguel, Benito Lertxundi, Luis Delgado... Folkzale amorratu batek ezin izango luke gehiagorik eskatu bertan baitira primaderaren lilirik ederrenak.

Telebista lokalen iruzurra

Telebista lokalak —herri-telebista hitza ez zait aproposa iruditzen komunikabide txiki hauek herrietan nahiz hirietan kokatzen baitira — perretxikoak legez ari dira ernaltzen. 80ko hamarkada irrati libreen sasoi emankorra izan zen moduan 90eko hamarkada honetan telebista lokalek bereganatu dute uhinen espazioa.

Nekez jarrai daitezke hainbat lekutan burutzen diren programazioak eta horregatik Bilbon, nire hirian, gertatzen denari buruzko azterketa soil bat baino ez dut eskainiko. Dena den, heldu zaizkidan zurrumurruak kontuan harturik, txakurrak leku guztietan oinutsik.

Harrigarria bada ere, Guggenheimen hirian hiru telebista lokal ari dira emititzen. TeleBilbao, 1990ean sortua, Canal Bizkaia, 1997an hasi zena eta Canal Bilbao, oraingoz froga-garaian. Hirurak ekimen pribatuaren ondorioak dira, baten batek diru-laguntzaren bat jasotzen badu ere.

Egoera oparo honetako tragedia telebista-ereduan datza. TeleBilbao eta Canal Bizkaia —Canal Bilbao oraingoz ez da nire etxera heldu— kate ezagunen ildo generalistatik abiatzen baitira.

Ikus dezagun gertaturiko adibideren bat. Saio informatiboetara errepasatu gero, hiriar buruzko albisteak Euskal Herriko dinamika politikoaren menpe antzeman daitezke. Beraz, egun berean Euskal Telebistak, Telenortek eta Bilboko kate lokalek bat egin dezakete Ajuriaeneko hitzarmenaren azken berriarekin. Ez badago bereiztasunik zertarako *lokala* deitu?

TeleBilbaok Espainiako telebista lokalen elkarte bat suspertu du eta ez du inolako lotsarik Andaluziako zaldi erakusketak edota Madrilgo motor lasterketak emititzeko

euren artean eratu duten trukearen bitartez. *Local Media* izenez bataiatu dute elkarren arteko harremana eta zeresanik ez dago telebista lokalen nortasunaren aurkako erasorik larriena dela.

TeleBilbao Nerbion irratia adarretako bat da. Irratia negozio ederra den heinean telebista ez omen da batera errentagarria. Biak, telebista nahiz irratia, Euskal «olé» komunikabideak izenda genitzake. Olé eta Olé!

Canal Bizkaia sortu berria izan arren kaleko publizitatean dagoeneko 180.000 ikusle bildu duela irakur daiteke. Datu eztabaidagarri hau alde batera utzita, telebistaren kalitatea hobea da. Bizkaiari begira eginiko kateak ETBko eredia dakarkigu gogora, haien arteko alde nabarmena onarturik. Kolore urdina nagusitzen den Canal Bizkaia honen Bilbo orekatsua goa erakusten du eta zenbait telebista zappingean aurki daitekeenaren konplementarioa da. Adinako pertsonen eskaintakoa, kasu.

Beraz, ezer gutxi ekartzen dute ustezko telebista lokal hauek eta monotoniaren beste begikate bat baino ez dira. Euskarak ez du lekurik aipatutako kate bi horietan. Eta oker ez banago hiritik kanpo euskaraz egiten ari diren herri-telebistak ditugu aitzindarienetakoak. Bilbok euskaraz emitituko duen telebista kate berritzaile bat beharko luke.

Hogei urte

Sarasketa eta Medius euskal militanteak kartzela nardargarrirako bidea hartu zuten unetan Larrabetzun gazte talde bizi bat ari zen txotxongilo eta hankapaluekin jolasean.

Euskal Herriko aurreneko hankapaluak —Bekereke taldekoekin batera— Kukubiltxoren tailerrean burutu ziren. Gaur, aldiz, hankapaluen ezustea galdua da eta oso talde gutxik eusten dio hankaluzearen egoera kaskarrari.

Kukubiltxok hasi-hasieratik antzerkiaren eskulanetan trebetasuna erakutsi zuen eta hogei urteren buruan, euskal panpingintzaren profesionalik nabarmenenak direla erakutsi du. Urteurren hau ospatzeko *Kukubel* kaleratu be-

rrri du. Tamaina txiki eta handiko txotxongiloaren azken maisu lana.

Hamaika lanen artean Oskorriekin batera taularatu *Marijane kanta zan* ikuskizunak aipamen aparta merezi du, maskara, panpin, jantzi eta mozorroak maila goreneko atrezzoak baitira. Europan zehar harro ibiltzeko modukoa. Hogeitaz urte ez dira alferrik igaro eta Larrabetzuko antzerki lantegiak *labelaren* saririk nagusia mereziko luke.

Ume eta kale-antzerkia esparruetan osatu duen eskarmentua ahaztezina gerta daiteke. 20 urtez hizkuntzarekiko konpromezuari eutsi dio zalantzarik izan gabe. Euskaraz baino egiten ez duen talde profesional bakarra. Gainera, amets politikoak ez ditu sekula ezkutatu eta honek nolabaiteko zailtasunak ekarri dizkio. Kukubiltxo lehengo saioietako espiritua gordetzen duen azken mohikanoa. Eskerrak horri.

Medius kalean da, Sarasketak gerizan jarraitzen du. 20 urteko aitzakia hartu dute Deabruak Teilatuan rock taldearekin bildu diren hiru poetek. Koldo Izagirre, Jose Luis Otamendi, Iñigo Aranbarri olerkariak eta Ubedatarren bandak ikuskizunen taula zapalduen hautsa astintzeko go-go dakarte.

Historiaren irudiak

T*ransizioa Euskadin* dokumental sorta ETBren lezio gazi-gozo berria da. Egileari dagokionez, ETBko dokumental gehien-gehien gidaria dugu honetan ere buru. Telebistaren esanetara, Koldo San Sebastianek hartu du bere gain Euskal Herriko historiaren irudien moldaketa. Azken hamar urteotan makina bat dokumental burutu du dagoeneko eta azkenengo hauek orain arte zuzendu duen lanik arriskutsuena dela esan daiteke.

Lehenago ere, alderdi nazionalistaren ikuspegi bakarra ematen zuela leporatu zioten hainbat ahotsek. Jaurlari-tzaren oniritzia zuela ez da sekretu eta historiak nolako iritzi politikoa halako kontaketa daukala begibistan da. ETBko zuzendaritzak ez du bestelako historiagilerik nahi

izan eta agindu gehienak *Deia*-n lan egiten zuen kazetariaren esku izan dira. Azken aldian, Mirentxu Purroy-k, berri, dokumental bakan batzuk burutu dituela (Yoyes, Rubial...) adierazi beharko genuke, baina salbuespen bakarra eta nimiñoa da.

Oraingoan eta Gerra Zibilari buruzkoekin gertatu zen bezala Baleuko ekoiztetxearekin ari da lanean San Sebastian. Hau dela eta, *Transizioaren* ekipoa zabalagoa da aurreko lanekin alderatuz. Dokumental sorta honek pozik inor utziko ez duen arren bertsio ofizialez gain bestelako iritziak ere plazaratu ditu. Aho bete hortz laga gaitu Martin Villa, Idigoras, Arzallus eta Wilson saio berean eta jarrera ikustea. Honelakorik ez zen aspaldian gertatzen.

Lan honetan esparru politikoa nabarmena denez gero, ETA ezberdinen partaideak ari dira etengabe pantailaratzen. Gaurko sasietan erabat ezohikoa. Eta saioen burutzapena oso biribila ez izanagatik ezuste galant eta erakarriak aurkitu ditugu. Txikiren fusilamendua anaiaren ezpain eta begi bustietan unerik hunkigarrienetako bat izan du. Bihotzeko zipriztin gutxi batzuk egia ofizialaren eremuan.

Zentzu kritikoa galdu barik *Transizioa Euskadin* saioak ETBn ikusmira berria zabaldu beharko luke. Iraganari eman dion ikuspegi irekia orainaldian ez luke itxi beharko. Denon telebista izateko urrats ugari falta da eta PP jakinaren gainean dago. Horrexegatik dokumental hauek sortarazi dioten haserraldia ez du ezkutatu. Leihoak ixten. ♣



Euskal ikaskuntza

Orain badakigu Ipar Euskal Herrian zenbat haurrek eta gaztetxok euskara eta euskaraz ikasten duten. Datu bilketa ez zen erraza, estadistikak administrazio publikoarekin funtzionatzen baitu. Pauen badituzte departamenduko zenbakiak, Baionan ezin dugu ardietsi Euskal Herriaren argazki matematikoa.

Miloi laurden biztanleko lurralde honetan baditugu 1. mailan (3-11 urte) 24.500 haur. Murgilbidea (D eredu) ikastolen berezitasuna da eta haiena bakarrik: ikastolakumeak 1.227 dira, % 5. Ikasgela elebidunak (B eredu) badi-ra eskola publikoetan eta katolikoetan, % 11 eskolierrentzat. Iniziazio taldeetan (A eredu) astero 3 orenez euskara ikasten dute % 11 eskolierrek. Beraz % 73 haurrek ez dute euskararik entzuten eskolan.

Garapen Kontseiluaren hizkuntz proiektuak helburutzat finkatu du % 40 ikasle D eta B ereduetan. Bestela erranez urtero 500 ikasle eta 25 irakasle gehiago hamar urtez. Zenbat aldiz *Deiadar* jo beharko da epe horretan? 2. mailako 26.400 gaztetzuetan (11-18 urte) euskararen maila ehuneko bosta da nonbait han.

Konparaketak egin ditzagun herrialdeen artean, euskal ikaskuntzatik erdal ikaskuntzara, D-B-A-X ereduak aztertuz. Iparraldea Nafarroako eremu ez-euskaldunaren itxurakoa da. Hiru eremuak osotasunean hartuz, 44.708 nafar haurren euskalduntzeak urrats aipagarriak egiten ditu, baina gehiengoa erdal ereduari dago: % 22, 0, 22, 56.

Euskal Autonomian pedagogia euskaldunduz doa, 1982tik (% 12, 8, 69, 19) 1997ra (% 36, 19, 44, 1), epe berean ikasleen kopurua jaitsi delarik 475.000tik 340.000ra. Aurten ere euskalduntze tendentziak jarraitzen du, irailen lehen aldiz sartuko diren 16.000 haurrak holaxet banatzen baitira: % 60, 25, 15, 0. Erdarazko ikaskuntza hustu da, bederen eskola publikoetan, eta Gipuzkoan 3 haur zerrendatu dira A ereduari.

Zenbaki hauek itxaropentsuak dira, ezberdintasun handiak balin badira ere eskualde batetik bestera. Ikus dezagun Euskal Herri osoan lehen hezkuntzako 411.145 ikasleak nola banatzen diren euskal ikaskuntzan. Euskarazko D eta B ereduetan: % 49 (33 + 16); erdarazko X ereduari: % 11; bitarteko A ereduari: % 40. Transizio pedagogia ugariena bada ere, ikasleen erdiak herri hizkuntza funtsez ikasten du.

Hiru legek eskoletako ateak ireki zituzten, Deixonne 1951, Oinarrizkoa 10/82 eta Vascuence 1990. Euskaldungoaren nahiz euskara sartzeko da ikastetxeetan eta herri hizkuntzari eman zaio bihurtzearen historiko bat: Velasco-ren inkestatik haste (1868) atzeratzen ari zen euskara gaur egun aurrera doa. Eta ikaskuntzari esker gertatzen da, orain arte eskola erdalduntzeko zelarik.

Beste galdea da erabilera zertan den. Alabainan legeak balio du ikaskuntza publikorako eta administrazio hizkuntzarentzat. Eguneroko euskararen erabilera hitzunen gain dago. Gizartearen, familien eta oro har hitzunen dinamikak izena du *atxikimendua*.

Euskal unibertsitatea

Unibertsitatearen auzia biziki minbera da Iparraldean. Baionako fakultateetan eta teknologia institutoan (IUT) 2.000 gazte daude. Baxoa + 2 edo 3 urteko ikaskuntzetan beste 1.000 ikasle. Dedukzioz erran dezakegu 5.000 gazte kanpoko unibertsitateetan dabilzala, batzuk Pauen, etxetik hurbil, besteak Bordelen, Okzitaniako Tolosan edo Parisen.

Ikasle horien urruntzea herriarentzat odol huste bat da. Ez dugu asmatzen denek ikasketa guztiak hemen egin behar dutenik. Baina herriak bere gazteria quota hartze du, hemengoa edo kanpoko, gizarteari bizitasuna ematen diona. Alde batetik kanpuseko bizitzak «masa kritiko» bat eskatzen du, irakasle eta ikerle ospetsuak erakartzeko bai eta funtsezko antolaketa erakitzeko, liburutegi, laborategi, egoitza ala kirol zelai.

Bestalde ekonomiari begira, 1.000 ikasle lantegi er-tain batek bezenbat mozkin ematen du tokian berean.

Gainera lan munduarekin harreman baliagarriak ezartzen badira, unibertsitatea geroko enplegu sortzaileen mintegia bilakatzen da.

Garapen Kontseiluaren babesarekin, lan talde batek diseinatzen du Iparraldeko unibertsitatearen perspektiba.

1) Paue eta Baionaren artean oreka bat finkatu behar da: han 25.000 ikasle badaude, hemen 10.000 ikasle behar genituzke. Departamenduaren eragina nabari da, goi mailako ikaskuntzak ez badira ere Kontseilu Nagusiaren eginbideetan.

2) Unibertsitate autonomoa eta elebiduna nahi dugu. Gaur egun 200 ikasle daude euskal ikasketetan, filologia eta irakaskuntza diplomak ardiesteko. Askoz gehiago behar harko da euskal ikaskuntza orori zabaltzeko. Beste fakultateetan ere euskarazko kurtsoak eskainiko dira, adibidez matematika, zientzia eta zuzenbide programetan, geroko irakasleen eta profesionalen euskaltasuna segurtatzeko.

3) Teknologia berriak landuko dira, Bidarteko Izarbel teknopolean egiten den bezala. Baina Industria eta Merkataritza Ganbararen babespean eta unibertsitari klasikoen gogoaren kontra. Nor da modernitatearen beldur?

Ez dut uste Hegoaldeko problematika arunt bestelakoa denik maila batez aurreratuago bada ere. Irakaslego propioa autonomiaren logikan sartzen da. Euskararen lekua unibertsitate guztien auzi nagusia da. Ahalak banatzeko, ikusi behar genuke zer lankidetza antola genezakeen, irakasleak eta ikasleak trukatzuz, Eurobatasunak ahuldu dituen muga akademikoen gainetik.

Nafarroako euskara

Artikulu hau idazten ari nintzenean *Nafarroako euskara -ren historia soziolinguistikoa* hartu nuen, Xabier Erize Etxegarai, tesiaren egileak igorririk. Zer lana! Hor dago soziolinguistikaren historia Labov-etik Sanchez Carrion-eraino, eta nafar euskarari buruz idatzi den guztiaren aipamena. Ikerketa historikoa 1936an mugatzen bada ere gogoetak oraingo hizkuntz egoeraren ulertzeko balio du. Gainez

gaineko irakurketa baten ondorioz bizpahiru ohar egingen ditut, kalaka libre batean.

Lehenik nabari da hizkuntz borroka bi (edo hiru) gizarteen artekoa dela. Hastetik definitzen da hizkuntz komunitatea, hizkuntza bera dutenen multzo dinamikoa, gizarte baloreak barne, bai eta hizkuntzaren ikasteko eta erabiltzeko moldeak, mintzakidegoa ugaltzeko bideak. Eta mintzakidetasunaren kontzientzia. Nafarroan euskal komunitatearen ondoan dago erdal komunitatea. Hemen erdara bikoitza da, gaztelera eta frantsesa, baina Nafarroa Beherea ez zen aztergai aldi honetan.

Baloreak baitira komunitatearen oinarriak, interesgari da jakitea multzo bakoitzak zer dioen bere nortasunaz. Aurkezpen luze bat badugu F. Brunot-en liburuaz: *Histoire de la langue française* (13 liburuki, 1937). Alabainan argigari da jakitea Frantzia nola pasatu den XVII. mendeko eleazintasunetik gaurko elebakartasun ofizialera. Gainera iraultza denborako ideiak Europa guztira zabaldu ziren XIX. mendean. Denbora hartan zen finkatu nazioaren, hizkuntzaren eta estatuaren arteko ekuazioa, geroztik herri orotako abertzaleek errepikatzen dutena. Nazioaren arima hizkuntza da, nazioaren zaindaria botere politikoa den bezala. Hizkuntz batasuna balore politiko bilakatu den pundutik, batasun horren bideak ireki dira (edo alderantziz): errepideak eta ibiltzeko askatasuna, idazkiak eta eskola, indarra eta soldadugoa, emankortasuna eta modernitatea. Hiritarren elabakartasunak onartzen zuen herritarren elebitasuna, herri hizkuntzei utziz eremu minimo bat.

Bai, baina ideiak ez daude geldirik. Erromantizismo aroan Alemaniako nazionalismo politiko-kulturala Frantziaren aurka agertu zen ideia frantsesekin. Gero balore berak zabaldu ziren Italian, Espainian eta holaxet aurkitzen ditugu Nafarroako erdal komunitatearengan.

Zer dio euskal komunitateak?

Bi diskurtso adierazi ditu euskarari buruz, atzerakada eta iraupena.

Zergatik higatu, gutitu edo galdu den euskara, Campion, Yrigaray ala Sanchez Carrion, idazle ezberdinek kanpoko edo barneko faktore berdintsuak eman dituzte: etorkinen inbasioa, harreman ugariak erdaldunekin, estatua-
ren eragina erdararen alde. Bai baina egoera bera zen Katalunian eta han herri hizkuntza indartsuago da. Orduan barne faktoreak ikertu dituzte, euskaldunen utzikeria, goi klaseen jarrera, erdarazko idazmena, euskararen prestigio falta eta tokian tokiko egoera.

Euskararen hil zeinuak ere noizean behin entzuten dira: «*Le peuple basque s'en va*» (Reclus). Euskal herria ba-
doala? Ez, badabil. Ondorioz, Intxausti, Torrealdai, eta beste batzuk iraupenaren azterketa egin dute. Bigarren faktore zerrenda luze batean aurkitzen ditugu euskaldu-
nen inertzia eta isolamendua, baserri giroa, familia transmisioa, euskararen prestigioa, elebakartasuna, elebitasuna.

Mitxelenak pentsatzen zuen bazitekeela sakonagoko indar bat beste faktore guztien indargarri. Ez Ferguson-ek definitu zuen *diglosia*, hizkuntza gutitu batek ez baitu lu-
zaz bizitzerik. Baina bai euskaldunek euskarari buruz dau-
katen atxikimendua, *speech loyalty*. Izan dadin kontzientea ala naturala, leialtasun horrek lotzen ditu faktore baiko-
rrak, eta erakusten faktore ezkorren «ahulezia». Euskal «boluntarismoa» inkesta guztietan agertzen da: komuni-
katzeko behar dugun baino askoz euskara gehiago nahi
dugu. Zertarako? Euskaldun izateko.


Erdal komunitatea egituratuago dalakotz borroka ba-
tzuk irabazi ditu administrazioan, hezkuntza mailan, poli-
tikaren aldetik. Hala ere euskal komunitateak indar berri
bat hartu zuen Campion-en hizkuntz ideologiaren eragi-
nez. Ekimen asko egin ziren euskararen alde. Zerrenda lu-
ze batean agertzen dira 137 ekintza nagusi 73 urtez.

Geroari buruz erakaspén nagusia da euskal komunita-
teak pizkortu behar dituela bere baloreak bereziki herri
hizkuntzari buruzko atxikimendua. Egitura batzuk ere
eraikiko ditu iraupena eta ugalketa segurtatzeko. Baina
politikan itxaropen gehiegirik ezarri gabe: historian zehar
nabarrismoa edo karlismoa ez dira beti euskararen alde
agertu.

Kontseilua

Euskararen Unibertsoa uler daiteke lehengo eta oraingo gizarte ekimenen bidegurutzea bezala. Orain arte lurraldeetan eramaten ziren ekintzak, kontzientzia orokorrago batean sartzen dira. Iragan urteko jardunaldietarik, aurten jalgi da Gizarte Ekimenen Kontseilua, adostasun sozial zabal baten bila. Euskalgintzaren biziberritzeko aroan garela uste dut.

Hala ere problematika berri bat sortzen du hautuzko elebitasunak. Bi kulturetan parte hartzen dutenek ba ote dute mintzakidego erreferentzial bat bestea gehigarri delarik? Dena dela kulturarte eremu bat asmatzen dutenentzat ere baldintza nagusia da kultura bakoitzaren pizkortasuna. ♪



Aukera paregabea

Urte hasiera honetan gertatu izan dira gauzatxo batzuk, euskal kulturaren eta teknologia berrien inguruan, egunkariko titulurik edo iritzi sailetako pentsamendu lerrorik erakarri ez duten arren.

Adibidez, ia oharkabean pasatu zen albistetxo bat prentsatik urtarrilean. Euskaltzaindiak iragarri zuen prentsaurreko batean Donostian, Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) egiteko erabili izan den tresna informatikoa berritu beharra dagoela. OEH egiteko, Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak (EJIE) egindako datubase dokumental bat erabili izan da orain arte. Tresna informatiko horretan euskal klasiko guztiak daude, Etxeparetik hasi eta XX. mendeko obra garrantzitsu batzuk arte. Euskaltzaindiak iragarri zuenez, datubase zaharra ez da jada erabilgarria, eta goitik behera berritu behar da.

Kontu hau ez da anekdota hutsa. Euskal klasikoen digitalizazioak eragin handia izan du azken urteotako hizkuntzalaritzan eta hiztegegintzan (komertzialean ere bai). Tresna hori eskura duenak, saka dezake «luze» hitza eta berehala ikusi zein autorek noiz, non eta zein kontestutan erabili zuten hitz hori. Horrela egin da OEH, eta horrela erabili ahal izan dituzte batzuek datu estatistikoak eta kasuistika historikoa euskara baturako proposamen batzuk hobesteko eta beste batzuk gaitzesteko (gogoratu ajeak...).

Auziak badu bere mamia, beraz. Hala ere, nonbait, EJIEk egin zuen lehen tresna hura ez da erabilera publiko-koa izan. Klasikoen inguruko paperezko materiala lor zitekeen Euskaltzaindiari eskaera eginez gero, baina Jakintza Baitha taldeko Josu Lavinek abenduan *Egunkaria*-n argitaratutako artikulu batean salatu zuenez, tresna informatikoa eta material digitala itxita zegoen: OEHkoek soilik kontsulta dezakete nonbait. Lavinek berak lanak diskete-

tarako digitalizatzen egin duen lana bere kasa egin izan du orain arte: ez du datubase hori erabiltzerik izan.

Orain arte horrela izan bada, hala izan da eta kito. Baina hemendik aurrera ez luke hala izan behar derrigor, inondik ere. EJIek tresna hori berritu behar baldin badu, ez legoke gaizki bertsio berria benetan eskuragarri eta publiko izateko moduan ezartzea: Interneten, adibidez, urrutirago joan gabe. Halaxe daude, etxetik irakurtzeko moduan, William Shakespeareren lan oso orijinalak —Ttanta-ttaka-ren bertsio antzeztu laburtua ikusirik jakinahiak jota geratu direnentzat—, eta Oscar Wilderenak —antzerkiarekin segituz, Ernesto izatearen garrantzia gogoan—, eta Esoporen fabula guztiak —Samaniego arabarrarenak lortu arte entretenitzeko—, eta... Gogora dezagun autore hilen lanak jabetza publikokoak direla heriotzetik 50 urtera, eta hortaz, ezin dela, legez, eksklusibotasunik ezarri material horretan. Gainera, erakunde publiko batek ordaindurik (Jaurlaritzak), erakunde publiko batek egin behar baldin badu tresna (EJIek), onura publikoko akademia batentzat (Euskaltzaindiarentzat), erabilera ere publikoa izan behar lukeela bistakoa dirudi... Dagoeneko, zenbait zirkulu euskaltzaletan komentatu izan da aukera ederra dela orain kultur ondare hain garrantzitsu eta aberats hori denon esku izateko.

Microsofteko milioiak

Oihartzun gutxirekin gainera igaro zaigun beste albiste bat Microsoft etxearekin softwarea euskaratzeko lortu den akordioarena da. Jaurlaritzak munduko gizon aberatsena den Bill Gatesen enpresarekin adostu du Windows 98 sistema eragilea eta Office programa paketearen sail handi bat euskaratu egingo dela.

Akordioa, Jaurlaritzak eta EAeko hiru foru aldundiek Microsoftekin adostu duten erosketa handiaren parte da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herri aginteentzako material informatikoaren erosketa ikaragarri handia da egin beharrekoa, eta hori negoziatzearekin batera euskararen gaia

ukitu izan da. 400 milioi pezeta inbertituko ditu software hori euskaratzen. Idatzi izan dut lehenago ere, «ahalegin desbideratua» irizten diodala softwarea euskaratzeari lehentasuna ematea: gaur egunean, menuak euskaratuta eduki barik, jana, pantailarekin lor dezakegun informazioa, dela hemen auzitan dagoen mamia. Halabaina, espero zitekeen bezala, nik *Jakin*-en idatz dezakedanak ez du inorengan eragiteko ahalik.

Lehentasanak beste nonbait jarriko bagenitu, eta 400 milioiok euskarazko eduki publikoak —Internetekoak— garatzeko erabiliko bagenitu, demagun 40na milioi 10 proiektutan, agian...

Ekimen interesgarriak

Nolanahi ere, badirudi azkenean, aginte publikotik edukaren auziari garrantzia ematea erabaki dutela, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari dagokionez. Alde horretatik, iaz apur bat zirriboratu ziren bi ekimenek fruitua eman dute berriki. Batetik, Euskararen Aholku Batzordean, teknologia berriei buruzko alorreko irizpideak findu ditu, eta bestetik, Erlea proiektuari bultzakada bat eman zaio.

Euskararen Aholku Batzordeak iaz txostena eskatu zion Aitor Orobengoa injineruari, teknologia berrien alorreko beharrak eta ildoak markatzen laguntzeko. Lan hura oinarri hartuta, hausnarketa prozesu bat abiatu zen, iradokizun eta zuzenketa bilketa batekin, eta azkenik, otsailan, teknologia berrien alor honetarako sortutako azpibatzerde bat bildu zen. Ametzagaina taldea, Aurten Bai, Ihardun, IXA informatikari taldea eta Jalgi zerbitzaria zeuden ordezkartuta bilera hartan, HPSko ordezkariekin batera. Batzordekideei neurri sorta zabal bat proposatu zitzaizen bileran, eta bideragarritasunaren eta eraginkortasunaren arabera bakoitzak puntuak emanez, azkenean 12 ideia hobetsi zituzten proposamen gisa.

Denen gainetik hobetsi ziren proposamen nagusiak orokorrak izan ziren: euskararen injinerutzaren industria

bultzatu eta euskararen hizkuntz analisirako tresnak bultzatu.

Aipatzekoa liteke, merkatuan zabalkundea duten produktuen lokalizazioari lehentasuna ematea 9. postuan geratu zela proposamenen artean. Microsoft etxearen 400 milioiak atal horretan sartzen dira. Horren aurretik geratu direnek egitasmoek proportzioan jasoko ote dute behar duten laguntza hori? Espero dezagun baietz. EABren proposamen hauek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian sartu beharko dira. Koherentziaz, borondate politikoz eta diru baliabidez hornitzen badituzte egitasmoak, urrats garrantzitsua izango da.

Erlea

EABko azpibatzerde teknologikoan ontzat eman zen beste proposamen bat hauxe izan zen: euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu, galdetu eta hedatzeko. Seigarren tokian geratu zen proposamen hori egindako sailkapenean.

Ondare hori publiko egiten hasteko ideia bide bat Erlearena izan daiteke. Akronimo bat da ERLEA: erakundeak lotzeko euskal amarauna. Iaz eman zuen jakitera Kultura Saileko HPSK proiektu honetan murgilduta zebilela, eta hitzarmen bat ere sinatu zen enpresa batekin, baina gero erdi lo geratu zen proiektua. Azkenean, udaberri honetan berriz martxan jarri dela dirudi, oraingo honetan serio.

Kultura Sailarekin lotura duten elkarte eta erakundeak *online* lotzeko sare telematikoa izango da Erlea. Kultura Sailaren asmoa omen da ERLEAREN bidez HABE, euskaltegiak, udal liburutegiak, kirol federakuntzak, gazte, euskara eta kultur elkarten informazioa bideratzea Interneten. Dirulaguntza edo gainerakoak direla eta, 900 bat elkarte, enpresa eta erakunde omen daude harremanetan Kultura Sailarekin EAEn, eta horiei zuzendu zaie Erlearen eskaintza. Parte hartzen dutenek, posta elektronikoa eta banaketa zerrendak doan erabili ahal izango dituzte, eta era berean,

beren materialak *online* jarri ahal izango dituzte, gasturik gabe.

HPSko ordezkariak eta Erlea bideratuko duen Interlinea-2000 enpresakoak bilerak egiten ari dira elkarteekin, eskaintza azaltzeko. Printzipioz, ez da nahastu behar Erlea Interneteko zerbitzari arrunt batekin: konexioa barik, eduki eskaintza izango da enpresa honen ardatza, proiektuaren bultzatzaileek erantzuten badute. Elkarteek erantzuten badute, eta Kultura Sailak berak edukiz hornitzen badu Erlearen gunea edo dena delakoa, ekimen interesgarria izan daiteke.

Maiatzean emango omen ditu proiektu honek lehen urratsak, eta eduki eta zerbitzu zehatzak irailean prest egon litezke, nonbait. Arretaz segitu beharko dugu ekimen honen hastapena eta ondorengo ibilera.

Erlearen sorrerak beste hausnarketa batera ere bagaramatza: Euskalgintza eta euskarazko kulturgintzaren berri-tze teknologikoa —bereziki Interneterako sarrera— merkatu lehiakortasunerako eremu izan da azken urte hauetan. 1996an Eusnet proiektua sortu zen, euskalgintzari gonbita eginez Internetera lotzeko. Iaz, berriz, Jalgi sortu zen, ikastolen, *Egunkaria*-ren eta Elkar-Zabaltzenen eskutik, eta honek ere halako eskaintza edo proiektu bat aurkeztu dio euskalgintzari. Aurten, Erlea ere eremu berari zuzendutako ekimena da. Lehia esan nahi du honek? Ez derrigor. Erlean eduki batzuk eskaintzeko aukera izateak bateragarria da Interneteko konexioa beste batekin izatearekin.

Nolanahi ere, inportantea litzateke auziaren muinari begiratzea. Inporta duena zer den jakitea. Badirudi batzuetan Arraldeko Euskara Taldea batekin edo bestearekin joatea dela hemen auzitan dagoena. Eta ez: ez da hori. Arraldeko Euskara Taldeak euskaldunei —beren herrikoei eta gainerakoei— eduki eta zerbitzu interesgarriak modu eskuragarri batean eskaintzea da inportantea, eta horrekin batera Arraldeko Euskara Taldekoek besteek eskaintzen dituzten eduki eta zerbitzuetara akzesoa izatea. ¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20009 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax 943.21.82.07
jakin@jalgi.com